


## Euskal kultura 2001



ERRAMUN BAXOK

MIKEL BUJANDA

ANDOLIN EGUZKITZA

MIKEL ELORZA

INAKI IRAZABALBEITIA

XABIER KINTANA

RITXI LIZARTZA

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

LAURA MINTEGI

ALLANDE SOKARROS

ANDRES URRUTIA

*Gaiak**Aintzina petainzalea?* FAKO SUDUPE

Nietzsche euskal literaturan: Etxepare ren «Amodioa». JURGI KINTANA

# JAKiN

*127*

azaroa  
abendua  
2001



*Aldizkari hau ARCEko kidea da*  
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)

---




*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura  
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*

---



*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

## *Aurkibidea*



### *Zenbaki honetan*

---

w 7

### *Gai nagusia*

---

#### Euskal kultura 2001

ERRAMUN BAXOK w 11  
MIKEL BUJANDA  
ANDOLIN EGUZKITZA  
MIKEL ELORZA  
INAKI IRAZABALBEITIA  
XABIER KINTANA  
RITXI LIZARTZA  
XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU  
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI  
LAURA MINTEGI  
ALLANDE SOKARROS  
ANDRES URRUTIA

### *Gaiak*

---

*Aintzina* petainzalea? w 89  
PAKO SUDUPE

Nietzsche euskal literaturan:  
Jean Etxepareren «Amodioa» (1910) w 109  
JURGI KINTANA

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA


Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia  
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07  
jakin@jalgi.com

---

2001eko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	6.000 pzta. (36,06 euro)	—
Ale arrunta	1.000 pzta. (6,01 euro)	1.350 pzta. (8,11 euro)
KANPOAN		
Harpidetza	6.500 pzta. (257 FF / 39,07 euro)	—
Ale arrunta	1.100 pzta. (43,5 FF / 6,61 euro)	1.550 pzta. (61,29 FF / 9,32 euro)

## Summary



## Basque Culture 2001

Twelve authors, professionals from the world of Basque culture, provide us with a critical comment on cultural events that have happened during the year 2001. Erramun Baxok focuses on the cultural activity and the socio-linguistic situation of the North Basque Country (Iparralde); Mikel Bujanda provides an overall balance of cultural activity and of the socio-political situation in Navarra; Andolin Eguzkitza summarizes the activity carried out by the Association of Basque Writers; Mikel Elorza comments on diverse aspects of literary, cultural and political activity; Inaki Irazabalbeitia also reviews several events of a cultural, political, socio-linguistic and scientific nature; Xabier Kintana, following diverse assessments of a political nature, analyzes the sometimes tense relationship existing between the unified Basque language and the Vizcayan dialect; Ritxi Lizartza reflects on the strengthening of theatrical activity, together with other considerations regarding the general political situation; Xabier Mendiguren Bereziartu carries out an assessment of the activity undertaken this year by Kontseilua; both Xabier Mendiguren Elizegi and Laura Mintegi combine their analysis of the literary world with diverse reflections on the general political situation; Allande Sokarros provides us with an analysis of cultural events in Zuberoa; and finally, Andres Urrutia adds several notes concerning the cultural, political and literary milieu of this year. w *Various Authors*


## *Aintzina* a follower of Petain?

The teacher Pako Sudupe analyzes the relationship that the periodical *Aintzina* maintained at the beginning of the 1940s with the regime and ideology of Petain: According to the author, the magazine, with pro-Basque and pro-Arana leanings, coincided with the ideology of Petain —during those practically hegemonic years in the North Basque Country— in defence of traditional values and a total rejection of Marxism. Moreover, it considered that the regionalism defended at first by Petain might have boosted the current of pro-Basque opinion existing in the North Basque Country. w PAKO SUDUPE



## Nietzsche in Basque literature: «Amodioa» (1910) of Jean Etxepare

The historian Jurgi Kintana studies the reception experienced by the thought of the German philosopher Friedrich Nietzsche in the Basque Country at the beginning of the 20<sup>th</sup> century. To this end, the author focuses on a case that has so far been practically overlooked and that, according to Kintana, might be considered as one of the forerunners of modern Basque literature: the writer and doctor Jean Etxepare (1877-1935) and, in particular, his tale «Amodioa», of 1910. w JURGI KINTANA



**e**skuetan duzun hau bigarren aldiko 127. zenbakia da eta 2001. urteko azkena.

Urteroko ohiturari jarraituz, urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzearekin gatoz azken zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean. Horretarako, urteko hiruzpalau gai hautatzea eta horiei buruz gogoeta eginenez artikulu arin eta freskoak egitea proposatu diegu hainbat idazleri. Hamabiren erantzuna jaso dugu. Mila esker, beraz, guztioi.

Erramun Baxok soziolinguistak Iparraldeko kultur jardueraren eta euskarak han bizi duen egoeraren azterketa eskaini digu; Mikel Bujandak, Euskalerria Irratiko zuzendariak, Nafarroako kultur jardueraren balantze orokorra egin du; Andolin Eguzkitzak, Euskal Idazleen Elkarte-ko lehendakariak, elkarte horren jardueraren laburpena eta balorazioa burutu ditu; Mikel Elorza abokatu eta zutabegileak eta Inaki Irazabalbeitiak, Elhuyar kultur elkarte-ko lehendakariak, kultura, literatura, politika eta soziolinguistika alorreko hainbat gertakari ekarri dizkigute gogorra; Xabier Kintana euskaltzainak, egoera politikoari buruzko iruzkinekin batera, euskara batuaren eta bizkaieraren arteko harreman gatazkatsuei buruz egin du gogoeta; Ritxi Lizartza hizkuntz teknikariak euskal antzerkigintzari gainbegirada orokorra eman dio; Xabier Mendiguren Bezeiartuk, Kontseiluko idazkari nagusiak, erakunde honen aurtengo jardueraren balorazioa ekarri digu; Xabier Mendiguren Elizegi eta Laura Mintegi idazleek, nork bere ikus-




pegitik, aurtengo literatur ekoizpenaren inguruko balorazioa eta gogoeta mamitu dute; Allande Sokarros kazetariak Zuberoako euskalgintza eta kulturgintzan jarri du arreta; eta, azkenik, Andres Urrutia notarioak urte honetako literatur, kultur eta politika jardunari buruzko zenbait ohar erantsi ditu. Guztiek ere, beren iruzkinak egiterakoan, modu batera edo bestera testuinguru politiko orokorraren baitan kokatu dituzte kultur ekimen eta jarduerak.

*Gaiak* saila, bestaldetik, bi artikuluz osatuta dago. *Aintzina* aldizkariaren ildo ideologikoa eta Jean Etxepare idazlearengan Nietzscheren pentsamenduak izandako eragina dira, hain zuzen ere, artikulua hauetan landutako gaiak.

Pako Sodupe irakasleak, lehen artikuluan, *Aintzina* aldizkariak 40ko hamarkadaren hasieran Petain mariskalaren erregimenarekin eta ideologiarekin izandako harremanak aztertu ditu. Egilearen ustez, aldizkari hau, jatorriz euskaltzalea eta aranazalea, bat etorri zen Petainekin balio tradizionalen defentsan eta marxismoaren arbuioan. Bestalde, Petainek hasiera batean aldeztutako erregionalismoak Ipar Euskal Herriaren euskaltzaletasuna susta zezakeela pentsatzen zen.

Jurgi Kintana historialariak, bigarren eta azken artikuluan, Nietzsche filosofo alemanaren pentsamoldeak XX. mende hasieran Euskal Herrian izan zuen harrera eta eraginaz dihardu. Horretarako, Jean Etxepare mediku eta idazlearen 1910eko «Amodioa» ipuina hartzen du aztergai. Kintanaren ustez, Etxepare euskal literatura modernoaren aitzindaritzat har liteke.<sup>o</sup>

# Euskal kultura 2001



ERRAMUN BAXOK ▶ MIKEL BUJANDA  
▶ ANDOLIN EGUZKITZA ▶ MIKEL ELORZA  
▶ INAKI IRAZABALBEITIA ▶ XABIER KINTANA  
▶ RITXI LIZARTZA ▶ XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU  
▶ XABIER MENDIGUREN ELIZEGI ▶ LAURA MINTEGI  
▶ ALLANDE SOKARROS ▶ ANDRES URRUTIA ▶ *11*





## Erramun Baxok

Iparraldeko kulturgintzaren aurtengo ezaugarriak aztertze-ko, Euskal Kultur Erakundeak zabaltzen duen *Leihotik* aldizkariaren lau aleak berriz irakurri ditut. Bizpahiru gogoeta.

### Sorkuntzaren urtea

Milurte berriarren hastapena kultur sorkuntza aberatsarekin ospatu da. *Aingeru* ikusgarriak kantuak, dantzak eta irudiak nahasten ditu, biziaren aroak kontatuz. *Ametsak dantza* kreaio hutsa da Ariadnaren mitoak asmarazia: dozena bat olerki berri kantu bilakatu dira «Mendiz mendi» abesbatza zuberotarraren bitartez. *Izarren hautsa* ikusgarriak ere arte asko biltzen ditu, ipuin, antzerki, bertso, bertiko gaiak aipatuz, lurra, herria, bizia.

Aipamen berezia hartzen dute kolegioetako ikasleek sorkuntza ikusgarriek, *Euskaldunak Zupen*, ZUP Baiona bazterreko bizitza gunea delarik, edo *Besta soinu, jazz'in college*, Donapaleu, Garazi eta Baigorri aldeko ikasleek antolatutik. Aipagamia ere Parisko euskaldunek kantatzen eta dantzatzen duten *Ibilaldia*, ikusleari zazpi herrialdeak erakusteko.

Eta besteak beste: *Lamintegiko laminak* antzerkia, *Matalaz* pastoral moldean, *Bertzea* filma... Kultur sorkuntzari buruz egin da gogoeta bat. Itxaro Borda idazleak esplikatzeko digu sorkuntza posible dela multzotik ateratzen denarentzat, «gutasunetik» «nitasunera» iraganez: «Nik ere anitz urte baliatu dut 'gu' kolektibo horren geriza. Baina bortxaz ikasi dut, beti bazterretik idatziz, abantaila genukeela 'ni' bezala kreativeko edozein alorretan».

### Euskalguneak

Aspaldidanik hiru kultur etxe irekiak dira hiru herrialdeetan, Eihartzea Hazpamen, Haize Berri Izuran eta Ühaitza

Zuberoan, hiru euskal irratirekin kulturgintza aitzinarazten dutenak. Geroztik beste kultur gune batzuk sortu dira, Garazikus, Aldudarrak, besteak beste. Eta ororen laguntzaille Uztaritzen dagoen Euskal Kultur Erakundea (EKE). Honen finantzamendua segurtatua da, baina ez beste elkarreana. Eta zer egin dezake EKEk bakar-bakarrak? Kulturgintzak sare bat eskatzen du sorkuntza sustatzeko, zabal-kuntza segurtatzeko eta hurbileko formakuntza antolatze-ko.

2000ko abenduan sinatu zen Hitzarmen Berezian badago atal bat kulturaz hiru ildo nagusi definitzen dituena: 1) euskal kultura zabaldu kulturgintzaren alor guztietan, adibidez komunikabide berrietan; 2) dauzkagun erakundeak sartu Ipar Euskal Herri osoa estaliko duen sare batean, Baionaldearen buruzagitzarekin baina kostaldea barnealdeari lotuz; 3) Euskal Herriko kultura hedatu herrian bertan, bai eta kanpora ere kulturak elkarren artean gurutzatuz.

Helburu praktiko batzuk ere finkatuak dira: Euskal Erakustoki berrituaren eragina beste ondareguneei begira, hemengo artxiiboak herriratzea, artisten profesionaltasuna, talde eragile bat kulturgintza osoaren kudeatzeko. Gertatzen dena da gaur egun kultur elkarte batzuek zailtasun handiak dituztela finantzamenduaren aldetik, ez baitakite arduradunak noiz arte ordainduko dituzten. Irudi luke irratia arriskuz kanpo direla. EKEk eskaturik, arduradun bat izendatzekotan da, eta bi hilabete barne kulturgintza antolaketaren argazki fidagarri bat eman behar dio Hautetsien Kontseiluari. Espero dugu Hitzarmeneko dirua baliatuko dela euskal kulturari bizi berri bat emateko.

Gainera, ordu da hirietan ere euskalguneak antolatze-ko, gure nortasuna hobeki ezagutarazteko ahalik eta publiko zabalenera. Ez baitezpada ikusgarri harrigarriak, baina gizarte egiturak baliatuz: udaletxeetako kultur zerbitzuak, gazteen topaguneak, liburutegiak, eskola inguruko animazioak... Jadanik badira ekintza ederrak, «Baiona kantuz», Polo auzunean dagoen «Bizitza zibikoaren etxe-ko» elkarretaratzeak. Bat-bateko ekintzetarik euskal ani-

mazio jarraikietara pasatu behar da talde eragile batzuen bitartez.

## Euskalgintzaren aholkularitza

Iparaldeko botere publikoen artean 2000. urteko eguberri sinatu zen Euskal Herria 2001-2006 Hitzarmen Berezian bada lehen kapitulu bat, «hizkuntza politika». Kapitulu horrek eskaintzen duen lehen ekintza da Hizkuntza Kontseilua. Alabaina, egitura berezi hau uztailean eraiki zen euskalgintza politikaren aitzinarazteko.

Hizkuntza Kontseiluaren helburua orain argi ageri da: euskararen aldeko hizkuntza politika asmatzen eta bideratzen laguntzea, hastapenean Hitzarmen Berezian hautatu diren 10 ekintzak, eta, bestalde, Antolaketa Eskeman diren beste 5 ekintzak, beti balio dutenak, ez badira ere plan kontratuan sartuak. Geroxeago Hizkuntza Kontseiluak proposatuko ditu Eurokartako 39 hizkuntza neurriak, Konstituzioaren aldetik onargarriak direnak. Bai eta ere Kortsikan eta Alsazian erdietsi dituzten aitzinamenduak, «berdintasun errepublikanoaren» izenean.

Administrazio kontseiluak idazkari nagusi bat hautatu du, Eguzki Urteaga, euskalgintzako alor ezberdinetan lan taldeak biltzeko: irakaskuntzan, komunikabideetan, euskararen egoera publikoaz. Lau eginbide nagusi:

*Koordinazio funtzioa.* Gaur egun egitura federatzaileak badira euskal nortasunaz arduratzen direnak: Euskaltzaindia, Euskal Kultur Erakundea, Euskal Konfederazioa, Ikas pedagogia zerbitzua, eta Garapen Kontseilua. Ordezkarriak Hizkuntza Kontseiluan elkarretaratzen dira. Alabaina, euskara aitzinarazteko, mugimendu guziak bildu behar dira, euskalgintza, kulturgintza, irakaskuntza, bai eta ekonomiaren garapena ere. Nola euskaldundu ahal liteke jendez husten ari den lurralde bat? Lehenbailehen mobilizatu beharko dira beste gizarte indar batzuk, hala nola sindikatuak, unibertsitatea, hedabideak.

*Proposamen funtzioa.* Gaur egun eginbide honek garrantzi handia ukanen du. Garapen Kontseiluak beste alo-

rretan egiten duen bezala, Hizkuntza Kontseiluak abisuak ongi landuko ditu, jakitunen laguntzarekin nola hezkuntza elebidunean hala hizkuntza zuzenbidean. Anitz alor bada lantzeko, halere lehentasunetan lehentasuna da euskal ikaskuntza eskaintzea lehen mailako ikasle orori; ondorioz, irakasleen formakuntza eta ikasmaterialen ekoizpena aitzinarazi behar da.

Gainera, ezin aipatuzko galde batzuk baditugu, erantzun ausartak eskatzen baitituzte. Nolako irratigintza gazteentzat, euskara 10etik batek dakielarik? Non dira ikastoletako eta gau eskoletako ikasle ohiak? Zergatik familia euskaldunetan ere euskara hain xuhur? Zergatik erakundeek herri hizkuntza hain guti erabiltzen dute, legeak onartzen duen baino askoz gutiago?

*Begirale funtzioa.* Beharrezkoa da noiznahi jakin dezagun euskara zer bilakatzen ari den eta zein diren euskalgintza ekintzen ondorioak. Hizkuntza behatokiak urtero zabalduko du euskararen egoera eta neurtuko zein den hizkuntza egitarauen eragina gure hizkuntza biziberritzeko.

*Aurreikuspen funtzioa.* Eginbide honek garrantzi handia dauka geroari buruz. Hizkuntza politika beharko da etengabe osatu, berritu, eta gainera gizarte zibila mobilizatu euskal estrategia zabal batean. Ikertuak ez diren euskalgintza alor batzuk badira, unibertsitatearen eginbidea, euskalguneen pizkundera, elebidunen mintzamoldeak. Beste herrietan ikerketak eta entseguak egiten dira, hemen ere egokituz balioko luketenak.

Ezin dugu onartu hamarkadak irauten duen militantziak ez duela euskararen gainbehera gelditu, Hegoaldean gazteen euskaldungoa hamar urtez bikoiztu delarik. Politika ez da arrazoi bakarra. Hizkuntza politika beharrezkoa da. Baina gure desafio historikoa da euskara behetik gora abiatzea elkarrekin, familiak eta eskolak lauzkatuz, kultur-gintza eta garapen ekonomikoa uztartuz. Horretarako hiru bide nagusiak dira:

- euskal ikaskuntza zabaltzea, lehen mailako ikasle guztiei,
- euskalguneak indartzea familietan, auzuneetan, he-dabideetan,

- euskararen publikotasuna segurtatzea hizkuntza zerbitzuen bitartez.

Hizkuntza Kontseiluaren pedagogia da gu denok bultzatzea hautatuak diren ekintzak artoski gauzatera, begi bistan atxikiz euskara biziberritzea lan luzea dela. Eta filosofo batek zioena izan daiteke erakunde hau: «ibaiaren joaira aldatuko duen harkaitz egokia».

## **Kulturak gurutzatzen direlarik**

Pantxoia Etchegoin EKEko zuzendariaren ideia nagusi bat da kultur trukaketa dela euskal kulturaren aberasteko baldintza, eta gainera «herrialde ezagun baten izaera, bizimodua, egoera politikoa eta geografia ezagutzeko modurik hoberena». Holaxe, iragan urtean ikusi eta entzun ditugu B'Net Marrakech taldeko kantari bereberak, Mzetamze taldeko andere georgiarak, Bulgariako Slavei kantari-lauokotea, Urs-Karpatz taldeko musikari tziganoak, Txetxeniako Daimakhan-Aznach taldea.


Aurten esperientzia berri bat gertatu da, bi aldetako trukaketa: hemendik hiru euskaldun, Maddi, Ruper eta Joseba, joan dira Uzbekistanera, eta handik bost andere etorri dira Dutortchilar abesbatza osatzen zutela. Haien ahotik Maulen eta Uztaritzen entzun ditugu kantu uzbekek, tadjikak eta pertsiarrak. Hau guztia Taxkenteko enbaxada frantsesean Aurore (Goizargi!) andere itsasuar batek lan egiten baitu. Hau guztia hango herriak zorigaitzeko aktualitatean sartu direlarik.

Hiru euskaldunek ongi etorria kantuz egin ondoren, kantu hunkigarriak entzun ditugu, amodiozkoak, sehaska kantak, euria eskatzekoak, ezkontza egunekoak. Batzuk XIV edo XV. mendekoak, lehenagoko musika tresnekin lagunduz, bi sokatako «dutorra» adibidez. Kantaldiaren gailurra izan zen JosAntononen «Hegoak» olerkia kantatu digutelarik, han ginen orok errepikatuz. Denboraz kanpoko eta mugaz gaineko unea, argitasun eta bakezko unea, garaiak ilunak badira ere.



Han ibili den Maddi xuberotar kantariak bere lekukotasuna adierazten digu, Uzbek Herrian munduko kultura zaharrenak ikusi dituztela, herrialde ezberdinetatik etorriko kulturak hor nahasi zirela mendez mendez, beti hobetuz. Ruper olerkaria ohartu da herri hura sobietarren bidez modernitatean sartu zela ondare zaharra baztertuz. Gaur egun lehenagoko «harribitxiak» berriz biltzen dituzte, gaurkotasunari eta errusierari uko egin gabe.

Joseba musikariak miretsi ditu hango musika taldeak, tadjikak, tatarak, kazakhak, gutienez 30 kidez osatuak. Baina hiru euskaldunak taulen gainean agertzen zirelarik erlijiozko isiltasuna zen nagusi, nonbaiteko hitzak eta soinuk ulertzeko asmoz, eta bururatzean kartsutasun handiz txalotzen zituzten. Ibragimov taldearen gidariak antzekotasunak ikusten ditu bere herriaren eta Euskal Herriaren artean: artzainen kantak, jendeen zintzotasuna, haren lasaiak, eta ongi bizitzeko gusua. Kultura bakearen iturria dela dio. Agian bai, han eta hemen. ¶



## Mikel Bujanda

### **Kultur ekipamenduak, inbertsio produktiboa**

Bada mugimendu. Garabiak jiraka, zementu porlanaren garraio eta txertaketa lanak, hezurdurak zutitzen eta egituratzen ikusi dugu. Eraikuntza kulturalaren garaia da Iruñean. Hiriaren erdialdean Auditorio eta Kongresuen Jau-regi izanen den *Baluartea*; auzo zaharrea Erregeen Jauregi izandakoa *Artxibo* bihurtzeko lanetan. Hiritik kanpo, Altzuzan, Iruñerriari begira, *Oteiza Fundazioaren Museoa*.

Kulturgintzaren tenplu berriak, funtzional izateko agian bai baina, horren gainetik, batez ere nabarmentze-

ko sortuak diren eraikinak dira, berezko ikuskizun izateko, arreta erakartzeko, hiri berriaren ikur bihurtzeko. Espektakularitatea lortu beharrez harroak eta ausardiaz egindako apustuak dira, ikusmina sortu dutenak, eta horiei begira gaude. Geure buruari esanez konfiantza dosi bat jarri beharko dela arkitektoengan (Patxi Mangado, Rafael Moneo eta Saenz de Oiza, hurrenez hurren.) Zalantza, dena dela, ezin baztertu —behineko zalantza, noski— handikeria eta faraonismoa dariela eraikinei. Inguruan dutenarekin integratu ez baizik, hurbil duten hori gutxietsi, ukatu eta horrekiko kontrastean bilatzen dute nabarmenagotzea. Horrela, Ziudadelaren harresiekin lehian ariko balitz bezala, bizkar handiko horma gizenak eraikitzen ari dira Auditorioarenean; Oteizaren Museoa, umaldi luzearen ondotik Altzuzan mendi magalari atera zaion konkor kubikoa azalgorriturik agertu zaigu halako batean, lotsaturik bezala, barne hutsaren espermentazio prozesuaren biltoki izan behar duenari halako antolaketa boluminosoa eman diotelako. Barneko ikuspegia izanen da egiazki balioko duena, baina oraingoz, kanpokoa paradoxa handia da (eta paradoxa, inkoherentziaren bestizen adiskidekorra izaten da batzuetan).

Orain artean ikusitakoogatik Moneorena da ziurrenik hiru proiektuetan zentzuzkoena, Iruñe zaharreko muinoaren goian, agerian, agerrian, lepo luzeko dorre gailen bat zutitzean, talaia eta tantaia, leku horrek historian izan duen esanahia gogoan hartu baitu eta, aldi berean, hiriarren soslaiari erreferentzia berri bat erantsi.

Eraikitze lanetan beraz, horiengatik ikusminez, eta mesfidatien susmoak, zementua irabiatzeko ontzi gizona daraman kamioiaren joan-etorriak beharturiko zirkulazio geldiuenean, era honetako obra zibilek kulturgintzarekin baino zerikusi zuzenagoa ez ote duten gure denbora hauetako ekonomia neoliberalaren joko engainagarria rekin, alegia merkatuari bere kasa jokatzeko utzi behar zaiola esan, baina diru publikoaren kutxatik ordaintzen dela porlanaren ekoizpena, eta gutxienekoa dela zertarako balia, lehen azpiegitura hidraulikoa, orain kultur ekipamendua, gero auskalo zer, garrantzia duena eraikuntzaren sek-

torea eta honen hornigaiena ez dadila geldi. Inbertsio produktiboa esaten diote horri.

Beste ekipamendu batzuk asmo huts dira: Biblioteka nagusiarena ezin aurreratuz, gurasoak ez baitituzte engainatu San Francisco ikastetxetik alde egiteko gonbiteekin. Agintarien nahi eza gainditu beharra dute, aldiz, ikasketa artistikoen gogotan daudenek: Antzerki Eskolari ofizialtasuna ematea edo Ikasketa Musikalen Goi mailako zikloa ezartzea, euro gehiagoko eta epe motzeko luzimendu gutxiagoko inbertsioa baita.

Lozorroan dago Zitudadela Arte Plastikoko Garaikideen esparru bihurtzeko asmoa, ondare historikoarekin arazo gehiagoren beharrik gabe, aski direlakoan Gaztelu Plaza-koak.

Zerrendan hurrena diren asmoetan, prioritatea lortu du San Ferminetako Museoarenak, erakusketa publiko demokratikora atereaz horretarako lehian dauden proiektuak.

## **Antzinako denboretako oroigarriak**

Gaztelu Plazako indusketa lanek Progresua eta Kultura deman jarri dizkigute, eztabaida klasikoaren borroka zibikoaren episodio berria. Progresua Kulturari kontrajarria agertuz, biak aurkari, bateraezin, eta lehia bera kontraesankor bihurtuz: autoen lurpeko aparkalekua omen da hemen progresua. Helburu noblea, ez balitz asmoak erantsita dakarrela hiriaren ikuspegi automobilzentrista, agintaritzaren jokabide autoritarioa, interes pribatu eta espekulatiboen kutsua, hiri honetako udaletxean sekula ezagutu ez den presazko tramitazio susmagarria, ustel usaina, azken batean.

Ondare kulturalaren defentsa sutsuan ari dira hiritar auzolagunak, jarduera estimagarri eta laudagarrian, ez paradoxarik gabekoan, XVI. mendeko gazteluaren arrastoen balioa gogoratuarekin batera, Fernando errege katoliko eta faltsarioaren oroitzapena bizirik iraunarazteko aldarrikapena baita hiritar horienak dakarrena, udal agintari kontser-

badorek hauts bihurtzea nahiago duten bitartean, bere garaian Errege katolikoak eta honen zerbitzari Cisnerosek nafar erresumaren defendatzaileen gazteluak birrinduta utzi zituzten era berean.

Historiari galdezka joan zaigu 2001 urtearen puska bat, egungoa ulertzeko atzokoaren informazio bila, identitate eta nortasunaren arrastoak hor ageri ote diren; baina Pedro Esarte Muniain baztandarrak lehenagotik urte osoak emanak ditu artxiboetako agiri zaharretan murgilari. *Navarra, 1512-1530* liburu mamitsuan bildu ditu eta azaldu garai hartako jendeen testigantza ezagutu gabekoak, orduan gertaturikoaz inork zalantzarik bazuen, behin betiko haizatzeko: konkista eta menperaketa izan zen hura, inbasioa eta okupazioa, indarpean makurtu behar izan zuen Nafarroak.

Oraindik ere hori esan eta berresan beharra dago, frogak erakutsi eta aldarrikatu beharra dago, orduko hura lagun arteko paktua eta borondatezko inkorporazioa izan zela kontatzen jarraitzen baitu historiografia ofizialak.

Sinesgarritasunik batere merezi ez duen ustea den arren, paktuaren mitoa egungo nafar gizartean sakon dago txertatua. Uste okerra ez da ziurraski zuzenduko liburua argitaratzearekin baina hori da egin beharrekoa, Pedro Esartek egin duena, paktismoaren tradizioa, gezur eta iruzur historiko handia, funtsik gabeko mitoa dela dokumentatu.

Eztabaida daiteke gero, zer doakion gaurko nafar jendeari konkista ala adostasuneko hitzarmena izateak, baina abiapuntuan gauzak diren moduan jarri behar dira, eta konstatazioa egin.

Gerora ere oso emankorra gertatu den manipulazioa izan da paktismoarena. Honela, 1839-41eko une kritikoe-tan ere erabili zen. Migel Izu Bellosok, *Navarra como problema* liburuan, 1841eko lege hitzartuaren errealitate eta interpretazioen analisi kritikoa egin du. Hitzarmen adostasunaren itxura ematen jakin zuten orduan ere menperaketa militarra izan zenari. Eta bertsio horrek arrakasta izan du berriro gizartean. Egun onarpen maioritarioa duen interpretazioa da, eta Izuren liburua lagungarri da hori horrela

zergatik den jakiteko. Nafarroa Estatuari borondatez atxikia dagoela giltzarria da egun onarpen soziala zabala duen tesi navarristan. *Navarismo*-a Espainiar nazionalismoaren gainjantzia besterik ez dela frogatzen du Izuk, nazionalismoen oinarriari errebaso kritikoa ematean. Euskal nazionalismoaren oinarrien ahuleziak ere astindu eta biluzgorritzen ditu.

Proposamena egiten du gero identitate nazionalen gatazkatik ateratzeko, sekularizaziora jo behar genukeela dio, akonfesionalitatera. Erlijioarekin edo sexualitatearekin eman den modu berean, Administrazio Publikoek ez dezatela izaera nazionalari doakionez aukera jakinik egin. Zintzotasunez eta eszeptizismoz eginiko proposamena da, jaramonik eginen ez diotela aurrez emanik.

## Paralelismoak literaturan

Historia liburuen funtzioa asmatu-ko elezaharrak egiazkoak balira bezala kontatzea baldin bada, zalantzarik ez da krea- ziozko literatura egiazki gertaturikoari gezurraren itxura emateko ahalegina izan ohi dela. Gezurrari egiaren eitea eman nahi diote historialariek, egiari asmazioaren itxura idazle sortzaileek. Uste dut Pablo Antoñanari entzuna dela, eta ez balitz ere, berdin balio lezake itzulinguru gisa, iragan urtean Nafarroako erdal letretan bizar handiko bi figurak beste koxka bat hazi direla esaten hasteko. Lehen erraldoi sendo ziren, orain sendoago, bai errekonozimendu sozialean, bai produkzio literarioan. Vianako Printzearen kultur saria eramane du Miguel Sanchez Ostizek, bi liburu argitara eman eta hitzaurrea egin dio Pablo Antoñanaren bati. Antoñanak, Toño Muro ren doktoretza tesiarene aztergai izan ondoren, donostiarren gorazarrea hartu eta bere idazkiren bat euskaraturik argitaratua ikusteaz gainera, ematen eta argitaratzen jarraitzen du, motzean, kondentsaturik gizakien ibileraz kupidaturik, hitz eta esapideak banan-banan neurturik esanahian eta erritmoan. Guztiz bestela jokatzene du Sanchez Ostizek, isilik egotera behartu balute bezala, eta bat-batean enbarazua kendurik

gordea izan duen guztia oldarka, aho beteko jarioan eman nahi balu bezala. Arras desberdin.

*Mutatis mutandi* (*mutandi* beharrekoa askotxo dela irudi dezakeen arren) antzak eta berdintasunak topatzen ditugu euskararen nafar letretan dabilzkigun Jon Alonso eta Mikel Tabernarengan. Biok elkarrekiko dute zientziaren arloko ikasketak eginak izana, lanbidez testu administratiboan euskaratze lanetan aritzea, eta kreaizozko letren xarmaren gatibu bizitzea. Hortik aurrerakoak, nork bere gisakoak, argia eta iluna bezala: Alonsok *Euskal karma*-n nahiago du neurriak gainez jo eta hautsi, harrikada gordin bota. Tabernak *Txokolatzeko dinamita*-n azken milimetroraino neurturiko errelatuak jaso ditu, borobildu arte esku artean leuntzen eduki dituenak. Zerikustekorik ez.

Alonsok fikzioaren distantzia hartu du euskal errealtateari karikatura egin eta gaitzen bat edo beste salatzeako: filologiakeria eta beste. Hala esan du berak, baina agian hori baino interesgarriagoa da, iradokitzeko indar handiagokoa, *Euskal karma*-n ageri den heroi eta traidorearen arketipo literarioaren jolasa.

Pertsona bat bera heroi eta traidore izatea tradizio literario luze samarreko errekurtsua da, Borgesek inork baino hobeki desarroilatu duena. Alonsok zorabioraino esploratu nahi izan du bikoiztasunaren bidea. Traidorea une bakoitzean gutxien uste den hura dela topatuko dugu. Entsegu esperimentalak da eta sujerentea, haratago joateko ateak zabalik uzten dituena, jar dezagun etsaiari kalte egiten ari zaion ustean, halako batean etsai horren zerbitzuko lanetan ari izan daitekeela susmatzen hasten den heroi/traidore baten zalantza eta drama asmatzekoa; fikzioaren perspektibatik geure herri honetako errealtatea interpretatzeko saiakera baliagarria izan litekeela uste dut.

Ez da ahaztekoa Jon Alonso bera, *Agur Darwin eta beste arkeologia batzuk* izenburukoarekin, Juan Zelaia sariketaren irabazle izan dela. Gizartean eragina izan dezaketen pentsamendu eta tesi testuen bila antolaturiko norgehiagoka izanik, paradoxa zelebrea da, literatura idatziaren ahuleziaz eta baliorik ezaz gogoeta egiten duen entsegua

gertatzea garaile. Epaimahaikoek idazle sarituaren tesiekin ez dutela beti bat egiten adierazi zuten, badaezpada ere.

## Muturrerainoko bidaia

Nafarroa erkidego administratibo politiko diferentziatua dela nonahi eta beti espreski adierazi beharra gauza guztien gaineko lehentasun absolutua bihurturik, euskarari koordenatu politikoetatik begiratzen diotela aitortzen ari zaizkigu agintariak; muga administratibo politikoaren gainetik hedaturik dagoen kultura eta hizkuntza ukatzera eramaten ditu ikuspegi horrek.

Ukazioen sukar horrek jota, —alde eta aldi guztietan— euskara hizkuntza bat bera dela ezin onartu dute; ezta ere euskal hiztunen komunitatea bakarra dela. Muturreraino eramanez apriorismo politikoa, dekretuka, inprimaki eta letreroak elebakartuz, lankidetzak hitzarmenak hautsiz, zor duen diruaren ordainketa ukatuz, instituzio kulturalak mesprezaturik, jokabide beligerante eta probokatzailen.

Sinboloen mailan batzuetan, ekonomiarenean bestetan, erabilpen publikoarekin zerikusia duen guztiarekin portaera errespeturik gabeko horren adibide asko eman dizkigute. Bat emateko, Nafar Gobernuak ikastaro unibertsitario deituriko batzuk inprobisatu zituen, ez oin ez buru, saski berean Hemingway eta Egiptoko faraoiak nahasiz, edo plangintza hidrolagikoa, inmigrazioa edo gastronomia. Liseri ezinezko konpota desordenatu hori Unibertsitate mailako ikastarotzat aurkezteko kopeta izan zuten, unibertsitate guztiak koordinatzen diren lehen aldiaz itzeari propaganda aparatuen indarra jarriz. Ez koordinaziorik ez gutxienezko maila unibertsitariorik, ez ezer, bakarra Udako Euskal Unibertsitateari laguntza ukatu izana justifikatzeko paripea. Ez du luzatzea merezi. ♪



## Andolin Eguzkitza

### **Mende berriaren lehen urtea badoa**

0. Hor betidanik, mundura sortu ginenetik bai behintzat, betiko uste genuen gizaldia desagertu da behingoz. Beste berba zorrotzago batzuk erabiliko banitu bizitzaren erdira heldu naizela esan beharko nuke, eta hodeiertzera heltzeko neure tartea halandaze gero eta laburragotuz doala. Eta esperantzak? Bat bai behintzat, oraindik ere bizi gara, eta gainera ez edozelan. Ez baita gutxi joan den mendearen erdietsirikoa: lehenengo eta behin, eta lorpen bat baino ez aipatzeko, eskuartearen darabilgun literatura-hizkuntza hau, Axularrek gura zuen moduan, hizkuntza trebe eta bitore bihurtu duguna, plazer-ituri bezainbeste zehaztasun-adierazle, eta oro-ren gainetik euskaldunoi aspaldiko partez ez geneukan zindo eta sendotasuna osterara ere eskura jarri diguna.

1. Eta Idazleen Elkartearen ikuspegitik hiru gertakari aipatu gura nituzke, datozen urteotan segurutik eragina edukiko dutenak:

- a) Elkartearen plan estrategikoa.
- b) Lehendakariordearen izendapena.
- c) Eusko Jaurlaritzarekin izenpeturiko egiunea.

Elkartearen plan estrategikoaren bururapena Eusko Jaurlaritzaren Politika Linguistikorako Sailburuordetzatik jaso genuen diruaz ordaindu genuen eta LKS izena daukan aholkularitzarekin egin genuen. Berari esker orain badakigu zeintzuk diren zehatz-mehatz egin nahi ditugunak bezala, hala egin behar ditugunak ere. Eta laburbildu beharrean bertan aipatzen diren sei ildo estrategikoak aipa daitezke:

1) Euskal idazleen eskubide profesional eta moralen defendatzaile bihurtzea.



- 2) Idazleak batu, kohesionatu eta elkartekidetza sendotzea.
- 3) Idazleen lanaren proiektzio soziala bideratzea.
- 4) Euskalgintzaren eragile aktiboa eta eraginkorra izatea.
- 5) Euskal Literaturaren zabaltzea Euskal Herrian eta atzerrian.
- 6) EIEren antolaketa bere bezeroen beharrak betetzera bideratzea.

Plan honek dakarren lanaren handia zaila da neurtzen, baina diogun duela hamar urteko Elkartearen aurrekontua 6 bider handitu dela orain arte, eta aurton eskuartean darabiltzagun perspektibekin, aurrekontu hori hamar bider handiago bihur daitekeela duela 10 urte geneukan hura baino. Adibide bi baino ez jartzeko, eskola-programa («Idazleak ikastetxean») eta solasaldiekin («Idazlee-kin solasean») bakarrik gure aurrekontua izugarri handitu da, batetik eta bestetik joan den urtean guztira 430 bat ekitaldi egin baitziren Euskal Herri osoan zehar.

Iaz, lehenengoz ere, lehendakariorde-figura sortu genuen eta horrexegatik lehendakariorde bat izendatu. Lehendakariak ordezeko bat prest edukitzea beti segurtatu gura genuen era horretara. Gainera, niri neroni, elkartearen lehendakari beste lau urterako izendatua izan nintzena, aukera ematen zitzaidan dimititzeko eta lehendakariordeari nik oraindik daukadan ardura emateko. Izan ere, horrela egingen dut, sinetsita bainago alde batetik inor ez dela ordeztetzina, eta bestetik halaber halako karguak jende desberdinez hornitzea guztiz osasuntsu eta beharrezkoa dela. Hortaz, datorren urtean, martxoan egiteko dugun batzar nagusian, dimisioa aurkeztuko dut eta nire ordeztza Teresa Irastortza poeta sartuko da, bera delako lehendakariorde aukeratu genuena.

Norbaitek galde dezake zergatik egingen dudan hori, eta lehenago aipatu arrazoiez gain, esan behar dut neure neurrian ere nekatuta nagoela, hots, pertsonalki hainbeste onura jasotzeagatik ere, komenigarria dela, bai maila pertsonalean nola sozialean, lehendakariak aldatzea, eta nik neuk horixe egingen dudala, Jainkoa lagun, heldu den

urtean. Are gehiago, Ana Urkiza gure idazkari berriak proposatzen duen legez, Euskal Idazleen Elkartearen historian hiru aro desberdintzen ahal badira:

- 1982-1990: *legeztatze eta kokatze-aroa*
- 1990-1996: *literatura-corpusen aroa*
- 1996-2001: *gizarteratze aroa*

ni neu, elkartearen zuzendaritzan batzordekide gisa, bigarrenaren amaieran sartu nintzen, Joxerra Garzia zelarik Lehendakaria. Hurrengo urteotan, gizarteratze-aroko delako horretan, lehendakari moduan aritu naiz, horretarako makulu nagusi bi edukita, alde batetik *Euskaldunon Egunkaria*-ren laguntza ordeztuzina, eta bestetik Maite Gonzalez Esnal eta Begoña Andonegiren lan eskerga, elkartearen idazkaria eta bulegaria hurrenez hurren. Azken urtean haiekin batera Nagore Atela ere aritu da langile. Hortaz, aro berrian sartzen ari garelarik, plan estrategikoaren aroan hain zuzen ere, eta ni zuzendaritzan egondako denboraren luzean bezala, elkartearen hasieratik idazkari izan den Maite Gonzalez Esnal erretiratuzera doala, bada ordua, nik uste, zuzia besteri ematekoa.


Azkenez, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza-Politika Sailburuordetzarekin izenpetu dugun egiunea aipatu behar dut, era horretan aurreko urteetako segurtasunik eza eta banan-bananeko deialdiekiko menpekotasuna alde batera uzten baikenuen behingoz, eta benetako proiektuak antolatzen hasteko aukera jasotzen. Izan ere, elkartearen barne-ikuspegitik hori da, nik uste, joan den urteko gertakariarik garrantzitsuenak, elkartearen hasierako urteak bazter utzita, lehen aldiz gertatzen baita elkarte gisa aurrekontu egoki bat ematen zaigula, kontrol zorrotzekin bada ere, guk kudeatzekoa.

2. Gizarte-ikuspegitik, bestalde, maiatzaren 13an Euskal Herriko Mendebaldeko Erkidego Autonomoko hauteskundeak dirateke segurutik joan badoan urteko gertakariarik garrantzitsuenak. Eta hala izan dira arrazoi nagusi biengatik. Bata espainiar nazionalisten ordezkariak, PPn eta PSOEn batuta, inoiz ez bezalako haustura sortzen saiatu direlako euskal gizartean. Bestea, ezker abertzalearen jokabide absurdo eta irrazionalarengatik, politika egiteko

molde zentzuzko bat baino gehiago, apustuzaleen arteko dema baten aritzen zirela ematen zuelako.

Baten batek agian aurpegiratuko dit ezker abertzalearen erratuak baino ez ditudala aipatzen, eta beharbada hala da azken aldi honetan, baina egia ere bada, aspaldi honetako egokierarik onena gure ezker abertzale ofizialaren ezgaitasunagatik izorratu zaigula batez ere, eta halaber beraren harrokeriagatik: zelan pentsa daiteke beraiek kontrolatuko zutela PNVa eta alderdi horrek ordezkatzeko duena? Zelan eman daiteke ontzat PPK eta PSOEk Gasteizko legebiltzarrean jotako erronka? Zeren esan behar da ez zirela gutxi izan, ez eta gutxitan, bide horretatik ez joateko esan zietenak, modu batez edo bestez, lagunarteko elkarrizketetan zein hedabide publikoetan. Den-dena debaldean. Eta garrantzitsuago oraindik, nork esan zukeen orain dela 10 urte Eusko Alderdi Jeltzaleak egin dituenak egitera helduko zela? Noiz konturatuko gara inongo eraginik eduki gura bada demokrazia beharrezkoa dela? Eta noiz helduko gara kontzientzia argira joera guztietako abertzaleekin batera bakar-bakarrik lortuko dela etorkizuneko Euskal Herriarentzat orain baino askatasun gehiago? Are gehiago, Euskal Herri osoko demokratak gure aldera erakarrita lortuko dela bakarrik benetako autoerabakikuntza-prozesu sendo bat?

Bada, zorionez, abertzaleok garaitu genuen. Hura gau hartako poza!¶



## Mikel Elorza

### Bi gehi bi

**G**ure kulturak XXI. mendearen lehen urtean zer eman duen geure buruari itaunduta, epaile batek zenbait abokaturari kontatutako txistea datorkit burura. Utziko didazue. Mendea estreinatua dela-eta epaimahaia bildua omen da, matematikak gizaldi berrian berdin segitzen duten aztertu, balio duten epaitu eta bi gehi bi oraindik ere lau diren erabakitzeko. Deitu dituzte, horretarako eta ikuspegi desberdinak kontuan hartzearen, medikua, fisikaria eta abokaturia. Medikuari galde eginda, honek erantzun die bere pronostikoaren arabera baietz, bi gehi bi lau direla, baina hala ere horrelako kasuetan hobe dela hogeita lau orduz zain egotea, nola eboluzionatzen duen ikusteko. Fisikariak deblauki erantzun die, egungo zientzia-legeen arabera zalantzarik ez dagoela bi gehi bi lau direla. Aurrean dute, azkenik, abokaturia, eta galdetu diote bi gehi bi lau ote diren, eta honek erantzun: «Tira, ikustagun... zuek zenbat nahi duzue ematea?». Euskal kulturari begiratu behar diodalarik ere, horixe datorkit burura: zein da nahi dudana emaitza?

Termometro polita izan liteke, eta haxe erabiliko dut, urtean zehar *Euskaldunon Egunkaria*-n idatzitako artikulua, *kornerrak*. Bihoaz aurretik, hala ere, pare bat ohar, geure kulturari bainoago neure jarduerari kalentura hartzeko balio dutenak. Alde batetik, kulturak artikulatuotan zein sarbide eskasa duen aitortza. «Gaurkotasuna» izeneko mamu horrek hartzen nau eta, interpretazio okerrean seguruenik, politikagintzara mugatzen dut arreta, kultura eta beste alor batzuk politika ez bailiran!, eta edonola ere senide txiro gisa. Bertsolaria aitzurak eta palak bezala, gu letra larriek eta argazki distirantek mugatzen gaituzte. Baina horrek ere hitz egiten du gure *kulturaz*: egunkari eta albistegietako azken minutuetan dator, azken orrialdeetan,

eta ez prexixo jende askok periodikua atzekoz aurrera leitzen duelako. Gainera, gaur egun dabilkigun gurpilean *Ikuskizunak* izena har lezakeen saila da «kultura» bere baitan hartzen duena, maiz agenda *esplikatu* bat da. Jakina: behar da halakorik, baina atea itxi behar ote dizkiete gure komunikabideek ekitaldi eta kultur programazio horri buruzko gogoeta eta bestelako esperientzietara? Aurkezpena eta iragarpena ez diren artikuluetara?

Bigaren oharrak tamainarekin du zer ikusia, baina jarrera ere hartzen du bere baitan. Ez da samurra lerro gutxitan mamitze zabalagoa eskatzen duten gaiak, *kultur kezkak*, lantzea eta beraz ekitaldiei erreparatzen die, normalean, nire begiradak kulturari begiratzen diodanean. Edo bertze gai baterako makulu hartzen ditut, esaldi baten bitartez. Baina horren azpian ostentzen da ohitura falta bat ere, edo bestela esanda, bizio nabarmen bat: gutxitan hartzen dut idazteko gai irakurri berri dudan liburua, atenzioa eman didan poema bat, koadro batek sortutako zirrara, kontzertu batean bizi izandakoak, antzoki bateko emozioa. Kultura bizitzearekin arazoak ditugula ematen du, baina dagoeneko ez dakit hasi dudan txangoak ur handiegietara ez ote nauen eraman, zutabegintzari buruzko gogoetan nabil eta laster naiz kultura zer ote den definizioak egiten. Eta horixe bai litzatekeela marka: artikulua egitea atrebentzia txikia ez bada, kultura definitzen hastea!

## Lehen portuan kolpea

**A**biatu, naiz, bada, *Euskaldunon Egunkaria*-ko *komerretan* barrena nabigatzera, baina ur handitara gabe, ene neurriko putzuetan sarea botaz. 2001. urtea hasi zen antzeko notizia batekin amaitu zen, nahiz eta hasierakoa askoz letra larriagoz idatzia izan. Eta ez naiz maiuskulaz ari. Nafarroako Gobernua euskararen eta, beraz, euskal hiztunen aurka hartutako neurriak izan ziren notizia, urte guztian zehar. Eusko Ikaskuntzari kendutako sustengua izan genuen albiste urte hasieran, Auñamendi entziklopediako definizioak

zirela medio, eta halaxe berretsi zen urte amaieran Nafarroako 2002ko aurrekontuen aurkezpenarekin eta Durangoko Azokatik Nafarroako Gobernuak ordezkariak kentzetik. Euskarak eta beraz euskarazko produkzioak eta euskal kulturaren alorreko lanak gibeleratze bizia bizi dute foru erkidegoan, lege eta instituzio neurriei dagokienez, eta 2001ean bereziki gogorak izan ziren jasotako kolpeak.

Urtearen hasiera halakoa izan zela dagokion testuinguruan ondo kokatzeko, ez dator gaizki oroitaraztea 2001eko urteak bi mugarri izan dituela, biak ere kulturaren eragina izan dutenak: M-13a eta I-11. Maiatzaren 13ko EAEko hauteskundeetarako bidaia ostikoz, zango-trabatzez eta bestelako makurkeriez betetako lasterketa izan zen, eta Nafarroako Gobernuak, PPren *euskal* erakunde gorenak, ez zuen aukera galdu ur-korrontea baliatzeko. I-11k ez dio hain zuzenean eragin kazetetan tokia hartzen duen kultur adierazpideari, baina nago luzean sakonagoa izan daitekeela horren eragina. Buelta nadin, baina, putzu-zulora. Apunte moduan utziko dut Eusko Ikaskuntzak, eta nafar agintarien *xarma* ezagututako Euskaltzaindiak, biltzar inportanteak burutu zituztela 2001ean, urri an eta azaro amaieran.

Kultur jardun nagusietakoa, iaz eta ene artikuluei sinestera, bolada motz batera mugatu zen. AEK-k antolatutako Korrikak, azken edizioetan legez, Korrika Kulturala zekarren bidaide eta horrek bixitasuna ekarri ohi dio gure herrietako antzoki, pilotaleku, kultur etxe, taberna eta antzokiei. Udazken eta negu horretan abian jarritako ikuskizunek plataforma paregabea dute eta, bestalde, propio prestatzen dira zenbait lan. 2001ean *Komeriaka* ikuskizuna izan zen nabarmenetako bat. 10 bakarriketak osatua —denak ere ikuskizun orokor batean josiak—, aspaldian hauts gehiegitxo hartzen duten euskal oholtzei distira eman zien. Halako programazio erritmorik urtean zehar ezin da mantendu seguruenik, baina hilabete t'erdian egiten denetik urtean zehar hainbat tokitan igar litekeen basamortura aldea handi xamarra da.

Halakoetatik landa, gutxitan topatuko duzue «kultura» hitza 2001ean egindako artikuluetan. EITBrekin lotuta

bizpahiru aldiz, eta ez hain zuzen txoritxoari laztanak egiteko. Baina telebistarena aparteko gaia da, korner batzuk baino partida oso bat mereziko lukeena.

Bada, azkenik, kulturgintzarekin lotua nahiko ez genukeen notizia. Zenbait kultur eragilek bisita egin behar izan dio, 2001.ean ere, Madrilgo Entzutegi Nazionalari. Eta ez dirulaguntza bila!

## Tarteko balizak

Entendimendu laburrekoa litzateke kultura hitzari soilik erreparatzea; areago hitz-soberakina EAJren gantz-soberakina baino gehiago zaindu behar den artikulu sorta batean. Hainbat diziplinak agertu izan dute euren aurpegia *Egun-karia*-ko neure ispilu horretan. Euskal literaturari erreparatzen ari garenak —jarduera edo industria bezala dagozkion gai sakonak alde batera utzita—, Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* ekar nezake orriotara, Sarri deituriko *fenomeno* supraliterarioa, edo *SPrako tranbia*-k eta Unai Elorriagak emandako poza. Baita udaberriko literatur loraldian gehiago izan zirela, helduen literaturan, plazaratutako poesi liburuak eleberriak baino (Susa argitaletxearen XX. mendeko poesia kaierek badute kulparik). Zenbait argitaldarien kexua ere jaso nezake, liburugintza liberalizatzeke Espainiako Gobernuak hartutako neurrien inguruan. Nola best-sellerra ez denak lanak izango dituen kalera ere iristeko —erakusleihoak aspaldi kendu zitzaizkien, eta dendan ere egonaldia baino bisita egiten zuten!—, nola liburu-denda txikiek Bengalako tigrearen etorkizun antzekoa duten, eta beste. Horrekin batera, ordea, Espainiako Gobernuak merkatuak liberalizatu baino lehen ere arazo horiek denak bazeudela argitaldariei esan niezaiekeen. Bitoriano Gandiagaren adioak ere baluke oihartzun mehezimendurik. Baina oso bestelako bi gertakariri eskaini nien, bere osotasunean bederen, behakoa: Euskadi Sariatari *infiltratutako* epaimahaikidearen kasuari (eta idazle komunitatearen isiltasunari), eta Harry Potter izeneko literatur-boomari.

Literatura alorrean bestelakorik ez zenik izan ezin esango dugu, baina goian aipatu oharretan esan bezala, halakoak dira gure mugak. Eta beraz ez dute kabidarik izan ene komentarioetan literaturaren agerraldi berezi horiek (errezitaldiak...), urtean zeharreko beste argitalpenek, sariak, kazetetan ageri ez diren jardunaldiek, argitaletxeen urtebetetze eta festek... Baina izan dira.

Musikarekin areagotu egiten da ene isiltasun hau, neronek ere menperatzen ez dudana gaia delako. Kontzertuaz jardun dut 2001ean, baina ekonomikoaz. Eta deus gutxi gehiago, baina ez, hemen ere, matazak hari mutur okerrik —zuzenak ez ditugu hainbeste laket— ez duelako: kanta-gintza-moldeez jardun genezake, hemen ere disketxe eta banaketaren oihanaz, udako kantuez, diskoen *pirateoak* dakarkeenaz... Musika klasikoaren esparruan nola Euskalduna, Kursaal, Arriaga, Gaiarre eta abarretako emanaldien berri ematera mugatzen garen.

Antzekoak izan dira, oro har, beste kultur adierazpideen inguruko gogoetak. Gairik badagoena ukazina da, baina gure lumak gutxitan egin du harantz hegan. Arestian aipaturiko *Komeriaka* izan nezakeen mintzagai, oso gustura ikusi nuen ikuskizuna izateaz gain, bazuelako gaur egun gure oholtzetan nekez kausituko duzun ezaugarririk: euskara hutsez izatea. Urte bakar bateko analisia baino gehiago eskatzen du antzerkigintzaren eraldaketak, antzerki-taldeetatik aktoreetara egindako jauziak; euskaraz sorturiko obretatik itzulpenetara egindakoak. Azpeitiko Antzerki Topaketek jotako hil-kanpaia ere zerbaiten seinale da. Eta gauza gehiago: Ander Lipusek sustaturiko Antzerkiola Imajinarioaren agerraldi indartsua (*8 olivetti poeti* -ko obra), *Emaztea kapeluarekin nahasten zuen gizona*-ren arrakasta, Pantzoa Irigarai eta Antton Lukuk eta euren obrek ezin dutela muga zeharkatu (eta arrazoiak, inoiz baino gehiago, politikoak dira!).

Zinemari buruzko artikulurik egin dut, onartu beharra daukat. Bai Espainiako *Goya* sariaren kariatara (ez Frantziako Cesarrekin, arrazoi berriro ere politikoak medio), bai Donostiako Zinemaldiaren aitzakian. 2001.ean ere euskal zinemaz hitz egitea ezinezkoa dela berresteko, nor-



malean. *Karramarro Uharte*a marrazki bizidunetako filmari zorionak emateaz gain, azkonak pozoituta joan dira zinemaz idatzi izan dudanean. Sentitzen dut. Baina euskal zuzendariez eta euskal zinemaz hitz egiten da euskarak agerpenik ez duen jarduera batez mintzo. Eta ez da jarduera mutua.

Arteak ere ez du gehiegitan topatu neure atea zabaldua. Azpiegiturek eskaini didate aukerarik, burutzen ez diren proiektuetatik berrikuntza handi askotara. Gasteizko Artiumez jardun nezakeela, alegia, edo Iruñeko azpiegitura proiektuez; eta Bilboko Arte Ederretako museo berriuez eta Baionako Euskal Museoaren berririkieraz. Baita zenbait erakusketa hagitz interesgarriri buruz ere, edo zentsuraren itzalaz, Gasteizen alkateak taberna bateko *apaindura likitsekiko* izandako jarreraz kasu. Baina Giorgio Armani hartu nuen ahotan, Poopyren etxola apaintzeko bestelakorik ekar zitekeelako. Garai bateko Kultur Kezkaz akordatu bainintzen. Urtea amaitzetik hurbil, berriz, Bixente Ameztoren heriotza ere sartu zitzaigun lerroetara.

Ez ditut jaso beste batzuk —dantza, bideogintza, Internet...—, agerpena oso txikia izan dutelako. Eta behar bada horregatik mereziko lukete aparteko komerrik, jarreraian aipatuko dugun legez.

## Sare hutsak

Oharkabean egin dugu errepassoa, idaztera nindoan klixeari jarraiki, baina klixea bezain agerikoa da errepassoa, nahitaez, ohartuan egiten dela. Jaso ditut, beraz, urtean zehar tantaka agertu diren kultur erreferentziak, tantak uste baino gehiago izan direla konturatuta; bai artikuluetan tokia hartu dutenak, baina batez ere tokia hartu ez dutenak.

Beste bat da, ordea, artikulua hau egiteko orduan piztu zaidan kezka. Nire okurrentzia faltagatik, erosotasun arrazoiak medio edo beste notizia baten leherketak harripatu duelako egin ez ditudan artikulua asko dira. Baina egin ezin izan ditudan kulturari buruzko artikuluek kez-

katzen naute gehiago, eta horixe ekarri nahi dut artikularen amaierara. Gure gabeziak.

Euskal kulturak hitzordu finkoak dauzka urtero, hainbat alorretan. Urterko kultur ekitaldiez gain, programazio bat ere badago normal dabilena —nahiz eta elebidun izan zenbait gauzatan, edo elebakar gaztelaniazko edo frantsezkoa—, bere funtzionamendu arrunta duten kultur azpiegiturak ere baditugu eta kultur eragileak ez dira izarrei begira bizi. Ados. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak abian du Kultur Plangintza; Ipar Euskal Herrian sos batzuk erdiesten dira euskal kulturaren sustatzera —baina iturri arrotzera ur bila joatea da hori eta erakunde propioaren eskakizunarekin dabilta borroka gogorrean—, eta Nafarroako Gobernuarenak, gaur egun, euskal kulturari dagokionez, plangintzak baino planak dira, erasokoak, Pentagonoak egiten dituenan tankerakoak: bolboradunak.

*Baina* batekin amaitu beharko nuke, aurreko ahapaldia eta ene artikuluen estiloari erreparatuta, errepaso hau, eta hementxe dator. Daukaguna edukita, *baina*, euskal kultur komunitatea bere osotasunean hartzen duen kultur egitasmorik ez dago, eta kontzientzia ere ments dugu. Erakundeen ardurapean utzi dugu askotan kultur adierazpidea, eta erakundeek dituzten mugak adierazpide horietan islatzen dira. Baina muga horietaz gain, guk buruan ditugunak ere —Bidasoaz ari naiz, baina erreferentziez ere bai, eta xedeez— ageri dira. Kultur komunitate oso indartsu biren tartean bizi gara, baina bi horiekin batera ere bizi gara. Bigarrena oso ondo igartzen da, kultur egitasmoak beste kulturetako erreferentziez bustiak baitauzkagu; baina lehena ez dago hain klaru. Hori nabarmenduko nuke, korerretan agerpenik ez duelako seguruenik, urteko errepasoan. Nahiz eta badakidan urtero aipa litekeela.

Atzera portura iritsita, abokatu janzkia hartu eta epaimahaira iritsita —zuek irakurleok film amerikarretako epaimahai arretatsu moduan irudikatzen zaituztedala—, artikulua hasieran epailearen txistean azalduko itaunarekiko nire erantzuna eskainiko dizuet: matematika ez zait gustatzen. ¶



## Inaki Irazabalbeitia

Ospelaren itzalak luzatu ziren euskalgintzaren alorrean urtearen lehen hilabeteetan. Nafarroako erasoen maila igoz joan zen etengabe eta EAEn Juan Jose Ibarretxek deitutako hauteskundeen emaitza posibleek ikara ematen zuten. Hogeita urte batzuk atzera joateko arrisku latzean geundela zirudien.

Urtearen hondarrean iragarkizun beltz batzuk desagertu dira, baina euskalgintza ez dago kezkatik libre. Nafarroako egoera lazgarriak landa, euskalgintza susmopean dago, Madrilgo morroienean behintzat.

Nafarroan euskararen eta euskal usain duen oren kontra Diputazioaren Jauregitik jazotzen ari den eraso etengabeari erreparatuta, inpunitateak, ondoriorik ezak, harritzen nau. Europa mendebaldeko gizartean oso nekez uler daiteke lurralde baten kultur osagaien kontra eginiko eraso ageriko eta ankerrak horren sustatzaileentzat ondoriorik ez izatea; Erreinu zaharrean, ordea, horixe gertatzen ari da. Nafarroako 'barometrotxoaren' emaitzak argigariak dira: nafarrek UPNko gobernuak euskararekiko daraman politika gaitzesten dute, baina boto-intentzian ez dute zigortzen. Harrapa ezak/n hori! Gogoeta egin beharrean gaude euskaltzaleok. Euskararen garapenaren alde dagoen nafar gizartean ez dugu lortu sentimendu hori defendituko duen edo, gutxienez, neutrala izango den alternatiba politikorik Diputazioaren Jauregira eramatea. Zer pentsatua ematen du horrek. Arrazoiak eta aitzakiak erantzak izan daitezke, baina EAEn diseinatutako estrategia politikoak Nafarroan zuzen-zuzen aplikatu izanak lohi hauek agerrarazi dituela pentsatzea oso zilegi da.

Aurrera begira zer? Pazientzia eta lana dira gako-hitzak. Pazientzia, epe ertain-luzera espero behar ditugulako emaitzak. Lana, eguneroko jardunean eta ez aldarri hutsan oinarritutako estrategia burutu behar dugulako (du-

telako nafarrek?). Bide honetan aurtengo bi gertakari aipatuko nituzke erakusgai moduan: Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren lana eta Euskara Kultur Elkargoak bideratutako helegiteak. Honetan guztietan, dena den, nafarrek beraiek diseinatu eta erakutsi behar dute bidea, gainerako euskaldunok mandatari huts baino ez garelarik.

Kultura sailburu berria dugu: euskaltzale ospetsua eta kudeaketan zaildutako emakumea, EHUko Irakasleriarako errektoreordetza ez baita nolana hiko zezena. Kirol zuzendariaren salbuespenaz landa, sailean Mari Karmen Garmendiaren ekipoak jarraitzen du oraindik, nahiz eta horietako batzuk Gabonetako oporretatik bueltan ez direla itzuliko txutxumutxua dabilen (2001-11-19). Ekipo bera bai, baina estilo-aldaketa nabarmena izan da. Kargu hartzearekin batera oinezko euskalgintzatik urrundu zen Mari Karmenek ez bezala, Miren Azkaratek haiekin egin ditu bere hasierako agerpenetako inportanteenetako bi: Frankfurt-eko azokara joan izana eta euskal argitaletxeen kontrako eraso mediatikoak berpiztu bezain pronto euskal argitaletxeen aldeko agerpen publiko zorrotza Euskal Editoreen Elkartearen eskutik. Lau urte ditugu Miren Azkaratearen ekarria juzgatzeko, baina lehen urratsak norabide egokian izan dira, alajaina!

Euskadi Literatura sariaren epaimahaia dela eta Koldo Izagirrek ekaitza jo du. Estiloz mingots eta edukiz samin, itua erratu du nabarmen, Gasteizen ez eta Donostian baitago. Gainera, motoristak ez du gidabaimenik.

Kontseiluak beste batzuen artean bi ekimen garrantzitsu abiatu ditu aurren: herrietako euskararen plan estrategikoak eta euskalgintzaren plan estrategikoa (EPE). Lehena urtearekin abiatu zen eta bigarrena prestaketa-lanetan da, 2002arekin hasteko.

Herrietako euskararen plan estrategikoekin, Bai Euskarari Plan Estrategikoan burututako esperientzia emanorra herri eta auzoetara eraman nahi da. 2001ean hasitakoak plan pilotuak izango dira. Gizarte-eragileen euskararen aldeko konpromisoak herri eta auzo mailan ere gauzatzen saiatzea estrategia egokia iruditzen zait. Alabaina, baditu argilunak. Batetik, aldi berean esperientzia larregi

abiarazi dituela Kontseiluak iruditzen zait. Esperientzia pilotuak definizioz eredu bat dira, besteak beste, planteatutako ideiak eta metodologiak egokiak direnentz aztertzeko eta frogatzeko. Abian jarritako prozesuak kate baten lehenengo begiak direla susmoa daukat eta plan pilotuak burutu ondoren egokitasunari eta emaitzei buruz gogoeta egin barik herrestan etorriko direla ondorengoak. Bigarrenik, plazan dagoen nahasmendua aipatuko nuke. Kontseiluaren plan pilotuak tokian tokiko euskalgintzaren eskariz eta udalaren elkarlanaz edota dirulaguntzaren eginen ari dira. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetza Euskararen Biziberritze Plan Nagusia udal mailan inplementatzea sustatzen ari da. EAEko alkate eta zinegotzi asko bi planen artean harrapatuta daude zeini heldu ez dakitelarik ezagutza egokiaren faltagatik. Eta, sarri, bata ala besteari heldu diote afinitate pertsonal edota politikoak arrazoitzat harturik. Edonola ere, euskararen normalizazioari mesede gutxi ekarriko dio egoera horrek.

Enpresa-munduaren euskararen normalizazioan mantsotze-prozesua sumatu dugu aurten. Ekonomiaren ziklo beheheranzkoak zerikusia izan dezake horretan, baina beste faktore batzuk ere badaude: giro politiko gaiztoa eta prozesua saltzen eta prestigiatzen ez dugula asmatu, esaterako.


UEUren urtea ere izan da eta ez soilik Nafarroako kultur politika genozidaren beste biktima bat izan delako, baizik eta Eibarko Markeskoa jauregian zabaldu duen Ikastetxe Nagusiak lehen ez zuen sendotasuna eman diolako. Ez da soilik izan azpiegitura kontua, ikuspegi- eta egitura-aldaketak ere ekarri ditu. Urrun eta eskuragaitz ikusten ziren jardun batzuk bideragarri bilakatu ditu, Hiztek graduondoko ikastaro bikaina adibidez. Unibertsitate mailako irakaskuntzan euskarazko eskaintza aberastu eta sendotzeko bideak baditu egun UEUK, euskal unibertsitatearen topagune eta euskal unibertsitatearen eragile benetakoa izateko.

Egunkarian leitu ahal izan dugunez (2001-11-17), 2002ko aurrekontuetan Bizkaiko Aldundiak %30etik gora

murriztuko ei ditu euskararen diruak. Aurrekontuak gauzatu arte berriak duen behin-behinekotasun guztiari erreparatuta ere, aspaldixe zebilen zurrumurrua Bizkaiko Aldundiak aurtien euskararen normalizaziorako aurreikusita zituen diruak gastatu ezinik zebilela. Euskararen normalizazioaren aldeko ekimen eta erakunde nagusien gotorgunea Gipuzkoan egoteari eta Bizkaiko egitura-ahuldadeari egotzen zaio egoera. Ez da, bada, harritzekoa hainbat eta hainbat urtetan Bizkaiko Aldundiak euskararen normalizazioan basamortutze-politika landu eta gero; nekez espero liteke, euria egin ondoren perretxikoak bezala kultur ekimenak sortzea. Bizkaiko Aldundian aginpidea izan dutenek, alderdikeria eta gizarte-eragileekiko mesfidantzan funtsatutako kultur politikak dakartzan ondorio gaiztoei buruz hausnartuko balute, sikiera! Izan ere, euskalgintzaren gunea Gipuzkoarantz desleketuta egotearen arrazoietako bat Bizkaiko Aldundiaren arduradun politikoen zekenkeria izan da. Alde ederra Gipuzkoan burutu izan den kultur politikarekiko!

Dennis Tito industria berri baten aitzindaria izan da. Espazio-turismoa dirutza ikaragarriak behar dituen jardue-  
ra bat finantzatzeko bide bat izan daiteke. Tristeia litzateke Nazioarteko Estazio Espaziala turista superaberatsentzako hotel bihurtuta ikustea. Hala ere, ikuspegi zientifikotik apenas interesik duen proiektu faraoniko horri errentagarritasun ekonomikoa ateratzen bazaio?

Abenduan, Stephen J. Gould paleontologo estatubatuarra etorriko da Euskal Idazleen Elkarteak antolatutako prosa zientifikoari buruzko jardunaldietara. Gaur eguneko zientzi dibulgatzaile handienetako bati entzuteko paradari ezin zaio muzin egin. ¶



## Xabier Kintana

### **Maiatzeko hauteskundeetan inguruko gogoeta**

Oroimen aski ahula izaten dugu euskaldunok, eta behin lasaialdia etorri ondoren, arestian mehatxatzen gintuen ekaitz beldurgarriaren hodei beltzez ahanzteko joeraxoa nabari zaigu. Hala eta guztiz ere, 2001.eko maiatzaren 13ko hauteskunde-eguna, zalantzarik gabe, ez soilki aurtengo, baizik eta Euskal Herriaren historia osoko data garrantzitsua izango da.

Izan ere, egun horretan erabakitzen zena ez zen elkarren lehian ari ziren alderdi batzuen arteko botere nahi hutsa. PPK eta PSOEk plazaratua zuten mezua arras bestelakoa zen: indar abertzaleak autogobernutik kentzea, horien tokian indar espainolistak ezartzeko, beren antieuskalduntasuna konstituzionalismo, demokrazia, tolerantzia eta ez dakit nik zenbat adjektibo gehiagorekin apaindurik. Horretarako, gainera, ohiko propagandaz gainera, etorkinak bertoko jendearen aurka jartzeko era guztietako azpijokoak ere erabili zituzten, haiez espainiar kolonoak balira bezala baliatuz, behialako lerroxismo zitalenaren maltzurkeria osoaz.

Arazoa kezkatzekoa zen, eta orain ahantzixea badugu ere, aitortu beharra dago euskaltzale guztiok benetan kezkatuak geundela. Gure naziogintzaren bidean azken hogeitau urte autonomikootan egindakoa, askotxo izanik ere, neurri handiz oraindik behin-behineko egoeran aurkitzen da, erabat sendotu eta gotortu gabe, eta, horregatik, hezkuntzan edota hizkuntz politikan aurkako jokabideak praktikan jarritz gero, beldur izatekoa zen ez ote zitzailgun orain arteko lan guztia goitik behera amilduko, kolokan dagoen karta-gaztelu bat bezala. Aurretikorik ere bazen, aski baikenuen Nafarroan gertatuari begiratzea, Autonomia Erkidegoan ere zer jazo zekigukeen konturatzeko.

Gure artean etorkinen arazoa aski korapilatsua da eta EAJren fundatzailearen hasierako joera arrazista tamalgari haiek gogoan izanda, sentiberatasun handia egon da, eta orain ere badago, problema hori behar den lasaitasun eta orekaz tratatu ahal izateko. Hori dela eta, politikari abertzaleen jokabidea, oro har, bitarikoa izan da: a) ezker-raren aldetik haiek bertokotzeko errazpide guztiak eskaintzea —«Euskal Herrian lan egiten duen guztia euskal herritarra da»—, Europa zabalean atzerrikoei bertoko naziotasuna eskuratzeko beste inon onartuko ez litzatekeen eskuzabaltasunarekin (adibidez, Espainia-Frantzietan aspaldidanik lanean ari direnei, hizkuntza ofiziala ongi jakin arren ere, ez zaie «espainiar-frantsestasuna» besterik gabe ematen, azken urteotan atzerriartasun-legeek behin eta berrero erakusten digutenez), edota b) gure eskuinak praktikatu, arazotik ihes egin, bera garbi planteatu gabe, denborari denbora emanez, nolabaiteko *laissez faire, laissez passer* hura gogoan, jatorrizko etorkin zaharren bigarren eta hirugarren belaunaldiak berez bertokotuko zirelako esperantza isilaz. Kasu batean zein bestean, ez zaie inoiz barkamen argirik eskatu iragan denboretan haiekin izandako jokabide desegokiagatik, ez eta behialako arrazismo horren kritikarik egin ere, guk geure bularra jotzeko darabilgun harria etsaiak gure kontra ezingo duela jaurtiki ahantziz. (Eta inork uste balu arazo hori jada modatik pasea dela, on luke gogoratzea ez zaigula falta trapu zikin horiek aldizka, eta behin eta berrero, aurpegiratzen saiatzen zaigunik, Adolfo Careagaren hitzaurre mamitsuarekin jadanik bigarren edizioan doan *Páginas de Sabino Arana* liburuan, adibidez, behiala Manuel de Eguileor abertzale «sutsu» hark atera zigun *De su alma y de su pluma* deitoragarri haren isla. Egia esan, arazoaren mamira joanez gero, seguraski Arana ez litzauguke arrazistago agertuko garai hartako gainerako espainol eta europar politikariak baino, baina testuinguru horretan juzgatu behar izanez gero ere, ene ustez komenigarria litzateke hori lehenbailehen geuk egin eta geure historiaren puntu ilun hori behin betiko argitzea, Sabino Aranaren gainean zenbait abertzaleren ar-



tean oraindik dagoen hagiografia nahia eta ezin ukituzko tabu absurdo hori erabat baztertuz).

Horrexegatik, arazoak bazuen bere munta. Izan ere, Estatu propioa duten nazioetara doazen etorkinek, bertan gelditzeko asmoa dutenean behintzat, hartara moldatzeko eta integratzeko joera garbia erakusten dute eta hizkuntza, ohiturak etab. berenganatzen ahalegintzen dira eskuarki. Hori normala izaten da, adibidez, Estatu Batuetara, Erresuma Batura, Frantzia, Espainia edo Alemaniara joaten direnekin; baina estatu propiorik ez duten nazioetara doazen etorkinek, eta areago metropolitik helduak direnean, maiz bizileku berrietan beren jatorrizko hizkuntzak eta ohiturak mantentzen dituzte, eta sarritan estatuak berak erabiltzen dituzte bertako jendeen homogeneousotasun nazionala desgiteko (Frantziak Aljerian eta Kaledonia Berrian, Errusiak estatu baltikoetan, Txinak Tibetean...). Toki horietako hizkuntzak eta kulturak babesik gabe egon direnean, gainera, anitzetan etorkinen kolono-funtzioa sendoagoa izaten da, guztiok dakizkigun ondorioekin.

Euskal Herrira erdaldun etorkinak heltzean gure herriak ez zeuzkan ofizial bere hizkuntza eta kultura, ez eta heldu berriei horiek irakasteko baliabide administratiborik ere. Beraz, integrazioa, ohiko zentzuan bederen, ez zen gertatu. Horren isla, neurri handiz, orain arte Euskal Herrian PSOE eta PPren feudo izandako gunetan argi ikus dezakegu (Ibaizabalen ezker aldean, Gasteizen, Emuan, Irunen...), hots, autoktonoak urri ziren eskualdeetan. Hor-taz, maiatzaren 13ko hauteskundeetan «hain segur» ez genituen herritar horiek ustekabeko sorpresa eman ziezaguketan.

Bai eta eman ere, baina gehienok espero ez genuen moduan. ETaren politika eroaz eta Herri Batasuneko buruzagi politikoen jarraikeria itsuaz asperturik, EAJ-EA koalizioari beren botoa ematea erabaki zuten abertzale ezker-tiar ugarien pisua inola ere gutxietsi gabe, ene irudiko, hauteskundeak abertzaletasunaren alde desbideratu zutenak, neurri handiz, etorkinak izan ziren, azken 20 urteotako autonomialdian haien integrazio-prozesua askok us-te eta gura duten baino aurrerago joan dela erakutsiz.

Eta integrazio-faktore inportanteenetako bat, hain zuzen, euskararen irakaskuntza izan dela uste dut. Ez, noski, bakarra, hemengo lan-baldintzak, bizimodu, osasun eta gizarte zerbitzuen kalitate onak ere berea eragin baitute, udaldian beren jatorrizko autonomietara joaten direnean argi ikusi ohi dutenez. Baina edonola ere, Bizkaialdean behintzat, garbi nabari da zer-nolako harrotasunaz presentatzen dituzten etorkinek beren seme-alabak edo ilobak «euskaraz ondo dakitela» azalduz, berek euskara ikasteko izan ez zuten aukera, beren ondorengoengan behintzat konplitu dela ikusiz.

Bigarren edo hirugarren belaunaldiko integrazio honen lehen ustekabea eman digu. Euskaldunontzat pozgarria, baina erdaltzaleentzat kezagarria erabat. Izan ere, prozesu berria hasi besterik ez dela egin esan daiteke, eta oraingo sorpresa hau, seguraski, ez da azkena izango. Batzuek pentsatu beharko lukete beren orain arteko «etorkin kolonoen» boto poltsak honezkero urratu handia duela eta hemendik aurrera hortik gero eta boto gehiago galduko dituztela, etengabeko jarioan, bertoko alderdien mesederako. Geure aldetik, bihotz-bihotzez eskertu beharko diegu gure herriaren alde erakutsi duten borondate on eta zintotasuna, haiekiko inoiz izan dugun zabarkeria eta mesprezioagatik *mea culpa* aitortu eta adiskidetasun eta elkartzebidean sakondu, guztion arteko lotura soziala sendogotzeko.

## **Euskalkiak: galbidearen lilura**

Euskal Herrian publikatzen diren liburu guztien %95 inguru euskara batuan argitaratzen omen dira. Gure hizkuntzaz ematen den irakaskuntza-testuak, azken hamar urteotan, praktikan %100ean hizkuntza estandarrean eskaintzen dira, eredu horretan gure gazte guzti-guztiak alfabetatuak izanez. Euskaltegietan ari diren ia pertsona nagusi guzti-guztiak euskara batua ikasten dihardute. Gure irrati-telebista nagusiek hizkuntza eredu literarioa bultzatzen dute. Euskal Erkidegoko eta Nafarroako administra-

zioek beren errotulazio eta seinalizazioa, oro har, hizkuntza arautuan eskaintzen digute. Eta euskaraz irakurtzeko ohitura duten euskaldunen %100ek forma estandarra aparteko zailtasunik gabe ulertzen dute. Inork ezin gezurta ditzakeen egiak nonbait.

Ez da gezurra, ordea, jardunean dabilen euskara batu horrek badituela zenbait hutsune, eta erregistro batzuetako hizketa berezia ez dela behar bezala landu (afektibitatea, lagunartea, jolasa, kirola, haurrekiko harremanak...). Bestalde, erdialdeko euskaldunek, gipuzkoarrek batez ere, hedabide idatzi eta ahozko gehienak berenganatu dituztenez, egia ere bada bazter-euskalkietako lexiko eta esaldi aberastasunak ez dituztela beti behar bezala ezagutzen, zaintzen eta erabiltzen, eta askoren begi-belarrietarako euskara batu horrek ohiko gipuzkeraren antz nabariegia duela. Konpondu beharreko akatsak, zalantzarik ez, eta zinez esan behar da hor beste eskualdeetako herriko hizketek, berba bereziek, sinonimoek eta esamolde jatorrek bizitasun berria eskain diezaioketela literatur eredu batuari, bera osatzeko.

Baina azken bolada honetan, Alexander Fleming-ek penizilina aurkitu zuenetik antibiotikoak aspaldian hor dirra ahantzi duten —edo agian ikasi nahi ez duten— batzuek azken farmakopea berritatzat sendabelarrak harturik, hor ari dira, jo eta ke, euskalkiak berpiztu guran, bizkaiera bereziki, berau dialekto bat barik, hizkuntza oso, beregain eta aparta balitz bezala. Jokabide hori berez lauzpabost txotxoloren keria litzateke, eragin praktikorik gabea, baldin eta beren inguruan bozgorailu sistema bikaina eratu ez balute, non eta *Euskaldunon Egunkaria*-n. Ondorioz, euskara batuak frantses eta espainol hizkuntzekin zerraman sokatira desorekatua berez aski latza ez balitz bezala, orain, etxe barruan, bere barruko euskalkien kontra ere borrokatu beharra dauka.

Zeren kontua ez da, batzuek, J.L. Goikoetxeak edo A. Arejitak, adibidez, zuhurtasun handiz proposatzen dutenez, Euskara batua goi mailako zeregin idatzietarako utzirik ere, Bizkaiko gune euskaldunetako haurrei, batuaz batera, edo baturako bidean, bertako euskalkia ere irakastea, mintzatzeko mailan batez ere, baizik eta euskara batuaren

ordez, bizkaiera landu eta zeregin literario, administratibo eta zientifikoetarako ere prestatzea, hizkuntza batuari eremu horiek ere kentzeko, Jon Agirrek, edo are kezkarriago dena, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria den Aitor Esteban jaunak, esaterako, inolako estalkirik gabe publikoki aldarrikatzen digutenez.

Horrela uler daiteke, adibidez, Bizkaiko museoetan, bai eta Enkartazioetan ere, idazki guztiak bizkaieraz ipintzea; Zornotzako jendea alfabetatzeko eta herriko berriak emateko omen den aldikaria *Arkalaz* izen aberranteaz baitaiatzea, bizkaitar gehienek horrek zer esan nahi duen jakin ez arren, guk hori normalean «alkarregaz» esaten dugulako; bizkaieran euskara batuak ere onartzen duen forma bat dagoenean (*ditu* eta *dauz*, *zituen* eta *ebazan*, *kantatzen* eta *kantetan*), sistematikoki aldenduena eta dialektalena erabiltzea; Balmasedan, Barakaldon edo Bilbon dauden euskaldun gehienak *de facto* euskara ikasitakoak direnean, bertoko berriak *Egunkaria*n dialektoz eskaintzea, horiek euskara ikasi edo hobetzeko egindako ahalegin guztia kontuan izan gabe; eta guztia ez batua ez bizkaiera behin ere irakurriko ez duten bizkaitar analfabeto hipotetikoaren mesederako!

Bizkaieraren aldeko gurutzada sutsu honetan, gainera, munduko inongo hizkuntzatan onartuko ez liratekeen gehiegikeriak egiten ari dira: bizkaitarrok euskara batuan esandako gauzak «bizkaierara» itzultzea, jatorrizko «topatzen ibiltzen naiz», ez dakigu zein irakurlek hobeto uler dezan, «topetan ibiltzen naz» bilakaraziz, euskaltzain honi azken orduko kazetari umegorri ausart batek inoiz egin dionez.

Tamala da, gainera, ergelkeria honek bere zutabe nagusia non eta *Euskaldunon Egunkaria*-n izatea, horrexek eskaintzen baitio bere eguneroko gehigarrian, inolako galbaherik gabe, zabalbide gorena Mitxelenak salatzen zuen hiperbizkaiera horri.

Aspaldion euskarak aurrera egin badu, neurri handiz, euskara batuagatik izan da, eta hori ongisko dakite gure hizkuntzaren etsaiek. Hor dira, adibide garbiz, Jaime Ignacio del Burgoren hitzak, «A los nacionalistas no les intere-

san los monumentos lingüísticos del pasado [= las variedades dialectales originarias] hechos para disfrute de filólogos de lenguas muertas, sino la implantación de un modelo lingüístico único que pueda servir como idioma nacional y alternativa real al castellano (...) el euskera seguía siendo un idioma rural y primitivo, utilizable únicamente en las relaciones humanas y familiares más elementales (...) por el hecho de su incapacidad intrínseca para ser considerado como lengua de cultura, al menos hasta que llegó el batúa» (*El ocaso de los falsarios*, 84-87 orr.), beldurra zeri dion garbi ikusteko. Badaezpada ere, bera ez da espainol dialektoen alde ari. Horren kariaz, euskalki beneragarriak, berez edo diru-truke, aupatu guran dabiltzanek jokoa nori egiten dioten hobeki pentsatu beharko lukete.

Bestalde, euskara batuari erantsi nahi zaion «artificial» kutsu horrek, bidezkoa ez izateaz gainera —bai baitirudi euskalkiz mintzo diren analfabeto guztiak hiztun eredugarriak direla—, aspaldiko salatzaile nagusiaren hitzez, «Marteko euskara» delako etiketak, mesede baino kalte handiagoa egiten du, Jose Ignacio Perez Iglesiasek, EHUko euskara errektoreorde-ohiak zuhurki salatu duenez, horrek, azken buruan, euskaldun berriak erdaraz egitera gonbidatzen dituelako, hainbeste nekez ikasi duten euskara baztertuz, eta, bide batez euskara ikasteko inolako ahaleginik egin nahi ez dutenen zabarkeria eta alfertasuna xuritzen duelako. Hori al da ba nahi duguna?

Ordua da ura bere bidera itzultzeko eta inon arrakastarik izan ez duten esperimendu dialektal banatzaile eta galgami guztiokin behin betiko amai dezagun. Zeren azken buruan, Mitxelenak argi eta garbi esan zuenez, euskara batuarekin euskara salbatuko dugula ezin ziurta deza-kegun arren, euskalki-egoeran segituz gero, ordea, gauza segurua da euskara hilko zaigula.

## Haize federalistak omen datoz

Adiskide on batek behin esaten zidan Euskal Herrian badugula, Extremadurarekin batera, madarikazio gisako

zerbait: asma litezkeen buruzagi sozialistarik kaxkarrenak berton izatea. Izan ere, Pasqual Maragall sozialista katalana hor ari da aspaldian estatuaren nazioaniztasuna argi eta garbi aldarrikatzen eta eredu federalaren alde egiten. Egunokaz gauza bera entzun diogu Emilio Pérez Touriño sozialista galegoari ere, eta BNGko nazionalistekin elkarlanean aritzeko prest egoteaz gainera, ongi iruditzen zaio, egin berri dituen adierazpenen arabera, konstituzioa aldatzea ere, estatu federala lortzeko.

Gurean, ordea, Nicolas Redondo Terreros, Rosa Diez, Adolfo Ares edo Javier Rojo, orain arte ezertan nabarmendu badira, bere antieuskalduntasun amorratuagatik izan dira. Praktikan PPren politika espainol kolonialista bera erabili dute Euskal Herrian, baina azken hauteskunderen emaitzek inflexio-puntua markatu dute, eta, beraz, badi-rudi susmatzen hasi direla jokabide horrek ez diela hemendik aurrera gehiago etekin onik ekarriko. Programa, eskaintza eta aurpegi politikoa aldatzeko ordua heldu zaie beraz, eta testuinguru horretan ulertu behar da atzora arte ostrazismoan erdi gorderik egondako kideak eta ideiak, izozkailutik atera eta orain plazaratzeko gertu egotea.

Sarrera gisa, era honetako gogoetak entzuten hasi dira: ez da pentsatu behar PSEko guztiak Rosa Diezek bezala pentsatzen eta hitz egiten dutenik. Ba omen da bestelakorik ere. Hortxe dituzue, adibidez, Odon Elorza, Ramon Etxezarreta, Mario Onaindia, Jesus Egiguren, Ramon Jauregi... eta horiek euskaltzaleak dira, beti izan dira federalismoaren aldekoak, eta alderdian aldaketa sakonak egin nahi lituzkete. Bada hortik zer espero.

Ni neu, ordea, egia esan, aipaturiko horiez gehienez ez naiz batere fidatzen, eta hobe oker banengo. Hain euskaltzaleak izan badira, ez dakit zertan ibili diren orain arte vasquista horiek noizik behin «bai baina» asperga rri eta hutsalak esateko ez bada. Ez ditugu sekula ikusi euskararen edo euskal kulturaren aldeko ekitaldi, jai edo bilertan, ez eta gure hizkuntzaren aurka, Nafarroan edo Frantzia adibidez, egiten diren erasoengatik inolako protestarik egiten. Beren kideek Gasteizko Parlamentuan elebitasunari era guztietako oztupoak ipintzen jardun dutenean,

bestalde, ez dute sekula santan ahoa ireki desadostasuna adierazteko.

Hortxe zegoen Egigurenen txosten sonatua, berez aski txepela, baina Redondok horren puntu «istilutsuak» kentzea lortu duenetik, eztabaidarako gaiak ere saihestu dira. Beraz, ez dago ezer aztertu eta aldatu beharrik, norbere zilborra ederresteko ez bada. Ostrukaren joko horregatik, ez dut askorik espero PSEko sozialisten neguko biltzarretik, aldez aurretik, nabigatzaileentzako abisu argi gisa Estatutu eta Konstituzioaren esparrutik ez direla irtengo lau haizeetara aldarrikatu baitute, Dantek infernuaren atean ezarri zuen *lasciate ogni speranza* haren antzera. Begien bistan denez, eta salbuespenak salbuespen, Euskal Herriko PSOEn ez da euskaltzalerik, ez euskal sentiberatasunik ere, eta alderdi batean aldaketak gertatzeko, gutxieneko masa kritikoa behar da, eta sozialistek horixe dute falta. Ene ustez, etortzekotan, aldaketa kanpotik helduko zaie, katalan-galegoen eraginez, edota Madrilgo bere kideen komenientzien akuilupean, baina orduan ere gaizki eta berandu, berek ez duten komentzimendua ezingo baitigute besteoi sinetsarazi.

Izan ere, zer-nolako federalismoaz mintzatuko zaizkigu nongura autodeterminatzeko eskubidearen aurka eta Euskal Autonomia Erkidegoak —aspaldion Euskal Herriaz mintzatzea bekatua omen, Francoren garaian Euzkadiz egitea bezala— ezin duela eskumen handiagorik izan horitik aho beroz eta erdi mehatxuka esaten diguten horiek? PSE-EEK horrelako buruzagiak erroitik aldatu eta beren afiliatuen baitan bestelako mezuak ereiten ez dituen artean, jai dugu.

Aldaketak, gainera, guk nahi baino astiroago hel litezke. PPK Espainian gehiengo absolutua mantentzen duen bitartean, begien bistan da egoera horretan PSOEk espainol nazionalismo handiaren karta jokutzen segituko duela, ez baitu, gainera, sentitzen ez duena antzezteko gogo ez premia handirik. Hitz gutxitan, lehengo lepotik burua.¶



## Ritxi Lizartza

### **Eraso euskara eta euskal kulturaren aurka: lohitu, zer edo zer geratuko da eta**

Aurreko urteko kronikaren haritik, arlo honetan beste kapitulu bat baizik ez dute osatzen jarraian aipatuko ditudan berriak.

Bi bide erabili izan dira euskaldunon hizkuntza eta kultura kriminalizatu eta zigortzeko: bide judiziala, batez ere Baltasar Garzon epaileak bideratua, euskal kulturaren diharduten hainbat sustrai ETaren jarduerarekin lotzeko; eta bide politikoa, nabarmena batez ere Nafarroan, baina baita Araban eta Ipar Euskal Herrian ere.

Bide judizialari begira, *Egin* a rgitaratzen zuen Orain SA enpresarekin harremanak izan eta haren deskapitalizazioan lagundu izana leporatu zaio Zabaltzen argitalpen eta banaketa etxeari. Garzonek aukeratutako moduak, ordea, asmoa Zabaltzen bera kriminalizatzea zela erakusten du: merkataritza erroldan lor zitezkeen datuak eskuratze-ko enpresan egindako zazpi orduko miaketan lortu izana, urtarrilean egindako polizia operazioaz geroztik, hamar hilabetean enpresa hori —eta enpresa multzoko gainerakoak ere bai— susmopean eduki izana eta iritzi publikoaren aurrean enpresa horrek arrazoirik gabe jasan duen desakreditazioa. Ikerketa egin ostean, delitu aztarnarik ez.

AEKren kasuan, berriz, Garzonen helburua AEKren jardueran terrorismo zantzuak topatzea izaki, iazko udazken aldera, 19/98 sumarioaren barnean, ETaren finantza sarearen barruan egotea leporatu zion Espainiako Entzutegi Nazionalak AEKri, Garzonen beraren aginduz. Diru-kontu guztiak blokeatu, irakasleak soldatarik gabe utzi, euskalduntzea eta alfabetatzea helburu dituen erakunde bat susmopean jarri... baina emaitza: Manuel de los Santos Alvarez administratzaile judizialak azterketa sakona



eginik —nork pentsa dezake Garzonek berak eskatutako administratzaileak hala egingo ez zuenik— diru kontuetan irregulartasunik ez dagoela esan zuen.

Beste ahalegin bat, *Gara* eta *Euskaldunon Egunkaria* auzipetu eta ixteko bidean, ETAko kideei elkarrizketa egin izanagatik terrorismoaren apologia egiteaz akusatzea. Bide honetan, beste era bateko laguntzarik ere izan du Madrillgo Gobernuak, *La Vanguardia* egunkariak berak salatu baitzuen bere orrialdeotan, Guardia Zibilaren txosten bat aipatuz, *Euskaldunon Egunkaria*-k ETA ren diru kontuekin zerikusia zuela, beste hogeit bat argitaletzek osatzen omen duten taldearen baitan.

Azken batean, sokatik tiraka, helburua Eusko Jaurlaritza bera da, terroristekin zerikusia omen duten kultur eragile horiei dirulaguntzak eman izanagatik.

Bide politikoari begira, UPNk eta Nafarroako Gobernuak —Miguel Sanzek ederki ordezkatuak, zirituak eta bideratuak— erakutsia zuten euskal kulturari dioten higuina, ezinikusia eta gorrotoa. Denon mesederako ziren bide-seinale elebidunak espainiera hutsean ager zitezen dirua xahutzeko prest dagoen politikari talde batengandik ezin espero ekintza hori asmo hutsen errebindikapena besterik ez izatea. Terrorismo kulturala edo terrorismoaren kultura aplikatu du UPNk aurten euskal kutsua edo euskal kulturarekin lotura duen edozein eragileren aurka. Eta, eraso orokorra dela erakusteko frogarik onena, Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza bezalako erakunde susmagariek urte luzetan jasotako dirulaguntzak (ez da ahaztu behar Nafarroako Diputazioak hartu zuela parte hasieratik —Hego Euskal Herriko beste hiru Diputazioekin batera— bi erakundeon sorreran orain 80 bat urte, 1918an Eusko Ikaskuntza eta 1919an Euskaltzaindia) barregarriak izatea, orain bi urteko datuekin konparatuz gero, iaz ere jaitsiera nabarmenak izan baitzituzten euskalgintzako sektore guztiek Nafarroan.

NUPen euskaraz ikasteko aukera eskasa zen, baina irailean hasi zen ikasturte berrian urriagotu egin dira aukerak, Nafarroako Gobernuak hala aginduta. Komunikabideei dagokienez, barre g a r r i a dirudi erdarazko komuni-

kabide guztiz ahaltsuei euskaraz argitaratzen dituzten ait-zakia orrialdeengatik dirulaguntzak bikoiztu izanak, bizi-raupena inola ere ziurtaturik ez duten euskara hutsezkoei murriztapen zorrotza ezarri zaien bitartean. *Euskaldunon Egunkaria*-ren *Nafarkaria* gehigarri beteranoak ez du sosik jaso, hamar urteko ibilbidean nafarrentzat emeferentzia eta informazio iturri baliagarria izan bada ere. *Nabarra* aldizkariak eta beste hainbat herri aldizkarik ere ez dute laguntzarik jaso. Azken-azkena, Nafarroako Gobernuak Durangoko Euskal liburu eta Diskoaren Azokan parte ez hartzeko harturiko erabakia da. Nafarroako administrazioaren langile hautaketetarako prozesuetan alemanak euskarak berak baino puntuazio gehiago merezi izatea, edo gero eta administrazio gutxiagotan lanpostuaren profileen euskalduna ere izatea ez eskatzea, harritu eta tristetzeko moduko berri txarrak dira.

Neurri hauek denak ikusita, badirudi nafar agintariei kontu garrantzitsu samar bat ahaztu zaiela: beraiek nafar guztien agintariak dira, ez beren moduan pentsatzen dutenenak bakarrik.

Alfonso Alonso Gasteizko alkateak ere estrategia bera erabili du, beste jomuga batzuen artean, euskal aldizkariekin, *Geu Gasteiz* adibidez: laguntzak murriztu edo ukatzea. Eta gizarte integratu eta elebiduna izan dezagun, Alonsoren iritziz, zer hobe D eredia kendu eta haurrek euskaraz eta espainieraz ikastea baino! Lotsarik ez!

Ondorioak, kezkatzeko modukoak. Bide judizialaren ondorioak oso larriak izan dira. Zabaltzen, AEK, *Euskaldunon Egunkaria* eta beste hainbat euskal eragileren kultur jarduera zuzena eraso gezurti, faltsu eta justiziarik gabekoen bidez lohitzea, horrela, euskalgintzaren parte handi bat ere iritzi publikoaren aurrean terrorismoaren susmopean jarriz. Baina, nork epaituko du Garzon epailea, barrabaskeria horiek egiteagatik?

Bide politikoarenak ere bai. UPN-PPko politikariek ez baitute kontuan hartzen nagusigoa duten lekuetako —Nafarroa eta Gasteiz, batez ere— biztanleen nahia, eskola-matrikulazioan, kulturaren kontsumoan eta euskaraz egiteko erabakian argi eta garbi erakutsia. Kasu honetan are larria

goa da, UPNk parlamentuan erabateko nagusitasuna ez izanik, isilik geratu diren beste alderdi batzuen onespena izan duelako.

Baina okerrena oraindik ere etortzeko egon daitekeela susmatzeak burumakur utzi ditu euskalgintzan dihardutenak. Izan ere, tamalez, nork ez ditzake asma, euskal kultura errudun bihurtzeko garaian, zeintzuk izango diren epaile espainiar independenteen hurrengo jomugak? 2002ko euskal kulturaren errepassoari adi egon, ea badagoen han agertuko bide diren denak asmatzea.

## Antzerkigintza

Esatera zaharrari uko eginez, Euskal Herriko antzerkigintzaren osasuna gero eta hobea dela esan daiteke. Genero eta era guztietako laurogeitik gorako jaialdi antolatzen dira urtero zazpi herrialdeetan. Sarea ekimenak festibal horietatik kanpoko emanaldi ugari bermatzen die antzerki-taldeei EAEn (helburua eskaintza hori antzoki eta talde gehiagori egiteak behar luke izan). Kultur Errotak, Korrikak eta beste hainbat egiturak formatu txikiko lanak bideratzen dituzte. Eusko Jaurlaritzak urtero banatzen dituen dirulaguntzak jasotzeko gero eta antzerki-talde gehiago aurkezten dira eta lanen kalitatea ere hobetzen ari da.

Hemen egiten den antzerkigintzaren kalitatea Euskal Hermitik kanpo ateratzen ari diren taldeek lortzen duten arrakastak bermatzen du. Beraz, aurten Espainiako Max Antzerki Sariak Bilbon banatu izana kalitate horren aitortze da.

Txalotzekoa Markeliñe taldeak Gijon herrian jaso dituen zuzendaritza, interpretazio eta musika aukeraketa onenaren sariak *Mambrú* lanagatik.

Maila profesionalean Ander Lipus bizkaitarra ari da halako ospea lortzen, bere proposamenak abangoardiakoak direlako eta normalean antzerkigintza komertzialari muzin egiten diolako. Izan ere, ekimen pertsonal honekin batera, antzerkiaren industriaren parean gertatzen ari dira, gure ustez, berririk interesgamenak. Antzerkigintza lanbi-

de baino gehiago afiziotzat hartzen duen teatre ro askok gatzeta eta piperra jartzen dio gaur egun herriz herriko giroari. Jarraian adibide batzuk emango ditugu.

Zarautzen Olerti etxean, antzezlanen irakurketa eta emanaldiak etengabeak dira urtean zehar (genero arekin loturiko erakusketak ere egiten dira), bertan biltzen diren *lau eroren* afizioari esker. Zein modu egokiagoa antzerkigile klasikoak ezagutzeko, urte osoan programa finko eta ugaria izatea baino.

Alfonso Sastre Kultur Elkartek (ASKE) Donostian antolatzen dituen jardunaldiek (hitzaldiak, mahai-inguruak...) urtetik urtera interes handiagoa pizten dute.

Antzerki amateurra eta eskolako antzerkia gero eta arakastatsukoak dira bai ikasle mailan eta bai Saretxoaren izenez ezagun izan daitekeen zirkuituan ere. Tamalez, aurretik ez da modurik izan Azpeitiko Antzerki Topaketa normalizatuak ospatzeko, baina espero dezagun hitza bete eta Urolako herri horretako agintariak bi urteko etenaldiaren ondoren euskal antzerkigintzarentzat hain garrantzizkoak diren jardunaldi horiei berriro ere heldzea.

Oraingoz maila apala duten talde berriak ere sortzen ari dira, hainbat urtetan talde profesional berberak aritu eta gero. Lehorteari amaiera eman diote sortu berriak diren Dar Dar eta Kanpingags taldeak. Hainbat aktore, bide komertzialetik jo gabe, eta, beharbada, arrakasta baino nahiago dutenak beren apustu pertsonal eta gustuei jarmon egin, formatu txikiko lanak muntatzen hasi dira. Bide berriak jorratzen, Ramon Agirre aktorea. *Ondo esan beharko* lanean, Jose Ramon Senperena pianistaren laguntzarekin, musika, kantua eta interpretazioa batuz, oso proposamen pertsonala egin du. Kafe antzerkiaren bidetik jo dute beste aktore askok, beren burua enpresa bihurtuz (modu bakarra lan txikiak kaleratzeko gaur egun), eta emaitzak datorren urtean ikusiko dira. Antzerki eskoletatik sortzen diren talde berriek (Getxoko Antzerki Eskolako 96 Unicornios, kasu) argi pixka bat ekarri diote orain arte berri gutxi zituen arte alor honi.

Bilbon inizatiba interesgarria gauzatu da: eszenografia, musika eta antzerki munduko 60 bat artista bildu eta

«Drama Laborategia 2001» osatu dute. Eszena arteei buruzko eztabaida piztea da xedea.

Euskarazko antzerkigintza bultzatzeko asmoz, Donostiako Udalak 1. Donostia Saria sortu du. Aurten Tanttaka taldeak jaso du, *Ozeanoko pianista* lanarengatik. Ea halako ideiei esker euskarazko antzerkigintzari garrantzi gehiago ematen zaion.

Ongietorria Durangaldeko Antzerkide jaialdi berriari, bai sortu berria delako eta bai programazio komertzialaren mugak gainditu nahi dituelako.

Kritiken artean, euskaraz aritzea ez dadila izan aitzakia hutsa dirulaguntzak jasotzeko eta amaiera eman dakiola talde askok antzezlan bat prestatzerakoan izaten duten irizpideari: antzezlan espainieraz muntatu (hiru bat hilabete) eta gero, hilabete eskasean haren euskarazko ordaina egitea (maiz samar estreinatu dira euskarazko bert-sioak pase oso bakar bat egin ondoren). Neurriak jorratu beharko lirateke euskarazkoa bertsioa ez izan, eta, talde-entzat nahitaezko enbarazua izan beharrean, muntaketa bera ere euskarazko bertsioetik has dadin. Orduan bai, orduan hitz egin ahal izango da euskal antzerkiaz.

Beste kritika bat sorkuntzari loturik dator. Ia ez da ezer sortzen euskaraz (Serantes sarira espainierazko lanak bakarririk aurkeztu ziren), eta sari nagusietara dozena erdi lan aurkeztea miraria dela pentsa daiteke. Arrazoia aurkitzea oso gauza bihurria da, ez baitago erraza jakitea zein den arazoaren iturburua: ez dela argitaratzen idazten ez delako, edo ez dela idazten argitaratzen eta antzezten ez delako. Baina Durangoko Liburu eta Disko Azokan ez da genero honetako lan bat bera ere argitaratu. Hala ere, proiektu txiki batzuk ere ari dira bideratzen arlo honetan. Alfonso Sastrekin berarekin loturik dagoen Hiru argialetxeak kaleratu baitu Ander Lipusen *8 olivetti poetiko* lana eta *Artez* aldizkariak ere lan batzuk kaleratzeko asmo bera duelako.

Antzerkia unibertsitatera eraman nahi den honetan, pozgarria litzateke, antzezlanen idazleak ere sortu edo trebatzeko eskolak ematea.

Kritikagarria da, hein berean, edo gutxienez penagarria, euskara hutsean jarduten zuten taldeek ere hemene-

dik aurrera proposamen elebidunak egitea, bai euskal merkatua txikia delako, bai enpresa moduan bizirauteko eta bai laguntzak emateko baldintzen artean kanpora (Espainiara) eramateko modukoak izateko. Okerrena, talde horietakoren baten adierazpenak, horrela beren jardueran euskararen normalizazioa iritsi dela esanez. Itsu behar du, normalizatu den bakarra espainierazko jarduera dela ez ikusteko. Bego berriz ere euskarazko antzerkigintza mundu amateurrean.

Basauriko antzerki eskola itxi izana ere oso berri txarra izan da, batez ere arazoa lokalei buruzkoa denean. Udalaren aginduz Social antzokia utzi behar izanak eragin du eskola historiko honen desagerpena.

Hamaika antzezlan taularatu dira Irungo Antzerki Gaztearen Jaialdian. Gazteei lanbide honetan lehendabiziko urratsak egiten laguntzeko oso egokia da halako jaialdiak antolatzea, baina antzezlan horien artean bat bere ere euskaraz ez izatea kezkatzeko modukoa da.

Ipar Euskal Herrian ari dira gauzak berriz ere mugitzen. Urte hasieran Tehenta taldearen eskutik antzerkia, bertsoa eta kantua nahastu ziren *Izarren hautsa* muntaian. Xirixi Mirixi taldeak Pantzoa Irigarai antzerkigile eta aktoreak idatzitako *Lamintegiko laminak* estreinatu zuen. Egokia litzateke Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak horrelako muntaiak ere diruz lagunduko balitu, eta Sarearen bidez gutxienez Euskal Herri osora hedatzeko aukera izan dezaten.

Beste gutxi batzuen artean Olatz Beobidek eta Eneko Olasagastik azken urteotan mugaz bi aldeetan lan egin izana mugarri da egon den eten historikoa gainditzeko. Euskal Herria zeharkatu zuen Korrikaren harira sorturiko *Komeriaka* muntaia bide egokia izan zen Pirinioen alde bietako aktoreak Tentazioaren ekoizpen honetan biltzeko. Bide beretik etorri da, antza, Azika txotxongilo talde profesional berria (Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako lehendabiziko talde profesionala ote?), Ipar Euskal Herriko kideek osatua (Kukubiltxo taldearen itzalean) eta *Kontua kontu zan* lehendabiziko muntaia Pirinioen bi aldeetara aurkeztuko duena.

## **Artez aldizkaria**

Bestalde, pozgarria da ia agenda moduan hasi zen *Artez* hilabetekaria 50. alera heldu izana aurten. Alez ale, emaldien informazioa emateaz gain, arte eszenikoetako lan berrien aipamenak, elkarrizketak, azterlanak eta beste gai asko jorratuz jantziz joan da Elorrioko inguru emankorrean argia ikusi zuen aldizkari hau. Eta, horrela, lau urte luzetan, nahitaezko erreferentzia bilakatu da Euskal Herrian eszena gainean zer egiten den jakin nahi duen ororentzat. Esparru honetan zulo handia zegoen eta oso zaila zirudien era honetako informazioa ematen duen aldizkariak aurrera egiterik izateak, baina hileroko hitzordua txukun baino txukunago betetzen ari da. Zorionak, eta urte askotarako.

## **Euskal Museoa**

Dozena bat urte itxita eman ondoren, konponketa lanak bukatu eta ateak ireki ditu berriro Baionako Euskal Museoa. Han bildurik dauden altxor guztiak berriz ere ikusgai egoteak zinez poztu gaitu, Euskal Herriaren historia, ohitura eta tradizioen altxor handienetako bat biltzen baita bertan. Berri horrekin batera, Ipar Euskal Herriari buruzko hamaika artxibategi Pauetik Baionara ekarriak izango direla iragarri zuen Catherine Tasca Frantziako Kultura ministroak. Baiona Paueren satelitea bihurtzeko helburua izatearen beldur agertu ziren Jean Haritxelhar bezalako adituak, baina berria bere horretan oso modu positiboan baloratua izan zen. ¶



## Xabier Mendiguren Bereziartu

### **Kontseilua 2000-2001: nazioarteko jarduna eta hizkuntz eskubideen aldeko egintza**

Joan den urtean zehar euskara eta euskal kulturaren inguruan jazotakoetatik honako gertaerak aukeratzen ditut adierazgarritzat, eta berritasuna eta euskararen etorkizuneko ibilbidean izan dezaketen eragin positiboa dira bereziki nabari zaizkien ezaugarriak.

### **Nazioarterako urratsa**

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko Idazkari Nagusiak martxoaren 14an Estrasburgoko Parlamentuan eta maiatzaren 16an Genevako Nazio Batuetako Gutxiengoaren Eskubideen aldeko Lantaldean euskararen egoeraz hitz egin eta 30 orrialdeko txostena banatzeko aukera izan zuen.

Bertan adierazten ziren ideien artean honako hauek azpimarra daitezke: euskara frantsesarekin eta gaztelaniarekin batera bizi da, baina elkarbizitzaz baino ordezkapen prozesuaz hitz egitea egokiagoa da, zoritxarrez, azken mendeetako ondorioak ikusirik.

Gaurko egoera ulertarazteko euskararen garapen historikoa egiten da, eta XIX eta XX. mendeetan euskararen atzerakadan eragin handia izan duten faktoreak, besteak beste, hauek direla esaten da: 1857an Moyano legeak Hego Euskal Herrian gaztelania hizkuntza bakartzat ezarri zuen Hezkuntza sisteman; Euskal Herriaren gainean dauden bi Estatuaren ordenamendu juridikoak eragina izan du, 1789ko Frantziako iraultzatik sortutako legediak eta Cadizko Gorteetan (1812) eginiko Konstituzioak frantsesa eta gaztelania aldarrikatzen dituzte, hurrenez hurren, hiz-



kuntza nazional bakar gisa; euskarak horrelako egoeran prestigioa galdu zuen eta euskal herritar batzuek gaztelania edo frantsesa beren hizkuntza bihurtu zituzten. Hego Euskal Herrian frankismo garaian hizkuntza honek jasan-dako jazarpena bereziki azpimarratzekoa da, eragin nabaria izan baitzuen bere ordezkapen prozesuan.

Une honetan, faktore desberdin horien eta aipatu gabe gelditu diren beste batzuen ondorioz, euskara ordezkapen prozesuan dagoela esan dezakegu; izan ere, orain eremu geografiko elebakar euskaldunik ez dago.

Euskararen egoera juridikoaz, berriz, Euskal Herrian euskara bertako hizkuntza baldin bada ere, legearen aurrean duen onarpenak bost eraentza juridiko izatera eramaten du. Euskal Herria administratiboki bi Estaturen artean, Frantzia eta Espainiaren artean, eta hiru lurraldetan banatua egoteak erabat baldintzatzen du euskararen estatus juridikoa. Banaketaren ondorioz toki batzuetan euskara hizkuntza ofiziala da, beste batzuetan ez du estatus juridikorik, erabilera tolerantzia hutsean geratzen delarik, eta bien arteko egoera juridikoak ere badira.

Behin eta berriz euskalgintzak aldarrikapen bat egi-tzen du euskararen inguruan, hizkuntza honen erabilera pribatu eta publikoa osoki eta inolako bereizkeriarik gabe bermatuko duen estatus juridiko bat onartua izatea euskararentzat —ofizialtasuna— Euskal Herri osoan eta herritarren hizkuntz eskubideak bermatuak izatea.

Azkenik, euskaldunon eskubideen eta euskara sustatzen duten erakundeen kontrako erasoen berri ematen da.

Euskara Nafarroako lurraldean egoera larria jasaten ari dela azken hilabeteotan. Batetik euskal hiztunen kopurua gora doan arren eta biztanleria gero eta euskararen aldekoagoa den arren, hizkuntz politikari dagozkion erabakiak hiztun horien eskubideen gero eta aurkakoagoak direla.

Nafarroako Gobernuaren errotulazio, bide-seinale eta gutun ofizialetan gaztelaniaren erabilera soila aipatzen da eta lanpostuen hornidura egitean euskarari ematen zaion garrantzi urria.

Dekretuaren eta bere garapenerako ekintza planen hainbat atalek «Hizkuntza Erregional edota Gutxiagotuen

Gutuna» (7.1.a), 7.1. b), 10.1, 10.2, 10.3) bai eta «Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen Markoa» (2, 4.1, 5.1, 10.2, 11.3) —biak Europako Kontseiluak garaturikoak eta Espainiako Estatuak sinatu eta beretsitakoak— urratzen dituzte, bai eta Europako erakundeek hizkuntz aniztasunaren eta gutxiengoaren babesaren inguruan emandako hainbat ebazpen ere. Era berean Nazio Batuetako Batzar Orokorra onarturiko 47/135 Ebazpenaren aurka doa jardun hori: «Gutxiengo etniko, erlijioso, nazional edo hizkuntzazko partaide diren pertsonen eskubideen Deklarazioa» (1. atala, bai eta 2.1, 4.1 atalak ere, besteak beste).

Nafarroan dagoen zonifikazio legea, euskal hiztunen eskubideak urratu eta diskriminatzen dituen, arbuia garrria bada, are larriagoa da une honetan —Europako Hizkuntzen Urtea ospatzen ari garen honetan— hiztunen babesean atzerapausoak ematea, lege garapen horrek behartzen duenez.

Iparraldeari dagokionez, berriz —hala adierazten da txostenean—, frantziar estatuan frantsesaz bestelako hizkuntzek ez dutela inolako lege babesik, eta honen ondorioz, Euskal Herriko Iparraldean (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa lurraldeetan) euskarak ez duela lege alde-tiko errekonozimendurik eta euskal hiztunei ez zaiela inolako eskubide juridikorik aitortzen.

Beraz, euskararen kontrako erasoak ez dira lurralde honetan legez kontrakoak, ez baitoaz legezko inolako eskubideren kontra, baina nazioarteko hizkuntza gutxituen aldeko hitzarmen guztien aurkakoak dira.

Hizkuntz eskubideen errekonozimendurik ezak zenbait kasutan eraso puntualek baino ondorio latzagoak izan ditzakete. Iparraldean euskarari estatus juridikorik ez aitortzeak bizitza publikotik erabat kanpora uztea esan nahi du, hezkuntzan, administrazioan, komunikabideetan eta abarretan; euskararen presentzia ia hutsa da. Honela, euskara gero eta funtzio murriztagoetara mugatu eta erabilgarritasun publikoa galtzen duen heinean familia bidezko transmisioa ere ez da segurtatzen.

Urte luzez jasandako egoera horren ondorioz, gaur egun euskararen egoera larria da Iparraldean. Hizkuntz komunitatearen zati handi bat zaharrenek osatua da eta belaunaldi gazteek ez diote hizkuntzari eusten. Iparraldeko zenbait zonaldeetan euskara 50 urteren buruan desagertu egin daiteke. Horrela 1996an Europar Batasunak sustaturiko Euromosaic proiektuak euskara frantziar estatuan bizirik irauteko ia aukerarik ez duen hizkuntzatzat jotzen du.

Frantziar estatuak frantsesa ez den hizkuntzekiko duen jarrera hainbatetan salatu izan da. Horrela Herri Zalpalduen Aldeko Elkarteak deituriko GKEak, Giza Eskubide, Diskriminazio eta Gutxiengoen Babeserako Azpibatzeraren 1999ko bileran, estatu frantsesaren jarrera salatu zuen oinamizko hizkuntz eta kultur eskubideak urratzeagatik.

2000 urteko urriaren 24an, Greek Helsinki Monitor-ek statement bat bidali zuen OSCEra (Europako Segurtasun eta Kooperaziorako Erakundea), besteak beste frantziar estatuaren jarrera salatuz eta euskaldunon hizkuntz eskubideak babestu zitezela eskatuz. Era berean ohar horretan ECRIren (Arrazismoa eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea) adierazpenak gogorazten zituen, zeinak «identitatearekin lotura duten herritarren eskubideak urratuak izaten ari direla estatu frantsesean» baitzioen. Azkenik ezin aiantzi ugariak izan direla ere Europako Kontseiluaren Biltzar Parlamentarioaren adierazpenak zentzu honetan, eta azkena 2001eko urtarrilaren 21eko 1492. Gomendio da.

Azkenik, euskarari sostengua ematen dioten erakundeen kontrako politikaren aipamena egiten du Txostenak. Ekimen horren aurrean Kontseiluak berriz ere euskararen normalizazioaren aldeko lanean diharduten erakundeak deslegitimatatu eta susmopean jartzeko estrategia nabarmena ikusten du, are gehiago horrelako ekimenek komunikabideetan epaitegietan baino oihartzun handiagoa izan dutela kontuan hartuta.

Txosten horretan agertzen diren salaketek ez dute gaurkotasunik galdu, zoritxarrez. Nafarroako Gobernuak setakor jarraitzen du bere hizkuntz politika muriztailea ezartzen, nahiz eta nafar gizarteak aukera duen bakoitzean

adierazten dion jarrera hori aldatu egin behar duela eta euskararen normalizazioaren aldeko pausoak eman behar dituela. Hala eta guztiz ere, gizartean euskararen aldeko jarrerak anitza eta zabala izaten jarraitzen du. Bestalde, maiatzaren 13an Euskal Autonomia Erkidegoan izandako hauteskundeetan, euskal hiztunon eskubideen aurkako politika sostengatzen zuten indar politikoak galtzaile aterara zirela ikusirik, euskararen normalizazioaren aldeko jarrera trinkoa dela eta interes partidisten arabera ezin dela hizkuntzaren jolastu ondorioztatu beharko luke Nafarroako Gobernuak.

Gainera, Iparraldeko gizartean euskararen normalizazioaren aldeko jarrera hazten ari dela sumatzen da eta aurten bi zuin garrantzitsu ezarri dira: batetik, Bai Euskarari Akordioaren baitan 120 gizarte-eragilek euskararen normalizaziorako hainbat konpromiso hartu dituzte; eta bestetik, Hizkuntz Kontseilua sortu da Urtiaga Idazkari Nagusiaren gidaritzapean.

Nazioarte-mailan egindako urratsen balorazio bat egitean interes handia sortu dutela, hemengo komunikabideetan nabarmen islatu direla eta etorkizunean bide beretik indarrak bilduz aurrera egiteko kontaktu ugari lortu direla esan behar da. Orain arte euskalgintzak ia ibili gabeko bidea urratu da, Estrasburgon eta Genevan, Bruselakoarekin osatu behar dena.

## **Behatokiaren sorrera**

Orain arte deskribatu eta Estrasburgo eta Genevako foroetan azaldutako egoera honen aurrean Kontseiluak Hizkuntz Eskubideen Behatokia sortzea erabaki du, eta dagoneko abian dago ekimen hau.

Behatoki horren eginkizuna arlo publiko eta pribatuaren hizkuntz eskubideak errespetarazteko ekimenak garatzea izango da.

Behatokiak, hasieran, lau lan alor nagusi hauek izango ditu:

- 1) *Salaketak jaso eta bideratzea*

Euskararen Telefonoa abian jarriko du Behatokiak. Herritarrak eta elkarteek beren kexuak eta salaketak telefono horretara deituz bideratuko dituzte eta gaiak garrantzi berezia duenean Behatokiak bilera egingo du kaltetuekin.

Behatokiak prozedura ezberdinak jarriko ditu abian kexuaren sortzailea erakunde publikoa denean edota pribatua denean.

Bestalde, lehen salaketa gertatzen denean idatziz zuzenduko zaio erakundeari, hizkuntz eskubideak errespetatzea eskatuz. Salaketa gehiago jasotzen direnean, erakundearekin bilera eskatuko da. Gertatutakoa larria denean, salaketa publikoa egingo da eta erakundearen kontra legez jotzeko aukera baldin badago, halaxe egingo da.

Nolanahi ere, Behatokiak, herritarren edota elkarten salaketen zain egon gabe, sistematikoki aztertuko du erakunde publikoek hizkuntz eskubideak errespetatzen dituzten, eta urraketak dauden kasuetan, judizialki joko du erakundearen aurka.

*2) Hizkuntz eskubideen egoeraz txostenak prestatu eta bideratzea*

Behatokiak hizkuntz eskubideen egoerari buruzko txostena prestatuko du urtero. Txostenean, gainera, hizkuntz eskubideak errespetatzeko neurri jakinak hartzeko gomendioa egingo die erakunde publikoei, alderdi politikoei eta erakunde sozialei.

Urteko txostenaz gain, erasoan aurrean edota arazo garrantzitsuen aurrean txosten bereziak prestatu eta nazioarteko instantzietara joko du Behatokiak. Hizkuntz eskubideen alde diharduten nazioarteko gobernuz kanpoko erakundeetara ere joko da, euskal herritarrei eta euskalgintzari babesa erakuts diezaieten eta beren presio ahalmena erabil dezaten.

*3) Prebentzio lana egitea*

Behatokiak harremanak izango ditu oraindik zabaldu ez diren gune handiekin (merkataritza-zentroak, museoak, aireportuak, kirol-instalazio handiak...), hizkuntz eskubideak errespetatzen.

Bide beretik, erakunde publiko edo pribatu batek, legez behartuta egon gabe, hizkuntz normalkuntzaren alde-

ko urrats garrantzitsu bat egiten duenean Behatokia zuzendu egingo zaio egindakoa nabarmenduz. Egindako urratsa bereziki azpimarratzekoa denean, lanaren txalotze hori publikoki ere egingo da.

4) *Ekintza osagarriak*

Bere eginkizunerako egokitzat jotzen diren bestelako ekintzak ere egingo ditu Behatokiak. Hona hemen batzuk: hizkuntz eskubideen dibulgazioa egitea, hizkuntz eskubideen arazo orokorra edo gai zehatzak aztertze jardunaldiak antolatzea, arazo jakinei buruzko ikerketak bideratzea, nazioarteko jakitunen batzorde bat antolatzea, besteak beste.

Informazio gehiagorako: [www.behatokia.org](http://www.behatokia.org)

## Europako hizkuntzen eguna

Irailaren 26an, Europako Hizkuntzen Eguna horretan, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak aldarrikapen bat egin zuen. Euskarak dagokion lekua izan dezan ondorengo hiru oinarrizko printzipioekiko adostasun zabala eta garapen sostengatua ezinbestekotzat ditu:

1) *Berdintasuna*. Hizkuntz aukera berdintasuna bermatu behar da. Horrek esan nahi du berdintasuna ziurtatu behar dela arlo guztietan eta legediak aukera berdintasun hori aitortu eta garatu behar duela. Gaur egun Frantziako eta Espainiako konstituzioetan zehazki idatzirik ageri den hizkuntz diskriminazioa gainditzea ezinbestekoa du euskarak.

2) *Eskubideen bermea*. Gaur egun indarrean dagoen legediak ez du hizkuntz eskubideen errespetua bermatzen eta zenbait kasutan eskubide horien urraketak ahalbidetzen ditu hain zuzen ere. Eskubide horiek bermatuak izan daitezkeen lehenengo urratsa euskarak Euskal Herri osoan estatus ofiziala izatea da, estatus horrek hiztunen eskubideak bermatzen dituen legediaren aplikazioa dakarrelarik berkin. Eguna, euskarak ofizialtasuna duen lurraldeetan ere ez da legea bere osotasunean betetzen.

Euskal hiritarrei ez zaie bermatzen euren berezko hizkuntza alor publikoan zein pribatuan askatasunez eta inolako oztopo edo bestelako diskriminazio motarik gabe erabili ahal izateko eskubidea, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Gutxiengo nazional, etniko, erlijioso edo linguistikoetako gizon-emakumeen eskubideen deklarazioaren 2. artikulua aitortzen duenez, argia eta nabaria izanik Euskal Herriko lurralde osoan zenbait erakunderen aldetik jasaten duen politika diskriminatzailea.

3) *Euskara, gure hizkuntza*. Euskara da gure berezko hizkuntza eta lehentasunezkoa izan behar du bere lurralde osoan eta arlo guztietan. Estamentu ofizialek euskara izan behar dute funtzionamendu hizkuntza. Erakunde sozial eta pribatuetan normalizazioaren aldeko ekintzak burutzeko beharrezkoa den laguntza bideratu behar da, euskara erakunde horietan ere lehentasunezkoa izan dadin.

Euskararen aldeko jarrera garbia erakutsi du gizarteak behin eta berriz eta guztioi dagokigu jarrera positibo horri erantzun egokia ematea. Arlo guztietan hiru printzipio horiek garatuko dituen hizkuntz politika behar dugu euskarak aurrera egingo badu eta gizarte eskakizun garbi eta zabal horri dagokion mailako erantzuna emango bazaio.

## **EIRE: Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkartearen Kongresua**

Azkenik, joan den urteari gainbegiratu eman diogularik, ezinbestekoa iritzi diogu etorkizunean gure unibertsitatean izango duen eraginarengatik EIREren Kongresuaren aipamena egiteari.

EIRE Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkarteak 2000ko otsailaren 16an egindako bilkuran «euskal unibertsitatearen etorkizuna aztertuko zuen kongresua» egitea erabaki zuen; eta 2000ko ekainaren 12an erabaki hura Durangon berretsi ondoren, 2001eko irailaren 27an eta 28an Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusien Aretoan, egin zuen Kongresua arrakasta handiarekin.


Bertan, gizarte euskaldun orokorrean gertatzen ari diren aldaketa handiei era egokian aurre egiteko «euskal

unibertsitatearen», hau da, euskarazko unibertsitatearen garapen oso eta eutsigarrirako egitasmo, aukera eta estrategia berri eta desberdinak sakon azertu ziren.

Ondoren, gizartean eta eragile soziopolitikoaren artean kongresuaren emaitzak plazaratzeari ekin dio, eta laster izango ditugu esku artean txosten eta komunikazio guztiekin argitaraturiko liburuan.

Beriki Kontseiluaren bazkide bihurtutako EIREk egin duen urrats hau garrantzi handikotzat dugu, izan ere Kongresu horretan egindako diagnosi eta prognosiaren bidez irudikapen, proiektzio eta etorkizun-estrategia berriak proposatu baitira euskal unibertsitatearen garapen oso eta eutsigarria lortzeko, 2006-2021 urteak erreferentziazat hartuz.

Berondeiela antolatzaileei eta argibide gehiago nahi duenak jo beza hona: [www.ehu.es/eu-kon](http://www.ehu.es/eu-kon) ¶



## Xabier Mendiguren Elizegi

### **Inperioaren turbantea, inperiotxoaren txapela**

Irailaren hamaikakoaz eta ondoko guztiaz hitz egin behar, nahi ezta ere; ez bakarrik urteko gertakari nagusia izan delako, baita erabat baldintzatuko duelako datozen urteetako munduaren martxa, gure bazter honetako kultura barne.

Azkar asko antzeman zioten bizkor ustekoren batzuek. Ohiz txotxolokeriak besterik esaten ez dituen politikari txepel batek berehala egin zuen txistea: terrorista arabiarren eta euskaldunen artean alde bakarra omen dago, haiek turbantea daramatela buru gainean, eta hauek berriez txapela. Horra, burutazio txinpartatsuz jantziriko astakeria galanta.



Alde bateko eta besteko terroristak ezertan antzeko ote diren ez dakit nik, eta ez naiz horretan sartzeko gai. Bistakoa da, ordea, turbantedunak etsai nagusitzat hartu dituen inperio amerikarra ren jokabidea eginahala guztian imitatu nahi duela inperiotxo espainiarrak txapeldunekin.

Munduko jaun eta jabe bakarrak ditugu estatubatuar-  
rrak. Hau ez da berria, halaxe baita Sobiet Batasuna pikuta-  
tara joan zenez geroztik; berria da ordea inork amerikarrei  
etxean bertan erasotzea, eta erantzuna ere —mendekua  
esan beharko genuke zehatzago— marka guztiak ari da  
hausten: beren legea, apeta eta indarra ari dira ezartzen,  
dorre bikien suntsitzearen ustezko erantzuleen eta erant-  
zun armatuko biktimen arteko batere loturarik gabe, na-  
zioarteko zuzenbidearen inongo axolarik gabe eta —oke-  
rrago dena— nazioartearen inongo protestarik gabe; na-  
gusia ernegatuta dabilenean hobe da badaezpada haren  
haserrea ez piztea, eta argi esan du Bush sheriffak, bere al-  
de ez dagoena bere kontra dagoela.

Megainperio feudalaren auzoño honetan ere botere  
oso, goren eta absolutuarekin jardun nahi du Aznar enpe-  
radore koxkorrak etxeko disidentzia jo eta txikitzeko, bere  
aurrekoek ezin izan zutena berak lortuko duelakoan. Alde  
du haizea, eta nazioarteko egoera baliatzen saiatuko da;  
baina bestela ere irmoa du bibotedunak borrokarako era-  
bakimena, edozein trauskilkeria eginda ere erabat otzan-  
dua estatuko oposizioa, eta begiak ixteko ez ezik eskuma-  
kilarena egiteko ere guztiz prest hedabide guztiak. Alde ez  
daukana kontra daukala esan du honek ere, eta ispiluaren  
aurrean Bushen keinuak bereganatzen saiatzen dela pent-  
satuko nuke, ez banio beste norbaiten antz gero eta han-  
diagoa hartuko: Francisco Franco jeneralarena hain zu-  
zen. Handiuste ergel bera, hoztasun gupidagabe bera, bere  
burua probidentzialtzat hartzeko joera bera...

Zer gertatuko den ezin jakin. Estatu Batuek bere bo-  
rondatea inosatuko dute, noski, baina edonork daki in-  
justiziarik dagoen bitartean ez dela faltako matxinatuko  
denik. Faraoi berrien geroa baino gehiago axola zait ordea  
gure etorkizun hurbila. Azken urte pare honetako eraunt-  
sia makala izan ez bada, okerragoa izan liteke hemendik  
aurrerako zaparrada, eta erne daude denak. Adierazgarria

izan da, esate baterako, Afganistango txikizioaren aurrean ezker abertzaleak, den bezain antiyankia izanda ere, erasoaren kontrako ohiko plataformarik, afixarik, mobilizaziorik ez antolatzea. Badaezpada. Ekaitza pasa arte zain edo. Jokabide zuhur hori hartu dutenek konturatu behar lukete, ordea, ekaitza ez dela pasako, borroka amatuak zeharo galdua duela —aspaldi samarretik gainera— zilegitasun soziala ez ezik baita planetaren zati honetan behintzat probetxurik ateratzeko aukera oro.

## **25 urte eta gero zer?**

**E**ta zer du ikustekorik aurreko prediku luzeak euskal kulturarekin? Ba, zoritxarrez, guk nahi baino gehiago. Hor ibili dira berriz ere, Espainiako prentsan, euskal kulturako talde eta enpresen izenak «terrorismoarekin» nahasten. Gezurra eta zikina besterik ez, edonork frogaz dezakeenez, baina gauden egoeran egonda egiak eta zintzotasunak ez dizute inongo garantiarik eskaintzen lasai aritu ahal izateko.

25 urte betetzen dituzte aurten euskal liburugintzako talde inportanteenetakoek: Erein argitaletxeak, Zabaltzen banatzaileak eta talde bereko Bilintx liburu-dendak. Hegoaldeko Elkarrek datorren urtean beteko ditu bere 25ak; 20 inguru izango ditu Pamielak, eta aurki betetzeko Susak; 10en bueltan ibiliko dira Txalaparta, Alberdania, Igela...

Ikusten den bezala, aski egonkorturik dago liburu-sektorea; alde batera poztekoa da, zer esanik ez, argitaletxe baten itxiera galera gaitza izaten baita beti, bai ekonomikoa eta bai kulturala; beste alde batetik begiratuta, ordea, ez da berririk sortu aspaldian. Daudenak ondo ari direlako ala erosotu egin garelako eta arriskurako gogorik ez dagoelako? Hobe lehenengoa dela pentsatzea, deskuidatuz gero ez baitira esne-bitsetan ibiltzekoak izango datozkigun garaiak.

Damoklesena ez baina El Cid Campeador-en ezpata eduki dezakegu buru gainean euskal kulturari ari garenok. Nazionalismo espainolaren oldarrari nola erantzun ez daukat garbi hala ere. Batere jaramonik egin gabe geure lanean segitzeko gogoia ematen du batzuetan, zakurrei

zaunkaka uzten zaien bezala, baina beren erokeriak sines-teko eta beren harrokeria are gehiago puzteko bidea eman diezaieke horrek. Kontraerasoak, berriz, izugarrizko energia, antolamendua eta lana eskatuko lizkiguke, eta etekin txikiarekin seguru asko, komunikabideek nahi dutenari ematen baitiote oihartzuna. Bestalde, bada hor esaera txinatamen bat-edo zera dioena, haize zakarra dabilenean bulama erakusten duen zuhaitz tantaia baino hobeto moldatzen dela bizkarra okertzen dakien belar xumea. Esaera txinatamek, ordea, ez dute ezertarako balio; seguru badagoela beste bat juxtu kontrakoa frogatzeko, hots, gehiegi makurtzen denak ez duela berritro sekula kopeta gora jasoko.

### Sasoi bakarreko uzta?

Aza rohasieran ari naiz lerrook idazten eta, neure alor berezitua dudan literaturako urteko balantzea egitekotan, sentipen ararobat daukat: izan ere, badirudi urte osoko liburu gehienak atera gabe daudela oraindik; argialetxe batzuek behintzat urri samarra izan dute 2001. hau, oso ale gutxi eskaini digute urtean zehar eta produkzio gehient-suena oraintxe plazaratuko dute, Durangoko Azokan hutsik ez egiteko.

Urte bateko kontua izanda ezin ondoriorik atera, kasualitatea ere izan bailiteke, baina aztertzeke kontua izango genuke, gertaera errepikatu eta joera orokorrago bihurtuko balitz. Gure literatura pobreagoa zen garaietan abenduak zuen fruitu emateko sasoi bakarra, besterik ezinean. Gero, apurka-apurka eta liburuzaleen pozerako, urte osoan barenababaldur ziren liburu berrien plazaratzeak. Atzerantz ote goaz orain? Ez ahal da hala izango! Eta izatekotan, begiratu eta pentsatu egin beharko genuke non da goen hutsa: argialetxeen egitura ahulegian, idazleen kalitatezko produkzio murriztegian ala irakurleen liburu-eskari eskasegian. Ahul, murrizte, eskas... gure zorri zaharrekin borrokan beti!

## Berri onak

Eta hala ere bagarela! Badirudi izen potolo gutxiago izango dugula aurtengo azokan, eta Sarrionandiarena nagusituko dela denen gainetik, *Lagun izoztua* nobelari esker. Lan honi buruz hitz egin eta idaztea tokatuko zait hurrengo asteetan (irakurleak hau hartu baino lehenago ordea) eta ez dut inor nekatu nahi neure laudorioekin, eta are gutxiago lanbideari dagokion propagandan ari naizela pentsatzerik. Beraz, egundoko obra dela esanda utziko dut kontua, hitz egin dezatela orain kritikoeak, nahiz eta gure literatur kritikaren egoera ez den aldaba jotzen ibiltzeko modukoa.

Konfidentzia barkagarri bazait, Joseba Sarrionandiak berak esana da harrituta dagoela, bere urruntasunean, nolako idazle onak ari diren sortzen azken aldian. Horixe bera azpimarratu nahi nuke nik ere, ez baita aurtengo kontua bakarrik: azken aldian urtero-urtero ari da plazaratzen idazle mordoxka bat, maila on edo oso onekoa.

Urrutira joan gabe, aurtengo ustekabe gozoen errepasso azkar bat eginda, bost bat izen datozkit burura bere estreinaldi serioa izan dutenen artean. Xabier Etxeberriak *Egun denak ez dira berdin* izeneko eleberria kaleratu du, obra freskoa, esku trebez idatzia, istorio bat graziaz kontatu eta gazteriaren erretratu diferente bat egiten diguna, estereotipoetatik urrundua. Merezi du, zinez, ez baita horrelako askorik sortzen, irakurle franko jabetu ez badira ere.

Irakurle eta kritikoeekin zorte handiagoa izan du Unai Elorriagak: *SPrako tranbia* gutxiengo hautatu mokofinentzako liburu tipikoa izan zitekeen, hiruzpalau fan liluratu baina oharkabean pasatzeko arriskua zeukana. Zorionez, hiruzpalau baino gehiago liluratu ditu, minoria exigentearen neurria malgua dela erakutsiz.

Ea horrelako zortea daukan Mikel Tabernaren *Txokolatezko dinamita* ipuin-bildumak. Meriturik behintzat ez zaio falta. Bertso-munduan ezagunagoa izan arren, bazuen lehendik poema-liburu bat, sari instituzional bat irabazia eta zokoren batean ahaztua. Orain, berriz, gehien-

bat Bidasoa ertzean eta XX. mendearen lehen erdian kokaturiko istorioz osatu du liburua, eta fintasun berezi bat erakutsi du bai hizkeran bai pertsonaietan.


Tabernaren antzera ez da gaxte hasi berria Joxemari Urteaga, baina orain eman du pauso handiagoa letren plazara, *Ordaina zor nizun* eleberriarekin. Ezin esango dugu nobela beltza denik, hari nagusian ez baitago hilketarik, sarraskirik, gaiztakeria handirik, baina intrigazko artefaktu zehatz eta polit bat asmatu du zinez, misteriozko argumentu nagusi bat eratuz eta honen barruan ipuin poli-ziako biribil batzuk txertatuz.

Beharrik dena ez da narratiba, eta aurtengoan atera diren poesiazko liburu bakanen artean Kirmen Uriberena aipatu nahi nuke atal honetan, aurretik han-hemen hainbat gauza idatzi arren hauxe baitu jendaurreko aurkezpen ofiziala, nolabait esanda. *Bitartean heldu eskutik* sentibera-tasun eta dotoreziatzko harribitxi bat da, gizatasunezko taupaden dardara hurbila helarazten dizuna, inoiz kursia edo paternalista izan gabe.

Liburu onak askoz gehiago izan dira, zorionez, baina gauza jakina da batzuk aipatzean beste batzuk isiltzen direla eta horrela galtzen direla adiskideak gure herri txiki eta minbera honetan. Alternatiba hartu dutenei zor nien salbuespenaren pribilegioa, aurrerantzean beste guztiekin lehiatu beharko baitute beren izena entzunarazteko. Ongi etorri euskal parnasillo honetara.

## Zahar onak

Amaitu baino lehen, omenaldi eta sari handiak jasotze-koak diren bi idazle adineko ekarriko ditut hizpidera: Martin Ugalde eta Juan Garmendia Larrañaga. Ez naiz hasiko haien merituak goraiatzan, lehenago ere ez baitau- de laudorioen faltan. Beste zerbait nahi nuke eskatu, bin- dikatu: etxeko zaharrei egin diezaiekegun mesederik han- diena haien ondoan egotea eta haien kontuak aditzea den bezala, idazle dekanok hauekin ere, beren obrak irakurtzea dugu egiazko omen eta eskertza.¶



## Laura Mintegi

### **Milurte berriaren aurpegi ezkutua**

Aurreko urteetako balantzeetan egin izan dudan bezalaxe, aurten ere gertakari zehatzei lotu ordez, joerei lotuko natzaie, azken urte honetako joerak, keriak edo dena-delakoak nondik nora jo izan duten ikusteko asmoz.

2000. urtearen hasieran ia mundu osoan bolanderaz ospatu zen garai berri baten hasiera, XXI. mendea. Lehen digitua aldatzeak eta zerbakiaren borobiltasunak probokatu zuten artifizioa, eta garai berri baten atarian geundelako irudia hedatu zen imajinario kolektiboan. 2000. urtea, halere, milenarismo faltsuaren atea baino ez zen izan. Egiatzko milurteko berrian 2001. urtearekin batera sartu gara, eta berau ez da hasi urtarrilaren 1ean, irailaren 11n baizik. Ospakizun, bolandera eta xanpainik gabe, irailetik hona garai berri batean gaudelako sentsazio ia fisikoa dugu, eta inoiz baino gehiago nozitzen dugu McLuhan-en aldea globaleko kideak garela, ezinbestez.

### **Milurtearen sindromea**

Trantsizio garaian kulturaren joera isiltasunarena da. Munduaren zaratak estali egiten du, une batez, sortzaileen ahotsa. Kulturgileak hartzaileago dira igorle baino, eta komunikazioa norabide bakarrekoa dela ematen du lehen momentuan. Albisteak gureganatzeko abiadurak, batetik, eta albiste horiek egiaztatzeko zailtasunak, bestetik, informazio kontsumitzaile pasibo bihurtu gaitu, horixe izanik globalizazioaren ezaugarri behinena, denak berdintzen gaituela informazioaren hartzaile gareino eta, neurri handi batean, instrumentalizazioaren aurrean erreakzio berdintsuak erruten ditugula.

Adi gelditu eta joerak sumatzeari ekin. Giroa usaindu eta barneko beharrizanei aditu, espektatibak behatu eta hausnarketa egin. Sortzaileak bisagra sentitzen dira aldaketa garai hauetan. Egoeraz blai daude eta horrek ezberdin egitera behartzen dituela sentitzen dute. Izu berria modu berrian adierazi behar da, egonezina azaltzeko adierazpide berriak behar dira. Tortsio beharra igartzen da, sormenaren *tour de force* berria, modu zaharrek ez baitute garai berrietarako balio.

## Mestizaia nagusi

Sindrome honen lehen zantzua mestizaia da. Mestizaia materialetan, arte plastikoei dagokiela, eta mestizaia generoetan, literaturari dagokiola. Pintura, eskultura eta grabatua nahastu egiten diren bezalaxe, literaturan ere nahastu egiten dira —gero eta gehiago nahastu ere— narritiba, poesia eta saiakera. Egileak bere burua behartuta ikusten du hausnarketa egitera, eta beharrizanak bultzatuta, genero askoren metaketa den genero berri bati ekin dio, aforismoa deitu, rapsodia deitu edo saiakera arina deitu. Edonola dela ere, flashak dira, espiritu pentsalariaren garrasi txikiak, laguntza-dei kamuflatuak, itotzear da goenaren arnas-bafadak.

Narritiban muga bereizgaitza marrazten dute fikzioak eta errealitateak. Errealitate fikzionatuak azaltzen dira batzuetan, edo fikzio errealistak bestetan. Beti ere irakurlearen kezketara hurbiltzen ahalegintzen dira egileak; horretarako gai hurbilak, gizatiarrak bilatzen dituzte baina, aldi berean, gizatasunaren muinera jo nahi duen hausnarketari ekiten diote. Bizi dugun garai epiko honetan, epika gutxi idazten da, eta lirikak betetzen du ezinegonaren hutsunea, lirikarako garai txarrak direnean gertatu ohi den bezalaxe.

## Neo-existentzialismo literarioa

Nolanahi ere den, errealitateaz mintzatu beharrak ez du sorrarazi neo-errealismo berririk. Zerbait sortzekotan,

neo-existentzialismo berria sumatzen da gaur egungo gaietan. Azken finean, Albert Camus eta Jean-Paul Sartrek Bigarren Mundu Gerraren amaieran sentitu zuten hura ez zen oso urruti egongo gaur egun iragartzen ari den Hirugarren Mundu Gerraren hasieran senti daitekeen honetarik. Orduan eta orain ez dira oso ezberdinak absurdoaren sentazioa, galera sentimendua, gauza berberak berriz ere bizi beharraren fatalitatea eta, azkenik, norberaren errealtate sozial, politiko eta kulturalarekin, nola edo hala, konprometitzeko beharrezana.

Konpromiso sozial honen fruitu, eta mestizaiaren sentazioaren fruitu ere, inmigrazioaren gaia sartu da euskal narratibagintzan. Martin Ugalde aitzindari izan zen puntu honetan ere. Eta beraren ostean beste hainbat idazlek heldu diote inmigrazioaren dramari, modu batera edo bestera. Koldo Izagirre, Pablo Sastre, Iñaki Frieria eta Ixiar Rozasek inmigrazioa hartu dute gaitzat beren azken lanetan.

Inmigrazioarekin batera, introspektzioa da urte honetako narratibaren beste zantzu bat, egoera orokorrarekiko inpotentzia sentazioak sortuta. Baitara biltze honek, alabaina, ez du zentzu negatiborik. Ez du etsipenik adierazten, gizamina baizik. Gizatasunaren ezaugarriei begiratzen dio literaturak, pertsonak komunean ditugun balioei behatu, hemen eta beste edonon konparti ditzakegun itemak agerian jarri, gizateria bat eta bakarra baita, eta patu bera konpartitzen dugu guztiok, partiketan zorte ezberdinak suertatu bazaizkigu ere.

Euskal poeta gazteak egun idazten ari diren poemetan ere (Urtzi Urrutikoetxea, Jon Benito, Kemen Lertxundi) suma daiteke aurreko belaunaldietako en espektatiben zapuzketa. Balizko mundu bat kontatu diegu eta mundu erreala ez da margoztutakoa bezalakoa. Indarkeria politikoaren erromantizismoa entzun dute etxean (gurasoek grisen aurretik korrika aritzen zireneko hura) eta kalean ikusten duten bortizkeria politikoa ez da, dagoeneko, batera erromantikoa. Beste nonbait esan dut «belaunaldi mutantea» sortu dugula, sortzaile berriei idealez mintzatu zaielako, aurrekoen ilusioaz blaituriko diskurtsoa jaso du-



telako, baina ez zaielako eredu argirik eman, ezta ilusio-  
natzeko goerarik eskaini ere.

## Partikularraren unibertsaltasuna

**O**rain bost urte, Andorran burutu zen Galeuzca batean nioen baliabide berrien eraginez eta, zehatzago, interneten eraginez, nabaria zela zenbait idazleren lanetan eremu zabalagoetara heltzeko ahalegina, ahalegin horretan zehaztasunak galduz eta generalitateak irabaziz. Irakurle potentzialen eremua zabaltzean, lokalismoak bazterten ziren eta erreferente kultural zabalagoak bilatzen ziren jende gehiagok uler zezan. Jatorrizko hizkuntza txikian idazten zen, bai, baina begirada itzulpenean jarrita zegoen. Formatua, egitura eta hizkera arintzen ziren, eta «zer» esan baino, ardua berria zen «nola» esan «noraino» heltzeko, testua hemen eta ahalik eta urrunen ulergarria izan zedin. Polisemia saihestu, hitz bakoitzari esanahi bakarra erantsi eta edonon ulertzeko moduko erreferenteak bilatu. Moldaketa honetan garaile ateratzen ziren hizkera arrunta, narrazio tradizionala, grafismoa eta lengoia denotatiboa, eta galtzaileen artean, polisemia, deskribapen zehatzak, narratibitatea, liris-moa eta lengoia konnotatiboa genituen. Agian ez zen bide zuzena, baina ulergarria zen egileek honela jokatzea.

Gaur egun ikusi da, zorionez, baliabide berrien erabilpenak ez duela horrelako mugarik ezarri behar testuan, eta horren froga egile batzuen lana dugu, intemeterako jauzia egin dutenean, ez baitute kontzesio estilistiko ezta linguistikorik egin. Koldo Izagirre (nor bestela?) dugu ait-zindari, baina bide beretik badatoz etorri beste batzuk. Azken finean, mundu zabaleko erreakzio eta sentimendu guztiak, tamaina txikian, norberaren auzoan ere garatzen dira, Misses Marplek erakutsi zigun bezala.

## Inmanentismoa nagusi

**Z**enbat eta globalagoa izan mundua are eta intentsuagoa da partikularizatzeko beharrezana. Begirada baitara biltzen

da giza izaera aztertzea, gizakiak garen animalia espezie berezi eta ahalduna arakatzera. Eta partikularizatzeak, subjektu bakar batengan pertsonalizatzeak, emaitzarik unibertsalena ematen du sarritan.

Gurean, Saizarbitoriaren lanak berriz ere lortu du joera baten isla izatea, hitz lauez galdera aristotelikoak plaza-ratu baititu, eta pudore gutxiko biluzte psikikoa burutu. Berak lortu du garai baten ardura zabalduenak egunerokotasunean kokatzea eta sentimendu kotidianoen autopsia burutzea, apal, ironiaz, beraren pertsonaien miserablekerian umorez sakonduz, dramatizatu gabe. Agian, sentimendu hunkigarrienek eta latzenek ere tamaina txikian aztertuta transzendentzia galtzen dutelako. Inmanentzia zer den irakatsi digu.

## **Egoera politikoaren eragina**

**I**az idazleen manifestuei buruz mintzatu nintzen, egoera politiko baten erakusgarri, eta aurten beste gertakari politiko baten eraginaz mintzatu beharra dugu. Hiru lurralde-tan maiatzaren 13an izandako hauteskundeek efektua izan dute gizartean oro har, eta kulturgintzan ere bai, zeharka.

Kanpainen bertan hasi zen joera eta, emaitzak ikusita, areagotu egin da kanpainen hautemandakoa. Gero eta zabalagoa da euskal nazionalisten eta bestelako nazionalisten (espainiarren, edo Espainiako bidezidorretik joandako «internazionalisten») arteko amildegia. Biztanle guztiei heldu zaie definitzeko garaia eta nor bere hautua egin du. Sentimenduak arrazamenduak baino zintzoagoak direnez, euskal hiritarrek erraz jakin genuen non kokatzen den gure nazionaltasuna, poza edo etsipena sentitu baldin bagenuen maiatzaren 14an.

Politikaren panorama dikotomikoak bi ondorio izan du epe laburrean. Bata da erakundeak erradikalizatu egin direla, eta lehenago apal plazaratzen ziren nahiak ageriko azaldu direla. Irakaskuntzan, hizkuntz ereduak berrikus-teaz, unibertsitate lege berriaz eta euskal curriculumaz

mintzatu izan da ozenago hauteskundeetatik hona. Kultur-gintzan, bestalde, behatokiak ezarri dira, dirulaguntza handiagoak agindu dira (ikusiko!) eta agintariak lehen baino entusiasmo handiagoaz azaldu izan dira kultur ekitaldietan.

Bigarren ondorioa da euskal kulturgintza nolabait la-saitu egin dela ikustean Eusko Jaurlaritzan ez zela egongo Partido Popular alderdia agintean. Etxean jokatzeko para-da eman zaie sortzaileei eta, agian, zertxobait ahuldu da egileek urteetan erakundeekiko izan duten umezurtz sent-sazioa. Jakina, amildegiaren beste alboan dagoen kultur-gintza, umezurtzago dago orain aurreko garaietan baino, eta bortitzago joko du kultura zentralaren magalera.

## **Merkatuaren lege krudela**

**A**maitzeko, eta apunte arin gisa, merkatuaz arituko naiz orain. Merkatuaren lege krudelena arintasuna da. Jaio or-duko zaharra da kultur produktua. Nekez mantentzen daiteke hilabete batzuek merkatuan. Garaiaren zantzu. Merkatuak Polifemoren aseentzintasuna dauka. Eta egileentzat ez da ona. Presiopean idazten da eta behar baino txartoago argitaratzen da, lauzpabost urte argitaratu gabe egon den idazlea komunikabideetako parriletatik kentzen baita. Hor konpon, esan beharko dute egileek, eta askotxok esaten dute, baina hala ere ez da arintzen presioa.

Komunikabideek, bestalde, mitifikatu egiten dute profesionaltasuna. Mitifikatu eta gaiztotu. Idazle profesio-nala izatea helburu bailitzen agertzen zaigu, eta errotiko akatsa burutzen da kontsideratuz literaturatik bizi ez den idazlea profesionala ez dela. Dedikazioa eta diru-iturria nahastu egiten dira, sosak literaturatik jasotzeak bermatu-ko balu bezala idazleak bere lanarekiko daukan jarrera. Pertzepzio okerra izateaz gain, injustua da.

Ez dakit autengoaren gaia den aipatu berri dugun hau. Ez dut uste, baina hortik doa joera eta, idazleen no-mina handitzen den heinean, idazle profesionalak nort-

zuk diren identifi-  
katzeko joera are a-  
gotu egiten da. Hor  
konpon. ♪



## Allande Sokarros

### **Euskara jalgi da plazara**

Iragan zaigun urtean, Zuberoako bide, karrika eta herriko plazak euskaldundu zaizkigu. Hobeki erraiteko, haatik, euskaldundu ere zaizkigu, seinaleztapen gehiena elebitan ezarria izan baita. Bazen garaia, pentsatuko du Hego Euskal Herriko irakurleren batek baino gehiagok. Euskal A autonomia Erkidegoan behintzat hain ohikoa bihurtu egin den errealitate bat, iraultza gisako bat bezala da, euskal herritar ugariren ustean eta ikusmenean euskal izaeraren gotorleku gisa hartuta den Zuberoan. Ustetik izaterat alde handia dago eta euskararen alde hainbat urtez borrokatu izan beharrak —eta borrokatzen jarraitu beharrak— erakusten du mentalitateen bilakaera oso luzea dela.

Orain dela hogeit bat urte Zuberoako abertzale zenbaitek gogoan hartu zuten Paristik edo Pauetik gure hizkuntzaren alde zerbait igurikatzea alferrikakoa zela eta euskararen alderat tokiko hautetsien herabea astindu beharra zela. Baikorki jokatu zuten, nahikoa lan eskatu zieten zurezko pankarta politik ezarrita Atharratzeko kantonamenduko herrien euskarazko izenekin. Ez zen ekintza gaiztoa, zikina, bortitza, bortxatzailea izan, beraz. Haatik, lehen gauean bertan, Basabürüko herrien euskarazko izenak zeramatzaten seinale xume haiek suntsituak izan ziren. Balentria txar honen egileak gutxi izango ziren, euren euskal izaerari, batere jakin gabe zergatik, arbuio zioten haietatik taldetxo bat.

Hargatik, herriko hautetsien ahotik ez zen salaketa bakar bat ere aditu eta ia-ia errango nuke pozik egon zirela, beraiek egiterat ausartuko ez zirena —euskarazko herri izenak kentzea— pustruska batzuek egin izanaz. Atseka-bea pairatu arren, abertzale-euskaltzaleek ez zuten amore eman eta frantsesera hutsez zeuden seinaleak euskarazko

izenekin tapatzen hasi ziren, paperak gainetik erantsita. Ekimen hau ere ez zen kaltegarria, papera kentzea besterik ez baitzen pankarta ohiko plantan berrezartzeko. Halaxe egin zuten herri agintari eta administrazio arduradunek... baina euskara bazter utzita beti ere. Geroago etorri ziren jokaera gogorrakoak, seinale elebakarrak tindatzerat behartu gintuztenak. Gintuztenak diot, zeren eta neu ere izan bainintzen pankarta zikintzaile haietatik.

## Ekintzaileak agintarien bide urratzaile

Gaur egun, berriz, Zuberoako udalak biltzen dituen *Xiberoa* Herri Elkartek eskaturik, euskarazko izenen esatera eta idazkera egokientzako laguntza eskatu didate eta pozik eman diet baietza. Hogei urtez egin du bide urak, baina konbentziturata nago gogor egileak, sasi-tindatzaileak ez balira izan, oraindik ere, Zuberoako eta oro har Ipar Euskal Herriko bide, karrika eta plazak erdara hutsez izango lirakeela. Legez kanpoko ekintza hauei esker, eta abertzaletasuna politika alorrean garatu egin baita, pentsaerak nabarmen aldatu egin dira, bereziki herri manatarien aldetik. Hauek dute edo behintzat hauetatik gogoz aurreratuenek dute, *Xiberoa* herri elkartearen, ingurumen elebidunaren aldeko urratsa bultzatu.

Hor dago, hain zuzen, Ipar Euskal Herriko gizartearen bilakaerarako giltza bat. Gogoz menderatua izan den herri batean, agintea eta agintarien errespetua dogma gisara irentsi behar izan duen herri batean, boterearen eta boteredunen eskutik datorrena onetsi egiten da. Zuberoako Herri Elkartek euskarari bere lekua ematea erabaki duenez, zuberotarrek ontzat jotzen dute. Hori bezain simple da... eta hori bezain korapilatsu ere aldi berean. Hobe litzateke, nire iritzian behintzat, herritarren kontzientziatik, ohartzetik, nahikundetik euskararen esparrua zabaltzea. Etxeak oinarritik dira eraikitzen, ez hegatzetik, baina tira... agintarien jokabideek herritarren gogoak agitzeko balio badute, behingoz onartuko nuke goiko zeruetatik etor litekeela salbamendua...

## Kultur sorkuntza lanak eta herritaren senti-beratasuna

Ligi-Athereiko maskaradak, *Amentsak Dantza* eta *Matalaz* ikusgamiak, *Xiberko Makia* eta *Etxahun Iruri* pastoralak, *Herria Ohoretan* antzerkia... Kultur sorkuntzaren alorrean, 2001. urtea oso emankorra izan da Zuberoan. Sinesgaitza ere bada hainbesteko oparotasunik egotea, 15.000 bizilagun baino gutxiago dituen herrialde batean; are gehiago kontuan hartzen bada kopuru honen erdiak ere ez duela euskaraz hitz egiten. Zuberoan euskal kulturaren iturria ez dela agortzeko zorian ematen du. Hargatik, gauzak sokinago aztertuz gero, iturri horretatik jalgitako urak oro euskaltasunaren sendotzeko bide izan direnik zalantzak izango nituzke.

Nire betiko kezka da euskararen ezagupenaren eta erabilpenaren kontua eta alde honetatik egoerak ez duela hobera egiten hauteman daiteke. Ligi-Athereiko maskaradakari gazteen artean oso gutxi zekiten euskaraz, *Amentsak Dantza*-n arizaleetan are gutxiagok.

Pastoralen kontutik, denbora gutxi egon banaiz ere batoren zein besteren prestakuntzetan, nabari iruditu zait pettar erdaldunduan kokatua den Sohütan euskal giro nabarmen handiagoa bazegoela Basabürüko Iruri eta Zalgizen baino. Gauza hauek zailak dira azaltzeko, baina menturako naiz erraiterat *Xiberoko Makia* pastorala eman dutenen artean askoz ere euskal sentipen sendoagoa antzeman dudala *Etxahun Iruri* pastorala antzestu dutenen artean baino.

Nolanahi ere, *Xiberoko Makia* tragedian bazen *Etxahun Iruri* pastoralean inondik eta inola ere ez zegoen hunkikortasun maila handi bat. Jean-Louis Davant idazlearen testuak eta Jean-Fabien Lexardoi errejentaren taula-joka antolaketak gogo-bihotzetan sakon sentiarazten zuten Bigarren Mundu Gerrak eta aleman nazien okupazioak Zuberoan utzitako oroimena eta oinatzak zein oinazeak. *Xiberoko Makia* tragedian, oro har, bazen historia bat, *Etxahun Iruri* pastoralean ez zegoena.

*Matalaz* ikusgarrian zein *Herria Ohoretan* antzerkian ere euskaltasuna agerikoa zen, eta honek zerikusia du, du-

da barik, bi lan hauetan abertzaleak edo euskaltzaleak asmatzaile eta bultzatzaile izatearekin. *Matalaz* ikuskari nahiko landua zen, antzerki zatiak, abestiak, argi-jokoak, su-agerraldiak, jantzi bereziak eta beste osagairik borobiltzen zituen. Horrenbestez, zehaztu ezinezko ikusgai bat zela errango nuke. Holako sorkuntza lanak euskal kulturaren esparrua eraberritzeko, aberasteko edota garatzeko onurazkoak direla ezin dut uka, baina, nire iritziz, *Herria Ohoretan* bezalako obra bat herritar gehiengoaren sentierari egokituagoa da. Badaukat susmoa abertzale edo euskaltzale zenbait elitismo mota batean gustura dabilzala eta sorkuntza lan «xumeagoak» —honek ez du erran nahi, haatik, asmatzeko eta obratzeko errazagoak direnik— bazter uzten dituztela.

## **Euskaltzaleen eta folklorezaleen arteko esparru banaketa**

Euskal izaeraren bizi eta hazi beharraz ohartuen direnek kultur lan «apalxko» hauei axola gutxiakoa egiten badiete, nik «folklorezaleak» deitzen ditudan haiek, aldiz, euren eskuetan hartzen dituzte esparru hauek. Zuberoan, euskaltasuna, folklore edo tradizio kontu bat bezala hartzen duten jende hauek *Xiberoko Zohardia* elkartearen inguruan biltzen dira. Lagun hauetatik gehienei —ez guztiei, haatik— dantza, maskarada edo pastorala egileetan euskara dakitenak oso gutxiengoan izatea bost axola zaie. Arrazonamendua bazterreraino eramanda, seguru nago euskara desagertuko balitz, baina nola edo hala —testuak edo esaerak gogotik ikasita edo— dantza agerraldi, maskarada edo pastoralek iraungo balute, askietsiko luketela.

Xiberoko Zohardiak edo gainontzeko folklorezaleek antolatzen dituzten agerraldiek, ordea, arrakasta nahiko zabala daukate. Erraiten ahal da ere, pastorez kanpo, euren antolakuntza hauek dituztela ikusle kopuru handienak erakartzen eta ez aldi batez edo bestez, baizik eta aspaldiko urtetan. Hala da Garindaineko herriak aspaldidanik eratzen duen «Euskal Kantu Festibalaren» kasuan; ha-



la, baita ere, Xiberoko Zohardiaren eskutik datorkigun «Xibera Kantuz» kantaldiari dagokionez. Milaka ikusle biltzen dira aldi oro eta honek nolabait agerian uzten du zuberotar ainitzi euskal kantua deigarria zaiela.

Ikusgami antolakuntza kontu batean ez soilik, edukian bertan agertu beharko litzateke euskaltzaleen —hots euskal izaera bizidunari ardura diotenen— eragina. Euskal kantuaren eraberritzaile gutxi direla iruditzen zait, ordea, eta 2000. urtean, disko bat plazaratu zuen Jean Bordaxar adibide bakartzat joko nuke. Arrokiagako semeak Zuberotan oso bakan den lan handia burutu du, kantuen hitzak eta aireak berak onduta. Ez dakit sobera nola azaldu baina uste dut Jean Bordaxar batek egindako lana ez dugula mezezi zukeen bezala balioetsi, ez diogula behar adina garrantzi eman.

Gizarte baten ezagupen edo esker onak badu inportantziarik kultur egile batentzat, hain zuzen ere gizarte eragile bezala hartuta dela agertzen baitu. Kontzeptu hau ekonomia alorrean edo giza sailean nabaritasun bat bezala hartuta dago; nola ez litzateke halaber izango euskal kulturaren hazle eta eraberritzaileentzako? Jean Bordaxar baten kasutik haratago, dena den, euskal gizartearen ikus-tatea edo eskertasuna garrantzizkoak dira kultur egile berriak ager daitezten. Ez bakarrik ikusgarri landuak, ia-ia ausartuko nintzateke erraiterat «korapilatsuak» —*Matalaz*, esaterako— sortzeko; bai, ordea, kantu berriak asmatzeko, *Hemia Ohoretan* bezalako antzezlanak idazteko, maskaradetan gauza berriak sartzeko eta besterik...

## **Iragana, oraina eta etorkizuna: euskal kultura katearen aztunak**

Iragana, oraina, etorkizuna, etengabeko edo behintzat eten behar ez lukeen kate baten aztunak dira, kultura alorrean beste sailetan bezala. Euskaltzaleak, nire ustez, zale-tasuna behar du izan ohituren gaurkotzean zein ere sor-kuntzan. Atal hauek bata bestetik bereizteak gizarte edota kultur izaerako katearen haustea deragi. Tradiziozale soilik geratzen denak ez dauka egunkotasunaz eta are gutxia-

go geroaz ohar-  
kuntzarik. Gaur  
egungoa bakarrik



axola zaionak muzin egiten dio aitzinetik egindakoari, ez da ohartzen aurretik egindako urratsak gabe bidea ez zela beraganaino iritsiko; eta, are txarrago, bizitasunaren seinale den etorkizunaren ikuspeirik ez dauka.

Filosofia kutsuko esaldi hauek gaur egungo gertaerei berriro lotzeko gisan, bukatuko nuke Xiberoko Zohardiak amaitzen ari zaigun urte honen azken txanpetan abian jarritako ekimenarekin. Lehen begirada batetik, egitasmoa txalotzekoa da, hau da, Zuberoako udal guztiei proposatzea euren herrian bertan kantu gaualdiak antola ditzaten, Xiberoko Zohardiak bere gain hartzen duelarik kantariak etorraraztea. Ongi iruditzen zait, bai, herrietan bertan kultur animazioak izan daitezen, eta damugarritzat derit-zot, berriz, asmo hau euskaltzaleek —euskal izaeraren bi-zirik atxiki beharraz ohartuta daudenek— ez dezaten as-matu eta bideratu.

Hor ere ageri da, nire ustez behintzat, euskaltzaleak edota abertzaleak herritarrengandik hurbilen egitekoa lit-zatekeen lanetik saihestuta bezala daudela eta eginbehar hori folklorezaleen eskuetan uzten dutela. Guztiaren be-harra dago, *Matalaz* bezalako obra bat sortzea, baita he-rrietan euskal kantuaren inguruko gaualdiak antolatzea e-re. Batak ez du eragozten bestea izatea, baina lan asko dela badakit eta aukerak egiterat behartuta gaudela ere. Zuberoan euskal kulturaren osotasun eta bizitasun premia horiek kontuan hartuko dituen erakunde bat eskas dagoe-la nabari da; eta espero dut, 2002ko kultur balantzeaz ai-pamentxo bat egitea *Jakin*-ek galdegiten badit behintzat, egitura honen sorreraren berri eman ahal izango dudala. ¶

## Andres Urrutia

### Milurteko berriaren zantzuak

Hasiak dira, dagoeneko, milurteko eta ehungarren berriak, eta urte erreskadaren zenbatgarrean, lehena joan zaigu eskutik. Bi mila eta batgarren urteko euskal kulturaren zantzuak zein ote igarri behar, eta nondik hasi jakin ez.

Kinka larri horretan, norberak hurbilekoen alde apustu egin behar, aparteagokoak uxatuta baino, geroago baterako utzita. Norberarenak izaten dira ohikoenak, gertuenak eta horren nondik norakoak egokiagoak iruditzen zaizkio norberaren gogoari ere, horien giltzarriak azaltzeko tenorean.

Ezin, hala ere, bazterrean utzi kulturarekin zerikusirik estuena duena. Dirua dugu aitzakia eta estakurua, *euro* izendazioa eta aurtengo gorabeherak gogoetagai, nonahi eta noiznahi aldarrikatu baitzaigu diru berriaren garrantzia. Txanponaren aurreko aldean, abantailak: diru mota bakarra, diru-trukaketaren desagertzea, gauzen balioa neurtzeko tresna erraza eta arina... Luze joango litzaiguke diru berriaren alde onak erabat zerrendaraztea. Alde okerak, alabaina, berehalakoak izango ditugu, orain arteko pezetak eta liberak esku artetik laprast egin eta billete eta moneta ezohikoak gureganatzen ditugunean; orobat, behinola ikasi ohiturak desegin eta usadio berriak asmatu behar ditugunean.

Euskal kultura ere egundoko aurrerapena, mugaren bi aldetan batera jokatzea aise eta errazago izango baita aurrerantzean. Molde ezezaguna, muga hori hautsiko duena eta mugaz honaindiko eta haraindiko euskaldunak gertuago jartzeko lagunduko duena. Gizarte-harreman guztiak jokoan daude diru kontuetan; hartara, merkataritzakoak ez ezik, kulturarenak, politikarenak, inbetsioarenak... Oro

izango da batuago eta hurbilago, neurri berbera erabiliko baitugu euskaldunok, Bidasoako mugaren gainetik.

Bistan da Europak bere fruituak ekarriko dizkigula 2002. urtean. Bego, haatik, aurtengoa, bide luze bezain malkar horretan aurki eman beharko dugun urratsaren seinale eta lekuko.

*Money is money* esan ohi da beti. Euroak badu lehiakide gaitz eta boteretsua. Amerikarren dolarra da, eta aspalditik dabil munduan zehar. Hura ere aintzat hartzekoa eta ikustekoa. Zain gaituzue.

## **Biltzarretik biltzarrera**

**U**dako azken egunetan hamaikatxo euskaltzale bildu dira, Euskaltzaindiaren babesean, Bilboko Euskalduna Jauregiara. Hiru egunetan ibili dira jardun eta gogoetan, euskararen etorkizuna nondik etor daitekeen asmatzeko. Julio Urkixo eta Resurreccion Maria Azkue euskalari handien ehun urtegarrenak ziren tartean, eta haien omenezko zerak erakusgai. Gero, horren hurrengo, bi egunetan aritu dira gramatika eta literaturzaleak, Lafitte zenaren ohorez, Ipar Euskal Herriko Baionan. Orotara, bost egun eta anitz kontu, euskararena zer, non eta nola egoki hausnartzeko, Euskaltzaindiaren XV. Biltzarrean.

Kontuak kontu, berehala nabarmendu dira bi arlo, aspalditik euskalgintzan dabiltzanak puri-purian. Lehena, euskararen terminologiari legokioke, eta bestea, euskara batua-euskalkiak izango litzateke.

Bi-biotan, bistan da, kontrakarreko jokaerak eta iritziak, batzuen eta besteen pentsamoldeak biltzen dituztenak. Arazoa, nolanahi ere, bi-bion uztardura nola egokitu horretan egongo litzateke gure ustez, bi erronka horiek erro-errotik loturik baitaude euskararen biziraupen-prozesuan.

Biziraupena, hala idatzi dugu, halakoxea izan baita kezka nagusia. Nagusia, eta esan dezadan argi, paradoxaz beterikoa, Euskalduna Jauregiaren solairu desberdinetan entzun eta ikusi ahal izan baititugu bateko eta besteko argudioak.

Euskararen gerokoa, bizitasunetik ekarri behar. Horretarako, tokian tokiko eta lekuan lekuko hartu behar, eta horri lehentasuna eman, horrek euskararen etorkizuna ekarriko digulakoan. Ezin, beraz, bitartekorik gauzatu, euskalki osoarena soberan bailegoke, euskara batu horren bidegintzan. Planetak ere (bat behinik behin bai, gerra eta gatazkarekin zuzeneko lotura duena) aipatu behar, besteak beste, pentsamolde horretako kide ez direnak lur honetakoak izango ez balira legez. Hori Euskalduna Jauregiaren sotoan, eroso-eroso jarriak eta Ibaizabalen ur-nabarrak aurre-aurrean genituela. Lauzpabost solairu gorago, inurri finak, ekin eta ekin, euskarari azken tresna informatikoek zer ekarri diezaioketen erakusle.

Beheko aldean, jendea erruz. Goikoan, ostera, askoz gutxiago, tramankulu horien isilpekoak ardi galdu batzuen kontu hutsak.

Aurkikunde nabari horien aldean, horra, hizlari baten ahoan, terminologia baterako zantzu biziak. Entzule ipurterreak, hala ere, beti kezkatu, terminologia hitza aipatu ahala zer esan nahi den horren beldur, izu-laborria sortzeko modukoak baitira askoren usteak, euskararen terminologia euren berezko edukitzaren esparruan sartzen baitute horiek. Adostasun hitza gutxiegitan entzuna, adostasuna terminologia**ren** alor bakoitzean zer landu behar den zehazteko eta zer-nolako moldeak erabili behar den ere batera jorratzeko. Dekretu bidezko terminologia baten alde lan egiten dutenak ere, ez gutxi, gure euskalgintza honetan.

Sarritan, horixe izaten da hizkuntza eta kultura gutxituen patua. Gai dira gizartearen sektore dinamikoak erakartzeko. Ez horrenbeste, sektore horiek antolatzeko, adostasun zabal baten bidez. Kultura horien aurrelari-ekina batzuen eskuetan izan, eta aurrerakuntza lan horretan, ezin besteena onartu, osagarri eta lagungarri legez.

Udazkenaren hasikinetan, beste biltzar baten berri izan dugu. Auzo eta kide dugun gaztelaniaren bigarren biltzarra aditu dugu urrian eta, egia esan, bi biltzarren arteko erkaketak ezin utzizkoak izan zaizkigu.

Jakin badakigu, eta aldeztu aurretik azaldu behar gainera, askok aurpegiratuko digutela euskarak eta gaztelaniak

ez dutela zerikusirik, gizarte-egoerari dagokionez behinik behin. Hala da. Baina batean biziraupenerako kezka izan dena, bestean arlo-zabalkunde bihurtu da. Ekonomia eta zientzia izan dira arlorik landuenak gaztelaniaren biltzarrean, eta hizkuntza horren Errege Akademiaren Buruak argi adierazi ditu bere zerak: lehena, gaztelania zabaltzea, gizartearen arlo desberdinetara; gero, gaztelania mintzodun diren herrialdeetako akademiekin batera lan egitea; eta, hurrengo, hiztegia eta gramatika gauzatzea.

Hitz batez esateko, esango genuke guk geuk, kontentzimendu jakina, hizkuntzarena anitza dela eta ezinbestekoa duela arlo askoren oharra. Osterantzeko kontuak datoz hizkeraren ikuspegitik eta biziraupenaren baitan gertu-gertutik aztertu beharrekoak.

Biziraupena behar du euskarak. Horrek esparru desberdinen jorraketa eskatzen du. Euskararen etorkizuna bide horretatik ikus daiteke, alegia, gure premien esatari eta bidegile egiten dugun neurri horretan.

Bistan da horrek ekarri behar duela, besteak beste, zabalago jokatzea. Horren harira, txalotzekoak dira, gure us-tez, bestelako ekimenak. Horien artean aldarrikatu behar Euskal Idazleen Elkartekoa, euskarazko prosa zientifikoan aurreratzeko asmoarena. Horixe izan daiteke biderik egokiena, euskaraz dugun tradizioa berreskuratu eta premia berrien aldetik egokitzea. Tradizioarekin etetea baino gehiago, egokitze hori zaigu gure egitekorik behinena.

## **Gauza handien testigu: 500 urtez frantziskotarrak Arantzazun**

Kulturaren baitan erakusketak ere, ez nolanahikoak. Horrexegatik igo ginen uda honetan Arantzazura, frantziskotarren bostehun urteak ospatzekotan. *Gauza handien testigu* irakurri genuen, bertan erakusten zenaren adierazle egokia. Ostean, barrurago, erakuslekurik erakusleku joan ginen, Arantzazuko frantziskotarrek ingurumenarekin eskuratu duten barne lotura egiaztatzeko. Benetan harrigarria, elizaz, kulturaz, hizkuntzaz —euskaraz bereziki—, ja-

kitez eta abarrez lortu dutena, Oñatiko lur menditsuetan. Gozaro ibili ginen hango korridoretan zehar, eta benetako euskal kulturaren ereduak non diren berresteko aukera betea izan genuen orduan. Gure premian dira hango zaintzaileak. Bihoazkie gure laguntzak. Zuentzat goresmenak, Arantzazuko frantziskotarrak!

## Mendebaldeko haizeak

Hasieran esan dugun bezalaxe, gertuenak eta hurbilenak izan zaizkigu berbagai eta iradokizun. Hasian hasi, ezin baztertu, *Jakin* honetan, Euskal Herriko Mendebaldean euskalgintzaren haizeek ekarri dizkigutenak.

Eguneroko agerpena dugu aspaldi honetan Bizkaiko gehigarria, *Egunkaria*-ren eskutik. Hori ondo! Kezkagarriagoa da, aldiz, maiz-sarri bertan irakurri duguna, gure artean jada gainturik zegoena berriro ere errepikatuz. Bakoitza da bere etxearen jabe, eta *Egunkaria*-k eskubide osoa du bereari eusteko. Ez dugu uste, horratik, beste hainbeste esan dezakegunik inoiz bertan irakurri ahal izan dugunaz. Izan ere, araubide ezean aurkezten zaigu Mendebaldeko euskara, araubide bakarra euskara batuarena izango balitz legez. Hori ez hain ondo! Bizkaierazko tradizioa ere gutxitan aipatzen da, azken berrehun urteotan hamaikatzeko idazlek baliagarri izan dutena.

Behinola Mikel Zaratek asmatu zuen *dakigunetik ez dakigunera* hura goiburu daukagunok, mendebaldeko euskalkitik euskara baturako bidegintzan, nekez uler dezakegu askoren gogoia, mendebaldeko euskara besterik gabe arautzeko, orain artekoa kareletik botata.

Zinez harrigarria, argudioa ez bada bertako euskara gutxieste, askoren aurpegietan igarri dugun kontrako zimikoa oso-osorik berretsita.

Hizkerarena aspergami bada ere, askoz pozgarriagoak izan dira, guretzat, behintzat, bi liburu berri aipatzea. Euskara zaporedun, gatz eta piper, gertaera garrantzitsuak, bizimodu baten testigantza egokia... Halakoak bilatzen dituen bihoa Emile Larre baxenafarra ren liburura. Auspoan


argitaratu diote, eta *Ene artzain-etxola* da haren titulua. Hortxe ditu irakurle euskaltzaleak Ipar Euskal Herriko azken berrogeita hamar urteak. Esan gabe doa bertan ere baduela euskara doia, maila jasokoa, bizi-bizia, irradan joan doana, kazetari trebe baten eskutik.

Neguaeren lehen jotzeak begi-bistan ditugula, etorri da a rgira aspalditik espero genuena, alegia, Blanca Urgell-ek atondu duen *Guero* guero, Aita Añibarrok bizkaieratu zuena, Axular maisuaren liburutik. Badatoz, ezari-ezarian, bizkaieraren altxorrak. Añibarro, Zabala, Frai Bartolome... agerian ditugu berriro ere, Mendebaldeko tradizioa ondo ezagutu nahi dutenentzat. Falta ditugu, beharbada, oraintsuagokoak. Lagungarri, betiere, berrikitan Labayru ikastegiak eskuratu digun Aita Ipolito Larrakoetxearen *Grimm anayen ipuinak* liburua. Egin-eginean ere, euskara egokia da horkoa eta askorentzat harrigarria.

Har itzazu, bada, irakurle zaitudan horrek, mendebaldeko haize firrinda hauek. Itzulian, beharbada, aberasturik eta leundurik etorriko zaizkigu eurok, beste nonbaiteko lasaitasunaz eta gogoetaz. Jakizu, aldez aurretik eta zailantzarik gabe, guk geuk beti adeitsu eta abegikor hartuko ditugula.¶



*Gatak*



PAKO SUDUPE

*Aintzina petainzalea?*

*89*



JURGI KINTANA

Nietzsche euskal literaturan:  
Jean Etxepareren «Amodioa» (1910)

*109*

---

# Aintzina petainzalea?



PAKO SUDUPE



*i*

ñigo Aranbarri idazlearen *Gure mendea* (*Argia*, 1999, Lasarte) izeneko liburuak zirikatu nau, zehazkiago 1942. urteari dagokion kronikak, «Aintzina piztu» izenburukoak. Jakin-mina asetu nahian egindako ibiliak eta ibiliotan bildutakoak azaltzeko asmoa hartu dut idatzi honetan.

Aipatu kronikak ondoko hitzokin balioztatzen digu *Aintzina* aldizkariaren ekarpena:

Batez ere laguntzaile berriei esker (Labegerie anaiak, Larzabal, Xarriton...) aurreko garaian baino abertzaleago agertzen bada ere, *Eskualduna* bezalaxe, petainzalea da funtsean *Aintzina*. Lurra eta tradizioa dira erreferente ideologiko nagusi komunismoari eta herria «deseuskalduntzen» ari den burgesiari aurre egiteko. Hala idatzi du Marc Legassek: Jainkoagana eta lege zaharretara itzulita; herriaren egiaren aurrean makurtuta; Kristogandik datorren bake, sosegu, indar hau hartuta, horrela aurkituko dugu euskal arima (129 orr.).

Egungo ikuspegi eta iritzi nagusiaren arabera, Petain Francorekin eta Hitlerrekin lotzen dugu aski fite; arrazoiz lotu ere, elkarlanean aritu zirenez munduan ordena berri autoritarioa ezarri nahian. Gorago jaso dugunaren balorazioaren arabera, horretaraz gero, Iparraldeko *Enbata* aurreko mugimendu euskalherrizalea, aranazaletasunaren era-

---

► **Pako Sudupe** euskara irakaslea da, eta Euskal Filologian lizentziatua.

ginpekoa, eskuin autoritario faxistaren kolaboratzaile behar ote dugu interpretatu? Hego Euskal Herrian Francorekin bat egin zuten karlistak eta Ipar Euskal Herrian Petainekin bat egin zuten euskaldun petainzaleak nahiz aintzinazaleak, berdintsu?

## Gerrateko *Aintzina*-ren oinarriak

Bigarren aldiko *Aintzina*-k (1942-43) frantsesez adierazten zituen bere oinarriak ale guztietan. Adierazgarriro hiru ikuspegi bereizten eta aldi berean bata bestearen launtzan ezartzen zituen: ikuspegi frantsesa, ikuspegi katolikoa eta ikuspegi euskalduna. Ikuspegi frantsesaren alde tik Petain mariskalaren esaldi hau: «Le Régionalisme fera la force de notre Pays»; ikuspegi katolikoa Aita Santu Pio XII.aren mezu honekin:

Dans le champ d'une nouvelle organisation fondée sur les principes moraux, il n'y a pas place pour l'oppression; ouverte ou dissimulée, des particularités culturelles et linguistiques des minorités nationales, pour l'entrave et le resserrement de leurs capacités économiques, pour la limitation ou l'abolition de leur fécondité naturelle.

Eta euskalduna:

Le fait basque est une réalité naturelle et non pas un mythe de convention: il existe une entité ethnique basque avec sa langue, ses traditions, son folklore particuliers. Renier la fraternité des Sept Provinces, c'est pour un basque se renier soi-même. (...) un basque français a le droit et le devoir de regarder un basque espagnol comme un frère de race. Celui qui croit servir la France en luttant contre le régionalisme selon la tradition jacobine; celui qui croit servir l'Eglise en ne tenant aucun compte du droit chrétien des minorités proclamé par le Pape; celui qui travaille à séparer les Basques par peur d'un séparatisme-fantôme. Celui-là n'est ni bon français, ni bon catholique, ni bon basque: rien (...)

Oinarrioi begira jarrita, baieztza liteke ikuspegi euskalduna aldarrikatzeari, euskaldunen eginbidea agerriz azalt-

zeari ematen zaiola lekurik hautena, baieztza litekeen bezala frantses on eta euskaldun on izatearen artean kontraktasunik ez dela nabarmentzen, eta delako ikuspegia finkatzeko eta sendotzeko Frantziako buruzagi Petainengandik erregionalismoa azpimarratzen dela, hortaz petainzale ere agertuz hein batean, eta mundu guztiko Eliza katolikoaren buruzagiarengandik gutxiengo nazionalen eskubi-deen aldeko defentsa.

Gogora dezagun ale gehienak 1942an atera zituela bigarren aldiko *Aintzinak*. 1940tik 44ra politikoki bitan banatua zen Frantzia. Petain zen Estatu Frantsesaren lehendakari, eta Vichyko gobernuaren pean zegoen Frantziaren zati bat, Mediterraneo aldekoa —Euskal Herriko Zuberoa barne—, gehi inperio kolonial frantsesa; eta alemanen mende gainerako Frantzia, Atlantiko aldekoa —Lapurdi eta Behe Nafarroa barne—. 1942an, alemanak gerra irabazten ari zirela, Petainek, 1940an ez bezala —Darlan orduan— Laval hitlerzalea izendatu zuen Vichyko gobernu buru, alemanekin hertsikiago kolaboratzeko. Gure gaurko gehientsuenon aurreiritziaren arabera ez ote zuen *Aintzina*-k bere desadostasuna agertu behar Petainen gobernuaren alderako, alemanen aldeko jokaeran are gehiago pulunpatzeagatik. Izan ere, ez al ziren bada naziak inoizko gerrarik gupidagabeenaren bitartez Europa osoaz jabetzen ari? Garai bereko *Eskualduna* aldizkariak, Ipar Euskal Herrian *Aintzinak* baino askoz ale gehiago saltzen zituenak —garairik onenean 8.000 edo saltzen omen—, Xalbat Arotzarena zuzendariaren arrimupean, Hitlerren hitzaldi osoak euskaratzen zituen, alemanekin elkarlanean aritzeari adostasun osoa erakutsiz<sup>1</sup>. Beste aldizkariak aldendu beharra sumatu behar zuen, ezta? Susmo txarra egitekoa ez ote, delako Petainen esaldia oinarrietan aipatze hori.

Gure egungo usteak orduko errealtate ideologiko benetakoarekin alderatu eta kontrajartzeko, egokiak gertatzen dira Xarriton jaunak egiten zituen adierazpenak. Erabat alemanen alde jarriak zeudenen fanatismo irri-egingarria salatzen zuen:

batzuek ez dute salbamendurik amesten Alemanen baitan baizik. Burua berotua ari dira karkulan, eta burutik

pasatuak oro Ebanjelio saildutzat eman nahi dauzkute. Heien ideiak ez badituztu onhartzen, traidore bat zira edo inuchent bat. Ez da harat-hunatik.

Horren ondotik arrazoiketa morala ez baizik pragmatikoa eginez, agertzen zuen gerran nork irabaziko zuen inork ez zekiela, ezta Frantzian nork manatuko zuen ere:

Ondoko egunetan nork duen Frantzian manatuko, nork duen oraiko gerla irabaziko, zer litaken hobe, nik ez dakit; eta ez niz bakharra, nahiz askok jakinarena egiten duten...

Egun harrigami eta are gaitzesgarri gertatzen zaizkigunak, faxisten autoritarismo eta aliatuen demokrazia burgesaren artean bataren ala bestearen alde garbi agertu ez izana —ez ahantzi aliatuak Errusiako komunista boltxebikeekin bat eginak zirela— konprenigarriago gertatzen da jakitean, Xarritonek berak kontatu digunez<sup>2</sup>, goragokoak idazten zituen garaitsuan Miarritzeko San Martin parrokian Leon Agerre eretorearen eta Saint-Pierre apezpikuaren ateko eztabaida filosofiko-politikoaren lekuko izan zela. Hura alemanzalea bezain ingeleszalea zen apezpikua, edo hobeki erran, Agerrek uste bazuen alemanek eta japoniarrek irabaziko zutela, besteak sumatzen zuen ingeles, amerikar eta errusiarrek gailenduko zirela. Historiaren irakaspena guretzat: alemanek irabazi balute herri agintariak ez ezik Elizak ere ez zuen Ipar Euskal Herrian edo Frantzian, edo munduan?!, zinetako kontrakarrik erakutsiko nazien garapenaren aurka.

Nork irabaziko zuen alde batera, zekiena zen euskaldunek euskaldun gelditu behar zutela gerra batzuek zein besteek irabazi:

Bainan gauza bat badakit: behar dugula ooren aintzinean eskualdun gelditu, eta ez dugula nehoren aintzinean amor eman behar (...). Komunizmoa, zozialismoa eta holako asmo tzar zer-nahi badabila munduan, eta gure elhek ez dituzte geldi-araziko. Eskualdunak beren eskualdunogan behar ditugu lehenbai-lehen finkatu, gogortu! (...). Eskual-herria nola gogor? Laborari eta langile biltzar bereziak azkartuz; erlisioneak funski erakutsiz eta ez achaletik; jendeen osagarriaz artha hartuz; eskuara be-

giratuz eta hedatuz; orori eskualdun izaiteko urgula eman-  
nez; gazteriari arbasoen egitateak, jokoak, kantuak era-  
kutsiz (...) («Etche aintzina» eta «Gauden gu» segidan, in  
*Almanaka*, 1943, 10-11-12 aleak).

Beste izengoitiak beste, *Chabier Gazteiz* izengoitiz si-  
natzen zuen Piarres Xarritonek alez ale euskaldunen kon-  
daira argitaratu zuen delako *Aintzina*-n. Euskaldunen his-  
toria aztertzetik honako ondorioetara iritsia zen:

Hola beraz mendez mende Eskualdunen itzuli-mitzulier  
jarraikiz, ohartuko zira izana-gatik Erromano, Moro, An-  
gles, Español, Amerikano, Frantses, Eskualduna bethi  
gelditu dela Eskualdun. Eta nola jakiteak mundu hunta-  
ko harat hunaten achalezko on gaitzen gatik, ororen bu-  
ru, oro Jainkoaren goresterat ari direla, Jainkotiarra kam-  
poko zerentzat ezazoltzen baitu, barnekoentzat aldiz at-  
zartzen, halaber heien arbasoek jauntzi dituzten izenen  
oichtian aiphatu lerroa ikhusita, Eskualdunek bihar  
jauntziko dutenaz achola gutiago izanen dute, gehiago  
aldiz ethorkizuneko beren izanaz: Eskualdungoaz. Gure  
hunuen irudiko mendea zen duela 1600 urthe. Gure arba-  
soak behin zoin borthizki Erromanoer oldarturik, ondi-  
kotz arras Erromakotuak ginituen, heien soldado jarriak.  
Eta Erromak leher egiterat zohan, asaldatuak ziren Es-  
kualdunak. Orduan zioten erran Orose handiak: «Zuen  
aitek madarikatu dute Erromanotu zituen egun beltza.  
Egun beneikatzen duzue. Nork daki egun asaldatzen zi-  
tuzteten gerthakariak dituztenetz zuen sementzat egun  
hobeak sorthuko?». Badakigu nola Erromaren erortzeak  
sorthu zuen Eskual-Herriaren alchatzea. Orhoit herrita-  
rrak Orosen solasaz eta bihar eta bethi gero gehiago Es-  
kualdun gelditzerat lehia.

Aipu luzea baina adierazgarria. Delako Orose hori,  
oker ez banago, Orosio teologo eta historialari bisigodoa  
zen. Honen arabera Erromaren handitasunak gainerako zi-  
bilizazioen gainbehera ekarri zuen. Hitzok bere inguru his-  
torikoan interpretaturik, euskaldunak kanpoko jantzietan  
aleman gelditu edo frantses ez zen axolazkoa, axola zuena  
bametik euskaldun gelditzea zen, benetako kristau euskal-  
dun. Gainera, nork jakin, aberri handien ttipitzeak, Frant-  
ziarenak esaterako, ez ote zuen ttikien altxatzea ekarriko!

Alde batera esan liteke abertzaletasun jeltzalea, aranzalea dela Xarriton gazteak 1942an agertzen duena. Une honetan Iparraldean Hegoaldean bezain indartsu zen komunismo eta sozialismo ooren alderako arbuio erabatekoz jantzia. Aurreko hamarkadan Ipar Euskal Herrian (1933-37), batez ere, Piarres Lafitteren eskutik «Euskalherrizaleak» elkarteak eta lehen aldiko *Aintzina* aldizkariak ereindako hazitik datorrena; hainbat puntutan bere burua haren ikasletzat duen Xarriton jaunak historiaren irakaspenez hornitu eta Iparraldearen egoera historikora egokitu. Bestalde, Lafitte Frantziari lotuago ageri zen, bai mundu gerra baino lehen eta baita mundu gerra bitartean ere Petainen gobernu kolaborazionistak agindutako Frantzia eskualdekatzeko xedean itxaropena izan zueino. Xarritonek berak aipatua du handik urte askotara *Aintzina*-ko garaian Iratzederren bidez eskuratu zuela Engrazio Aranzadiren *La Nación Vasca*, eta honek erakutsi ziola «nazionalismoak» politika bide asko zabal ditzakeela, independentzia ez ezik autonomia mota franko<sup>3</sup>.

Honek ez dio, haatik, galarazten Iparraldean nagusi den frantseszaletasun erregionalistatik bereiztea, eta neurri batean, ideia nahiz jokaera berrietarako haziak ereitea.

Gorago adierazi dut, itxura batera, arrazoiketa pragmatikoa egiten zuela Xarritonek gerraren amaieraz, ez baitzuen nazien alderako gaitzespenik ageri, ez eta honen alde jokatzeko ari zen Petainen alderako. Handik, euskaldunok ere gogo eta gorputz bizi izan dugun historiatic, bigarren mundu gerra ere bizi izan baitugu iparreko haurideen gogo-gorputzetan, atera genezakeen irakaspena jaulki dut. Ikus dezagun zein zen garai honetan Iparraldean ideologia nagusia.

## Petainzaletasuna Ipar Euskal Herrian

Domingo Soubelet kalonje hazpandarrak —euskaltzain urgazle izan zen—, Petain mariskalaren biografia idatzi zuen<sup>4</sup>, eta horrekin batean edo hori baino gehiago, katoliko frantses-euskaldunek une historiko jakin hartan

zituzten eginbideen zerrenda. Labur esan, Petainen mutil oso agertzen da, morroirik leialen, jarraikien eta miresleena. Esaldi guztiak dira Petainen aldeko karra sustatzera bideratuak. Liburuak, Akizeko apezpiku Clement Mathieu jaunak bere eskuz idatzi aitzinsolasa du —Mathieu apezpikuak Verdier kardinalaren laguntzaz Espainiako Gerra Zibileko euskal iheslarientzat laguntza-batzordea antolatu zuen; *Gure Herria* eta *Eusko Ikaskuntza*-ko lehendakari izan zen, besteak beste—. Bertan dio, uste ez zutela, Frantzia eri zela, urteak zituela eri, ustez sendo zelakoan, ttipitzen ari zela ustez handitzen ari zelakoan, eta atsekabeen:

Gure atsegabeen, Jainkoak igorri dauku mediku bat zahartzeak zuhurtziaz bethe duena (ez dira arno guziak zahartzearekin ontzen) Petain-ek eman dauku, gorputzez azkurri, ogia arimen altchagarri, egia (...). Gure nagusiarren elheak girichtino elheak othe dira? Ene jakinean Petain-ek ez du Jainkoaren izena behin ere aipatu. Bainan beren erakaspenera girichtinotasunez betheak eta haziak bezala dire. Zer, Petainen arabera, galdu du gure herri maitea? Girichtino legetik baztertzeak Pagano legerari jarraitzeko: girichtino zen gure izena, Pagano gure izana. Nahi badugu Frantzia zuti dadin, sar gaiten, gure zaharrek atchiki duten, bide ertchi eta chuchenean. Duela urthea, zer oren dorpheak, zer egun ilhunak! Iduritzen zaukun lurpean sarthuak ginela, indarrrik gabe, argirik gabe, itsu batzu bezala. Gure ilhunbean, argi bat. Argi hura, Petain! Gure zaurien arhatzeko mediku bat! Mediku hura, Petain!

Honen ondotik liburuaren egilearen beraren aitzinsolasa:

Eskualzaleen biltzarreko jaunak, eta zu, oroz lehen, Louis Dassence, buruzagi lehena, Uztaritzeko auzapeza, huna liburutto bat haurren eta gazteen eskuetan ezartzen ahalko duzuen. Lehen emaiten baitziniuzten haureri sariak hau emaiten ahalko duzue: ukanen ditu haurren jostagailu, potret batzu pollitak. Ait'ama familiakoak, ezar barna gogoan, zuen haureri behar duzuela eskuara irakatsi. Atchiki behar dugu gure mintzaira eder paregabea, atchiki ere gure ohidura guziak. Chede hortarat heltzen laguntzeko, esku-menean ukanen duzue Petain Marecha-



laren bizia. Haren potreta etche guzietan sarthua den bezala, sar dadila ere denetan haren bizia. Nor da Petain? Petain da Frantzia. Frantzia eta Eskualherria. Petain sinets. Petain onhar. Petain jarraik.

Laburki aldatu dugun delako aitzinsolasetik hasita ondoko azken solaseraino Petainen gorazarrez eginiko kantua da:

Eskualherria, ez da Frantzian, nola nahiko eskualdea. Aberatsagorik bada. Pollitagorik badenetz, ez dakit. Dena dela, Eskualherriak behar du, bihotz oroz Petaini jarraiki. Hiru gauza ditu Petainek galdegiten: familia, lana, Herria. Maita familia, maita lana, maita Frantzia. Jainkoari esker familia ederrak badira oraino Eskualherrian. Zoin eder ikustea ama familiakoa, haur multcho batez inguratua. Haren atseginaren parerik ez da, bere haurrak biltzen ahal dituelarik denak bere ingurura. Langilea dela eskualduna, denek badakite. Indarrez azkar da eta lanaren nagusi. Izan dadin etcheko-jaun ala etchezain, beti lana maite du eta ontsa egiten. Frantzia maite duenetz, ez galda eskualdunari. Gain gainetik bethe du bere egimbidea, lehengo gerlan eta bardin oraikoan. Eta Frantzia maitatzean, maite du ere bere chokoa, eskualherria. Eskualherria, erran nahi beita bere etchea, bere eliza, bere pilota, bere mintzaira, bere sinheste zahar ederra. Frantzia ezarria izanen beita eskualdeka, gure chokoan nahi ginuzke atchiki gure ohidura eder guziak. Eskualdunak jarraikiko dira bihotz oroz Petain Marechalari. Gora Petain Marechala. Gora Frantzia. Gora Frantzian, Eskualherria!

Petaini eskainiriko kantuko hiru ahapaldi, *Dama gazte*-ren doinuak kantatzekoak:

Eskualherrian dauku minichtro hautatu / Deputatu zelaririk, ber'alderat deithu / Petainekin Lamirand, Darlane-kin Ybar / Hoier jarraikiz dugu egimbide bakar.

Angles eta Golizta, zueri dut bista / kontrako guziekin, egin zuen lista / Frantzian ez ditake zuenkilan phesta / Zuen erranak hartuz, bake onik ez ta.

Gure arrazak dauku lurra kontserbatu / Jendea azkar dago, Frantzian aiphatu / Familia ta lana, Herria maitatu / Frantzian molde berri, denek apailatu.

Aipatu liburua larriki laburbildurik: gatazkan bestetan ez zekiten sasipolitikari ezkertiar alferrak kanporatu beharrik ziren; Frantzia ahuldu eta desegigora eraman zuen demokrazia zakuraren salara igorri! Petainen gidaritzapeko autoritarismoa zerbitzatu, familia, lana eta aberri frantsesa maitatuz. Errepublikak masoia ehortzi eta Petainen nazio iraultza goratu.

Petainek Lyongo Artzapezpiku Gerbier-Kilan kardinala zuen bere alde, bai eta Frantziako kardinal eta artzapezpikuak ere. Ildo beretik, Lourdesko santutegian izana zen mariskal loriatua, eta handik mezua igorria zion Aita Santuari, bai eta honek ez tiro ihardetsi ere. Aita Santu Pio XII.ak, lehenxeago Francoren erregimenaren aldeko agertu zenak, bakearen aldeko hitzaldiak egiten zituen baina isiltasun ofiziala zuen gordetzen gerrakideen artean jarra hartzeko; gerra nazien alde zihoala, espresuki gaitzetsi zuena, 1942an, marxismoa izan zen, ez nazismoa. Horretarako gero, hierarkiaren onespenez osoz, katolikoen eginbidea Petaini jarraitzea.

1942ko gure aurreko euskaldunen kasuan, mundua egundainoko gerrarik hedatu eta izugarrienean murgildurik zenean, moralitasuna Ipar Euskal Herrian —hemen aipatu beharra dago Zuberoa alemanek bereganatutako lurraldetik kanpo geratzen zela, eta ezkerak nahiz erresistentziak hedadura zabalagoa zutela bertan<sup>5</sup>—, esan liteke Erromako Aita Santuak eta Frantziako Elizaren buruzagiek erabakitzen zutela, eta hierarkiak garai horretan espresuki gaitzetsi zuen ideologia bakarra marxismoa izan zen. Ez zegokeen moralitasun eskasik nazismoaren izugarrikeria ez gaitzestean, eta are gutxiago Petainen Hitlerrekiko lankidegoarenean.

Jakina, ohi denez, errealitatea ez zen hain garbia. Frantziako apezpikuen artean izan zen bestelakorik. Dagokigunerako hurbilenekoari helduz, Baionako apezpiku flandriarrak, Edmond Vansteenberghé (1939-1943), honakoak adierazten zituen:

Notre monde est désespéré: des doctrines funestes trompent des peuples entiers sur nos origines et sur notre destinée. Au culte du vrai Dieu se substitue dans d'an-

ciens pays jadis chrétiens l'athéisme ou le culte de ces nouvelles idoles qui s'appellent le sang et la race; la justice doit céder le pas à la force et la charité est bannie comme une faiblesse. Quoi d'étonnant à ce que dans un tel climat fleurissent la haine, l'envie, l'esclavage, la guerre avec toutes les horreurs qu'elle peut engendrer, quand tout sentiment d'humanité a disparu. Le salut ne peut venir que du Christ.<sup>6</sup>

Baina inor gutxik hartzen zituen aintzakotzat bere esanak. Ez *Eskualduna* aldizkariak, ez petainzaleek. Adierazgarriro, 1942ko urte hondarrean katedralean eginiko prediku garratz baten ondotik, non frantses gazteak Alemaniara bortxazko lanetara joatea gaitzesten zuen, aleman poliziak apezpikutegia inguratu zuen, eta abagune larri horretan erretore bakar batek erakutsi zion elkartasuna, Bordarrampé kalonje eta katedraleko erretorea zenak, beste guztiek alde egin baitzioten apezpikua bakarrik utzirik.

Aurrekoak irakurrita ulergarriago gertatzen dira garai honetan Saran aterpeturik bizi zen J.M. Barandiaranek egindako lekukotasunak:

Aquí, como en otros lugares, ha habido bandos o agrupaciones más o menos políticas: mejor dicho, varias familias alrededor de las cuales se agrupaban los vecinos, según sus simpatías o afición por aquéllas. Unos eran gorriak «rojos», partidarios de ideologías más o menos revolucionarias; otros, xuriak «blancos» o conservadores, poco amigos de cambios (...). Hoy (1942) no aparecen estas divisiones, tal vez porque no se presentan ocasiones propicias: todos parecen simpatizantes del mariscal Petain. (...) En los años 1940 y 1941 el mariscal Petain era considerado aquí como el hombre que salvaría Francia. En abril de 1942 decíase, como cierto, entre los vecinos de Sara que Francia y Alemania se habían unido, cuando Laval subió al poder: que todos los franceses varones, de 15 a 35 años, iban a ser movilizados y conducidos a la guerra que seguramente no duraría más de medio mes: que, al cabo de ese tiempo, ambas naciones, ya triunfantes, impondrían la paz en el mundo (...) era la traducción popular de lo que se decía en los medios políticos colaboracionistas (...) y en abril de 1945 era fre-

cuenta oír que Petain había traicionado a Francia («Bosquejo etnográfico de Sara, (VII)», in *Anuario de Eusko-Folklore*, Donostia, 1971-72, 59-102 orr.).

Apaizetara, eta Sarako elizan adierazten zenera etorritz:

El 7 de junio de 1942, solemnidad de Corpus Christi, el cura de Sara decía en su sermón: «el Sagrado Corazón no tiene abandonada a Francia (...) así como Dios suscitó en otro tiempo a una Santa Juana de Arco para salvar a su nación, también ahora ha hecho aparecer en el suelo de Francia a un hombre extraordinario en la persona del mariscal Petain que va conduciendo a su pueblo, por caminos insospechados, hacia una nueva etapa de prosperidad». Así se pensaba entonces. Dos años después, 1 de octubre de 1944, el vicario de Sara dijo en su sermón: «hoy festejamos la liberación de Francia (de los alemanes y de la facción de Petain). Gracias a Dios y a la actuación de nuestras heroicas fuerzas ha sido salvada una vez más nuestra patria» (idem).

## *Aintzina*-ren jokaera

Baina gure aztergai nagusira etorritz, zer jokaera izan zuen *Aintzina*-k ordu hartan nagusi zen petainzaletasunaren aurrean?

Lehenik esan, gorago aipatu mariskalaren omenezko liburuaren berri eman zuela:

Un tel ouvrage manquait assurément dans notre région, et il est heureux que l'on se soit décidé à dire en basque la haute louange du Maréchal Petain.

Kritikatxo bat egiten zion:

peut-être aurait-on pu insister davantage sur les conceptions décentralisatrices et régionalistes de ce grand Chef, car elles intéressent notre Pays beaucoup plus que telles ou telles autres de ses opinions.

Adichkidea-k sinatzen zuen.

Idatzi honen hasieran jaso dugu nola aldizkariak bere printzipioen adierazpenean jasotzen zuen ia ale oro z

Petainen esaldi bat, ezen erregionalismoak emanen ziola Frantziari indarra. Alderdi hau dezente sustatu zuen aldizkariak. Artikulu mordoxka daude erregionalismoaren onurak adierazte aldera idatziak, besteak beste, Marc Legasse eta Piarres Lafitterenak. Oro har, *Aintzina*-k, gorago jaso dugun liburuaren iruzkina dela bide jaulkitakoez landa espresuki ez zuen Petain laudatu, baina are gutiago gaitzetsi. Eta honek abian jarri zuen erregionalismo airea sendotu nahia oso garbi ageri da.

Gorago aipatu liburuaren iruzkin egileak, Soubeleten liburuak Petainen alderdi erregionalista gehiago ez nabarmendu izana deitoratzen bazuen, Piarres Lafittek mariskalak abiarazitako iraultza nazionalen gertatu atzerako martxa salatzen zuen «Marche arrière» zeritzan artikuluan. Deszentralizazioa baino gehiago,

d'une déconcentration régionale. Quelques timides innovations ont suivi: encouragement des langues particulières en dehors des heures scolaires, nominations de préfets régionaux...

Eztiki-eztiki berritasun erregionalak erabaki orduko, orde, betiko Errepublikaren Departamenduen aldeko dekretuak onartuak izaten hasi ziren, eta gainera prentsan iraultza nazionalaren kontrako iritziak hasiak ziren hedatzen betiko jakobino zentralizatzaileen aldetik. Bai eskualdeen eta baita eskualde hizkuntzen kontra ere. Azken hauen kontra aldezturiko argudioak frantsesaren kontra ere berdin-berdin erabil zitezkeela gogoratzen zuen Piarres Lafittek:

La logique du système pourrait un jour être funeste à la langue française, qui, malgré toutes ses qualités, n'a plus l'importance de l'allemand, de l'anglais, ni même de l'espagnol, au point de vue international. Trouveriez-vous juste qu'on décrêtât la mort du français, sous prétexte de favoriser l'unité européenne ou l'unité mondiale? Nous trouvons aussi injuste de sacrifier les «petites langues» à je ne sais quel mythe communautaire!

Lafitteren artikulua hau behar bezala ulertzeko, zenbait argibide dira beharrezko<sup>7</sup>. Hark 1941eko maiatzaren

23an igorri zion *Eskualduna*-ren zuzendariari «Eskual Herriaren alde» izeneko artikulua luze bat. Gorago adierazi bezala, Lafittek bazuen esperantza Vichyko Gobernuak Frantzia eskualdekatzeaz, eta populuen izaera, mintzaira, odol eta ohiturei errespetua ekartzeaz ageri zituen xedeen aldera. Posibilismoaren bidetik ibili nahi zuen, eta prest zegoen honetarako Xalbat Arotzarena hitlerzalearekin elkarlanean aritzeko. Hala, ekainaren 27an, «Hiruak bat» izeneko artikulua argitaratzen du *Eskualduna* astekarian, eta hor salatzen du Charles Brun adiskidearengandik —Vichyko gobernuko kidea— jakin duen berria, nola Vichyko batzorde berezi batek eskualdekatzeari buruz bere proposamena aurkeztu behar dion Petain mariskalari uztailaren 25ean. Astekariak kanpaina egiten du euskaldunen aldetik delako proposamenari buruz atxikimenduak lortu eta mariskalari igortzeko, eta bai lortu ere Baionako gerlari ohiena, hainbat herritako herritamen zerrenda luzeak, bai eta presoner ohiena ere. Baina guztia debaldetan. Urte t'erdi inguruirauan omen zuen Lafitteren igurikimenak, eta halaber *Eskualduna*-ko Xalbat Arotzarenarekiko harremanak.

Marc Legasserengana etorritz —honek ordaintzen zuen *Aintzina* bere diruz, aldizkaria ez baitzen gauza bere burua ordaintzeko—, ironia ukitu batez, azkenaldian Buletin Erlijiosoaren erregionalismo kontuan ongi asea zegoela zioen. Hiru adibide jartzen zituen. Horien arabera, Eliza elebitasun eta historia erregionalaren alde agertzen zen. Hona adibide bat:

il n'est douteux que les joyaux de notre langue et de notre histoire régionales peuvent servir, si nous l'entendons ainsi, à une plus grande gloire de Dieu. Bul. Dioc. 15/2/42 («Régionalisme», 1942, martxo).

Beste artikulua batean, gisa honetan aldeztu du zazpi probintzietako euskaldunen batasuna. Horretarako, lehenago gertakari baten berri ematen du. Honako gertakaria: Baionako euskal museoan, soil-soilik Iparraldeko hiru euskal probintziak zeuzkan armarrira zegoen. Lagun abertzale batzuk joan, kendu, eta haren ordezkari egur puska bat ezarri zuten *Zazpiak bat* idazkunarekin. Gertaera hau dela eta

*Sud-Ouest*-eko kazetari batek asto beltxarenak esan zituen, eta erantzun gisa Marc Legassek:

—Comment, «séparatistes»? —Si on lit attentivement les lignes qui précédent, il faut bien constater que ce sont ceux qui ont créé l'écusson des trois provinces basques françaises en «séparant» les provinces basques espagnoles qui sont, en l'occurrence des «séparatistes». Et l'auteur de la dégradation semble bien être, au contraire, un «unioniste», puisqu'il réclame l'écusson «Zazpiak bat», qui «unit» les Sept Provinces en un seul blason. Ces deux articles ne sont en réalité que les dernières manifestations de ce groupuscule de «séparatistes Basques Français», Gascons pour la plupart, qui s'efforcent de détruire l'unité des Sept Provinces Basques («Le 'Zazpiak Bat' et les séparatistes basques-français», 1943, jorraitila).

Adierazpenok gorabehera, 1942ko Marc Legasse aranzalea da. Gerora izanen du bilakaera. Honela kontatu dizkigu Amaia Ereñagak<sup>8</sup>, Marc Legasseri egindako elkarriketen berriak, gagozkion puntuari dagokionez:

Un editorial explicaba, a su vez, su deseo de llevar un poco de «fuego que ilumine e inflame» el panorama uniendo a los jóvenes a través de su contenido dedicado a la cultura vasca. No se abordarían cuestiones políticas, a la vista de la compleja situación en la que vivían. Esta puntualización se realizaba al hilo de las discusiones que se producían dentro del pequeño grupo de abertzales de Euskadi continental relativas a la actitud a mantener durante la ocupación nazi. Como recuerdan los testigos de aquella época, las discusiones entre Eugène Goyeneche y los Légasse, principalmente Jacques, quien bajaba de París en cuanto podía —«Xanti era muy serio» recuerda Iratzeder— eran de lo más fogosas. Si el primero era partidario de mantener contactos con los ocupantes en aras de sacar provecho en lo que se pudiera hacer por la causa vasca, los Légasse, al igual que Lafitte, pensaban todo lo contrario. Eran antinazis (44 orr.).

Handik hiruzpalau urtera Marc Legassek egin zuenaz, gisa honetan idatzi zuen garaiko beste protagonistetako batek, aita Larzabalek hain zuen:

Arras bertzerik izan zen 1939-45eko gerlaren ondotik. Zafraldi on bat harturik, halere Frantzia atera zen irabazdu-nen lerroan. Bainan Frantzia bat kraskatua, duda-mude-tan sartua. Frantziaren peko ziren koloniak, mugitzen ha-si ziren Berengaintasuna eskatuz. Ipar Eskual Herrian ere sortu zen nor-bera bere buruaren jabe izaiteko giro berezi bat. Etcheverry-Aintchart jauna, deputatu sartu zen Pari-seko Deputatuen Ganberan eta liburuxka bat argitaratu zuen, eskatuz Eskual Herria destinkatua izan zadien, Pari-seri loturik zaukaten lokarrietarik. Etcheverry-Aintchart jaunaren lege-saila ez zen onhartua izan, Deputatuen Ganberan. Zonbait «Aintzina»tar ere presentatu ziren, han eta hemen, bozka-partidetan. Hetarik bat, Marc Le-gasse jauna, eskualdun anarkixta bezala. Boza pilixta bat ukan zuten. Marc Legasse jaunak, zonbait egunen pre-sondegia bildu zuen.<sup>9</sup>

Baina Larzabal ez zegoen oso ongi informatua. Etxebe-rrri-Aintxartek Parisen aurkeztu zuen proiektua, estreinako aldiz Ipar Euskal Herriarentzat departamendua, euskararen ofizialtasuna eta ahalmen handiko autonomi estatutua gal-detzen zituena federal kutsuko Frantziako Errepublikaren baitan, Legassek egindakoa zen. 1945eko irailean gerra os-teko lehen hauteskundeak egin ziren Frantzian, kantona-menduetakoak hain zuzen; eta hauetara, Ipar Euskal He-rriaren historian lehenbizikoz *Nationaliste basque* izenare-kin agertu zena Legasse izan zen. 95 boz bildu zituen. 1946ko martxoan Jose Antonio Agirreri gutun luzea idatzi zion adieraziz ezen abagune egokia zela Frantziako konsti-tuzioa berritzen ari zirenekoa proiektu autonomista esku-menez hornitua bultzatzeko. Aldi berean salaketa eginez:

Certains membres influents du Parti Nationaliste Basque poursuivaient dans notre dos un travail de sabotage qui semblait étrangement coïncider avec les manoeuvres de la Sous-préfecture de Bayonne (...). Toute votre activité diplomatique s'est poursuivie sur le plan espagnol. Votre gouvernement est un gouvernement régional de la République Espagnole et vous ne manquez jamais une occasion d'en affirmer le principe.<sup>10</sup>

1946ko ekainean iparraldeko herritarrak erreferendu-mean konstituzio frantsesa onartzera gonbidatuak zirela,



eskurik ez hartzeko gomendatuz M. Legassek afixak zabaldu zituen. Atxilotu eta espetxeratu zuten. Isuna ezarri zioten, ez iragarkiagatik baizik autonomi estatutuaren proiektuaren egilea izanagatik. Lehenengoetako gose-greba politikoa burutu zuen 1946an. Iparraldeko beste zenbaitek ere aipatu izan du hegoaldeari lagundu beharrak zenbat mugatu eta ahitu duen Iparaldea.

Piarres Larzabal eta Mixel Labegeriek ere ez dute aurretik aipatu ez dugunik adierazi *Aintzina*-n. Hark «Euskaldun gazteen biltzarreko egunean Uztaritzen eman predikua»-n aditzera ematen zuen apez euskaldun gisa:

Zorigaitzez mamu batzu ari zauzkigu gure aphainduraren itsusten, chilakatzen, biplatzen (...). Mamu hetarik biga dauzkitzuet bereziki aiphatuko: Erdara eta lizunkeria. (...) Jesu Kristoren denboran ere, ez zen arameano mintzaira biziki hedatua. Bainan, halere, mintzaira hortan eman ditu Jesusek bere erakaspenak (...). Jesusek bere gisa utzi zituen greka eta latina, memento hetan gehienik hedatuak ziren mintzairak (...). Eta hori bere haurtasuneko mintzairaren fagoretan, hunen ez ukatzeko. Etsenplu ederra guretzat! (...) Zerk egiten du bada, Jainkoaren begietan, odolaren garbitasuna? Lizunkeria nahastekatua ez izaitteak! Lizunkeria ezagutzen ez duen odola, hura da Jainkoarentzat odol garbia (...). Egiaz dautzuet, Jainko maitearentzat hobe da Eskual-Herria kaskoindua, bainan on gelditua (holakorik amets othe ditake!) ezenez eta Eskual-Herria eskualdun gelditua, bainan tzartua (1943, maiatza).

Marc Legassek eta Piarres Larzabalek garai honetan izan zuten bihurrialdiaz Piarres Larzabalek berak ez du ezer asko argitzen, baina Marc Legassek eta Xarritonek ere eman dituzte argibideak<sup>11</sup>. 1942ko Larzabalek ez zuen gupidarik euskal abertzale ez agertzeko, ez baitzuen bere burua halakotzat. *Aintzina*-ko Larzabal, eta *Enbata*-ko Larzabal, nahiz *Anai Artea*-koa ez dira bat, nahiz eta, gisa denez, hainbat aldetarik gizon bakarra egon aldi historiko banatan.

Mixel Labegeriegana etorri, beharbada, Ipar Euskal Herriak ezagutu duen hizlari politiko euskaldun gaitzenak —Ibarnegarai ahantzi gabe—, eztabaidatuena, miretsien

bezain gaitzetsienak, 1942an, bere izen-abizenez behinik behin, Ipar Euskal Herriko pastoral, maskarada, kantu eta dantzen berri baino ez du ematen, bere euskalherrizaletasuna horretara mugatuz.

Beste puntu jakingarri zenbaitetara etorritz, aldizkariak harpidedun berriak lortzeko irakurleengana jotzen zue-nean: beregaintasuna, euskalduntasuna aldarrikatu eta hau azkartzearen aldeko deia egiten zuen. Honela gonbidatzen zuen erredakzioak herritarra aldizkarian abonatzera:

Bien que moins savant que Gure Herria et ne faisant pas de politique, le nouvel Aintzina, revue mensuelle de jeunes, n'en défendra pas moins la cause basque avec la plus grande ardeur. (...) Abonnez-vous à Aintzina! Faites-le connaître autour de vous. Vous aiderez ainsi à sauver et à garder le merveilleux patrimoine légué par nos ancêtres: la foi, notre langue, nos traditions.

Aldizkarian ez dira falta Frantzia gorestearen aldeko heiagorak:

Frantzia izanen da azkar eta haundi, haren familia guziak indartsu eta bertutedun izaiten badire, eta hori ama familiakoen obra da guziz gainetik, ezen «Amak egiten du edo botatzen etche bat» eta amaren belaunen gainean moldatzen dire munduko bi gauza oberenak: gizon justuak eta emazteki chuchenak. Horra zertako Frantses emazteki guziek eginbide hertsia badituzten, eta behar bada guk, Eskualdunek, karga bereziagoak, gizon onak eta populu iraupen haundikoak egiten dituzten aberats-tasun haundiak zaintzeko eta balia arazteko baditugula-kotz (Mayi Eiche-churi, in «Eskualdun emaztekiaren eginbideak», 1942, ekaina).

Honako bertuteak ematen zituen erreskan: fede azkar eta kartsua, ohitura zaharren errespetua, familiaren eta etxearen amodioa, mintzaira ederra, langileek eta sehiek nagusiaren alderako errespetua, eta hirietan arrarotzen ari bide zen onestasuna eta josteta garbiak aipatzen zituen.

Beste batean honela dio aldizkariak orri barren batean, bestelako lerroetarik bereizirik: «Deux erreurs monstrueuses: aimer la France jusqu'à haïr la fraternité basque; aimer le Pays basque jusqu'à haïr la France».

Erabili ditugun idatzi mugatuen mugak aitorturik, behin-behineko ondorioak biltzeko tenorea heldu zaigu: *Aintzina*-k ez dio, 1942an, Iparraldean nagusi zen petainzaletasunari aurrez aurreko borrokarik egin; aitzitik, nagusi zen petainzaletasuna nahi izan zuen baliatu euskalduna ikuspegi abertzaleago, beregainago batera lerrarazteko. Ezin da ahantzi bat zetozeala balio tradizional katolikoaren defentsan eta marxismoaren arbuio erabatekoan. Petainek abian jarritako nazio iraultzaren hariko erregionalismoa onuragarritzat jo zuen *Aintzina*-k euskal ikuspegiaren azkartzean aitzina egiteko.

Itxura guztien arabera, mugimendu ahula izan zen, errotze ttipikoa, hobekien Petainen Gobernuko Ibarnegarai ministro euskaldunak ordezkatzan zuen eskuin gogor frantsesazalea arras nagusi zenean Ipar Euskal Herriko gizartean, Zuberoaren hein bateko salbuespena salbuespen. Noiz eta Europa osoan ere, alemanen aldera makurtuxe zen gerraren beroan, eskuin faxista oso indartsu zenean.

Behin-behineko ondorio erkinok beste galdera bat dakarkidate burura: *Aintzina*-k ereindakotik, zer hartzen du eta zer baztertzen *Enbata* mugimenduak handik hogeit bat urtera, bestelako une historikoan? Beste azterlan baterako gaia. Honatx noratu nauen *Gure mendea* liburuko kronika batek!¶

1. Bidenabar esan, Xalbat Arotzarena izturiztar kalonjearen obrari buruzko informazioa, gozoki esateko, ez dugula behar bezala jasoa Harluxet Fundazioaren Euskal Hiztegi Entziklopedian. Informazio urria, eta juzku okerretara eraman gaitzakeena ematen baitu. Ikus P. Xarriton: *Oihenart* 14, Eusko Ikaskuntza, 1997, 213-215 orr.
2. *Oihenart* 14, Eusko Ikaskuntza, 1997, 207 orr.
3. «No es la acción política, toda la acción nacional, ni es a nuestro modo de ver la preeminente aunque resalte de este modo, a los ojos superficiales de los hombres públicos y del pueblo. Entendemos la acción política en el sentido restringido de gobierno propio o de gobierno libre, y en este sentido decimos que la libertad no es lo esencial del nacionalismo (...). La acción nacionalista, enderezada a asegurar y desarrollar esa vida de la persona nacional, es sin duda, superior a la acción encaminada a promover un modo de vida, la vida libre de la nacionalidad. Llamamos acción social a la primera y política a la segunda» (Engracio de Aranzadi: *La Nación Vasca*, Bilbo, 1931, 237-238 orr.).
4. *Pétain Marechala, Frantziaren aitzindaria. Familia, lana, Frantzia*, Tolosa, 1941.
5. Ikus Txomin Peillenen «Zuberoaren Askapena», in *Oihenart* 14, Eusko Ikaskuntza, 1997, 179-191 orr. Eta ale berean, beste artikululu interesgarri bat, idazle berarena: «Alemanak Parisen».
6. P. Xarriton: *Oihenart* 14, Eusko Ikaskuntza, 1997, 211-213 orr.
7. Zinez eskertzen diot Piarres Xarriton jaunari eman didan laguntza eskuzabala artikululu hau burutzeko.
8. *Marc Legasse: Un rebelde burlón*, Txalaparta, Tafalla, 1997.
9. «Euskaldungoaren aldaketak Ipar Euskal Herrian (1900-1970)», in *Jakin Sorta* 1, 1969, 44-45 orr.
10. Emilio Lopez Adan: *El nacionalismo vasco en el exilio*, eranskinean.
11. Ikus gorago aipatu Amaia Ereñagaren liburua (46. orria), edo Xipri Arbelbideren *Enbata*, Irun Saria 1995, Kutxa, 1996, 56-57 orr. Eta Imanol Murua Uria: «Piarres Xarritoni elkarriketa», in *Jakin* 97, 1996, 93-94 orr.

---

# Nietzsche euskal literaturan: Jean Etxepareren «Amodioa» (1910)

b

J U R G I K I N T A N A

b

## Sarrera

XIX. mendea bere azkenetara gerturatu ahala, krisi sentazioa hedatuz zihoan Europan. Aurreko doktrina, babilio eta ideien segurantzak kolokan jartzen hasi ziren, alternatiba berriak ere laster agertuz. Pentsalari berrien artean Friedrich Nietzsche filosofoa (1844-1900), nabarmenenetakoa dugu. Haren ideia bitalistek errotiko astinaldia eman zioten bi milurtetako tradizio judu-kristauari. Nietzscheren pentsamendua krisi giro orokor horretan hasi zen hedatzen. Paris, garaiko Europako kultur hiriburu hegemonikoa, funtsezko bozgorailua izan zen Nietzscheren zabal-kuntzan. Nietzscheren ideiak, 1890eko hamarkadan, filosofoak burua galdu ostean, hasi ziren ezagun egiten Frantzian. Mende amaieratik aurrera arrakasta izugarria lortu zuten ideia horiek, kontinente osoko letra munduan zehar barreiatuz.

Mende muga horretan sentitu zituzten Nietzscheren lehen haize erauntsiak Euskal Herriko bi idazlek: Pio Baroja donostiarrak (1872-1956) eta batez ere Ramiro de Maeztu gasteiztarrak (1874-1936). Berehala, bi idazleok aleman pentsalariaren ideiak beren beharrian eta obretara egokitzen hasi ziren. Ez zuten ordea euskaraz idatzi, eta ezta

---

**Jurgi Kintana** Historian lizentziatua da.

Euskal Herria rangan pentsatuz ere. Ramiro de Maeztuk 1899 urtean argitaratu zuen obrak, aurrenekoz nietzscherar ideiak bereganatuz, izen aski esanguratsua zuen: *Hacia otra España*. Barojak eta Maeztuk, Nietzsche euskal mundura ekarri barik espainiar mundura eramán zuten<sup>1</sup>.

Une hartan bazen, hala ere, Nietzscheren eragina jaso zuen euskaldunik, nahiz ez zuen luma berehalaxe hartu. Jean Etxepare medikuaz ari gara (1877-1935)<sup>2</sup>. Argentinako Marchiquita herrian jaioa, lapurtar familia emigratu baten baitan, sei urte zituela itzuli zen gurasoekin Euskal Herrira. Lapurdin, hezkuntza tradizionala jaso zuen. Baina Lafitte kalonjeak kontatzen duenez: «bere fede girixtinoa kordokatu zitzaio[n] Larresoroko ikastegian, filosofia ikastean, eta handik landa Nietzsche irakurtzeak itzal arazi zio[n] oldarra»<sup>3</sup>. Izan ere, 1894an, hamazazpi urte bete berri zituela, Etxepare Bordelera joan zen medikuntza ikastera;

bainan mirikuntza ez zitzaion aski: orotarik nahi zuen hedatu, gogo-bihotzak aberastu beharrez, denetarik (jasta bederen) beitezpadako zitzaiola; Alemaniako zeretarat [pentsalariengana] bereziki ekarria zen [...] emeki-emeki, zer nahi bihotzminen artetik, etsimendua gogoan, fedearen haria ari zitzaion mehatzen eta mehatzen, azkenean osoki pikatua zela iduritzera inoan. [...] Orduetik sortu zitzaion denek ezagutzen ginion barneko ilundura hits eta ezia.<sup>4</sup>

Mende bukaerako krisi giro oro korrarekin batera suertatu zen bada Etxepare ren fede-krisia. Nietzscheren filoso-fiaren berri izan ere, aleman filosofoak Frantzian entzutea lortzen hasten ari zelarik izan zuen, guztiz ere aitzindarien artean<sup>5</sup>. 1901ean, ikasketak amaitu eta mediku tituluarekin Lapurdira itzuli zen Etxepare. Hurrengo urtean, Jean Hiriart-Umúti apezaren gidaritzapean, *Eskualduna* astekarian kolaboratzen hasi zen. Baina Etxeparek literatur baliodun idazlanak egin nahi zituen, ez kazetaritza lanak soilik. Era horretara bere kronika eta idazkietan estilo literario propioa lantzeari ekin zion.

1909an, aurreko urteetan *Eskualduna*n idatziriko hoge bat artíkulu bildu, berlandu, beste lauzpabost idazki be-

rri erantsi eta *Bunxkak* izenburuko liburua osatu zuen, hurrengo urtean argitara emanez. Liburu honetan agertzen da, guk dakigula aurrenekoz, egundaino azertu gabe egon den Nietzscheren eragina Etxepareren obran<sup>6</sup>. Nietzscheren itzala *Bunxkak* obrako zenbait gauzatan antzeman daiteke, hala nola aforismoetarako zaletasunean. Guk, ordea, saskontasun apur batekin azertuko duguna atal bat da, liburu horretarako espreski idatzi zuen ipuin gisako saiakera bat, «Amodioa» izenburua duena.

## Potikarioa: «Amodioa»-ko pertsonaia nietschetarra

«Amodioa» istorioan, eskolako aspaldiko lagunak, ja gizondurik, bazkari batean nola elkartzen diren eta bertan dituzten elkarrizketak kontatzen zaizkigu. Solasaldi horien bidez, Etxeparek maitasunaren inguruko gogoeta desberdinak azaltzen dizkigu.

Istoria kontakatzeko modua alde askotatik da interesgarria. Protagonistak lanbide liberalak dituzten pertsonaiak dira: potikarioa (farmazialaria), notarioa, medikua, irakaslea, eta halakoak; esan dugunez guztiak ere eskolan batera ibiliak. Lagun zaharrok Biarritzeko ostatu batean bildu eta bapo bazkaldu ondoren, adiskide giroan, elkarren arteko eztabaida pizten dute amodioa dela eta ez dela. Hola, solas horietan, sexu eta maitasunaren inguruko kontuak azaltzen dituzte, amodio librea, bikote ereduak eta are homosexualitatea bezalako auziak ukituz. Garai hartan gai horien gainean izkiriitzea gutziz ezohikoa zen. Are gehiago horri buruz euskaraz jardutea. Estiloa eta hizkuntza trataera ere berezia dira. Horretaz aurrerago esan-go dugu gehiago.

Istoria lau pertsonaia mintzatzen dira nagusiki. Lehenik potikarioa, jarrera irrikatsu eta bizizalea erakutsiz. Bigarrenek notarioa, bikoteen arteko maitasuna elkarrekin gutzizko entrega gisa ulertzen duena. Hirugarrenek medikua, maitasun eredu kristau tradizionala eskaintzen duena. Eta azkenik lan finko gabeko gaztea, beronek eztabaida

ixten duela, amodioan askatasuna eta besteena ez juzgatzea eskatuz. Gu lehen pertsonaian zentratuko gara, potikarioan alegia, berarengan islatzen baitira Nietzscheren ideiak.

Potikario hau da, jan ondoren, eme bana beharko luketela mahaikideei adieraziz eztabaida abiatzen duena:

Zer da, bazkari on batetarik lekora [bazkari on baten ondoren], emaztearekin gozatzeaz hoberik? Hazkurriak odola berritu dautzu; edarien indarra zainetan badabilkizu, bero bezain erne. Ez duzu amodioa baizik gogoan.

Bazakiten hori gure aitzinekoek, guk ahantzia balin badugu ere, edo zorokeriaz utzia. Lurraren gainean hedaturik zauzkaten estalgietarat lerratzen ohi ziren azken ahamenarekin [mokaduarekin], soinekoak laxaturik, han ihalozkatzeko beren hauturala [gogora]. Menpeko batzuek xirula joiten zeieten edo xirribinka [arrabit-bibolina], etzitzaten adi batzuek bertzeen intzira, auhen, hasperenak; gain behera, sare betetarik erortzen zeiezten arrosa liliak, hauekien usain eztiarekin ondarra elgarren besoetan hordi ziten...<sup>7</sup>

Bizi eredu dionisiako bat agertzen da pasarte honetan, gorputzaren desioak asetu zalea, jan ondoan sexu harreman gozagarriak izatera gonbit egiten duena. Ikuspegi hau guztiz bat dator Nietzschek antzinako jendarte paganoaz ematen zuen ikuspegiarekin, eta hartan gailen omen zen moral bitalistarekin. Zaila da pasarte hau (eta gainerakoak) idazteko Etxepare Nietzscheren zein obratan inspiratu zen jakitea. Izan ere, aleman filosofoaren ideiak liburu askotan zehar barreiatuak daude. Amodio eta sexu aipu batzuk ikusteko, har dezagun adibidez Nietzscheren lehen obra, *Tragediaren jaiotza* (1872). Bertan honela azaltzen zaigu mundu dionisiako primitiboa:

Antzinaroko munduaren alde guztietan [...] Erromatik Babiloniaraino, festa dionisiakoaren existentzia baieztatzeko [...] Festa horien funtsa sexu desenfrenu izugarria zen, [...] horretan, hain zuzen, naturaren piztiarik basatienak askatzen zirelarik [...]<sup>8</sup>

Mundu horren gainean Nietzschek egiten duen interpretazioan, musika da Dionisok bere-berea duen artea. Halaber:



[...] *dionisiakoaren* esentzia gehien hurbiltzen diguna *horditasunaren* analogia da. Dela edari narkotikoen eraginagatik, zeinak jatorrizko gizon eta herri guztiek himno bidez aipatzen dituzten, dela udaberriarenganako hurbilpen boteretsuagatik, emozio dionisiako haiek pizten dira [...]»<sup>9</sup>

Jabetu gaitezen, Nietzschek mundu dionisiako honekin lotzen dituen elementu guztiak present daudela Etxepareren testuan: sexu desenfrenua (beren hauturala ihalozkatzea), musika (xirula eta xirribinka), udaberria (arrosa liliak), eta horrek guztiak sortzen duen horditasuna.

Iragan garaiok ebokatzean, ez dira Etxepareren idazkian «menpekoak» falta, Nietzscheren mundu zaharrean, jaunak eta esklaboak baitzeuden. Mundu horri Etxeparek egindako ekarpena, bertan «gure aitzinekoak» kokatzea da, modu horretara Nietzscheren ideiak euskaldunen arbasoei aplikatuz. Nolanahi ere, antzinako garaietako bizi-modua, garai modernootan, «ahantzia» eta «zorokeriaz utzia» dagoela salatzen du potikarioak, Nietzschek egindako eskeman, jaunen morala gailen izatetik esklaboen morala gailen izateraino gertaturiko aldaketa «degeneratiboa» islatuz<sup>10</sup>. Potikarioa, alabaina, antzinako moralean tematzen da, eta maitasuna, Nietzschek zioen bezala, gorputzaren eta «naturaren piztia basati» legez irteten zaio:

Amodioa, haragiaren irriks bat da dena, eta haragiak berak asetzen du. Ni, hasteko, hortako niz. Eta ez dut uste baden emazterik ezetz ihardetsiko dautanik... Zoroak dauzkat bertzela iduritzen zeienak. Beude othoi ametsak bazterrerat gure begiz ikus eta eskuz hunki dezakegunari gaudelarik!<sup>11</sup>

Azken esaldi horretan, Nietzschek etengabe errepikatuturiko errealismoaren aldarria agertzen da. Zaratustraren ahotik adierazi bezala: «Senideok, *lurari leial irautea* gomendatzen dizuet eta ez sinetsi munduaz-gaindiko itxaropenez mintzatzen zaizkizuenei!»<sup>12</sup>. Potikarioarentzat ere mundu bakarra «begiz ikus eta eskuz hunki dezakeguna» da. Mundu horretan moralena gorputzaren irriksen arabera jokatzeko da, gainerako ikuspegiak zoroen amets hutsaltzat hartuz.

Dena dela, Etxeparek Nietzscheren ideiez bestelakoak ere bazerabiltzan. Lapurtar idazleak, potikarioaren ahotik iragan dionisiakoa gustuz irudikatzen zuen bezala, bazekien iragan hori serioegi ez hartzen ere: «Amodioa»-ko beste pertsonaia batek, antzinako garaien istorioa entzun ostean adarra jotzen dio potikarioari, arbasoek maitasun jokoetan aritu ahal izateko musika eta arrosa liliak behar izatea dela eta. Gainera, bazkalondo hartako mahaikideek azaltzen dituzten diskurtso desberdinak, elkar zirikatuz baina begirunez eta ondorio dogmatiko jakin batera bideratu gabe garatzen ditu Etxeparek, «egia» guztien artean banatuz.

Guri dagokigun potikarioaren diskurtsoarekin erlazioan, harekin lehiatzen den mediku tradizionalistarena interesatzen zaigu orain. Zehazki mediku horrek euskarari buruz egiten duen oharra:

[...] ez dut uste baden mintzai bakar bat eskuara bezain minbera denik, derabiltzagunen erraiteko; lotsa da; nahiago luke egon ixilik. Eskualdunak, izan dadien gizon ala emazte, badu halako herabe bat amodiozko zerez mintzatzeko. Bakhan adiarazten ditu, erdi hitzez orduan ere [...]<sup>13</sup>

Esaldi hauetan Axularren oihartzuna suma daiteke (cf. «Orai badirudi euskara ahalke dela, arrotz dela, eztela jend'artean ausart [...]»). Baina bada hori baino auzi jakingarriagorik. Itxura batean kontraesana dago goiko parteari dionenaren eta testu osoak darabilen mintzairaren artean: medikuak maitasunaren gainean euskaraz nekez mintza daitekeela dio, baina bere hitzak eta gainerako pertsonaienak euskaraz agertzen zaizkigu. Hain zuzen badirudi Etxeparek hizkuntz joko bat egiten duela istorio honetan. Berak, bazkari hartan egondako mahaikide babiliztan, lehen pertsonan eta euskaraz kontatzen du istorioa, bertako solasaldi guztiak ere hizkuntza honetan jasoz. Baina istorioko pertsonaiak frantsesez dihardutela ulertu behar da. Izan ere, Biarritzen elkartzen diren lagunak «eskualdun eta mendien [mugaren] bi alderdietarriko erdaldun»-ak direla esaten zaigu, Paris, Bordele eta Okzitaniako Tolosan ikasiak<sup>14</sup>. Hortaz, frantsesez hezitako eta

sozializatutako euskal herritarak, euskaldun zein erdal-dun, beren artean, normalki erdaraz mintzo direnak.

Izatez, gisa honetako eztabaida bat, amodioaren inguruan, garai hartan, nahiko pentsaezina zen euskaraz, hots, euskaldun xumeen artean gertatzea; soilik pertsona eskolatuagoen artean eta frantsesez zen sinesgarri. Eta Etxeparek istorioan egoera errealista hori irudikatu zuen. Baina, literaturaren bidez, (Ipar) Euskal Herriko errealitate diglosikoaren mugapena gainditu zuen, istorioa euskaraz idatziz, eta horrela, amodio gauzak euskaraz ere adieraz zitezkeela erakutsiz. Ez bakarrik euskarak holako auziak azaltzeko ahalmena eta hizkuntz joritasuna zuela baieztatuz, baizik gaia bera euskal irakurleei ekarri eta euskaldunen solasgai bihurtuz.

Ildo horretan, euskara gai «garbietara» mugatu nahi zuen garaiko ideologia elizkoia gainditu gura zuen Etxeparek; euskarari eta euskaldunei esparru berriak ireki. Implizituki ez ezik esplizituki ere agertzen da hori istorioan. Goiko pasarteetan ikusi dugunez, mediku tradizionalista, euskarak amodio kontuak lantzeko zituen mugapenaren lekuko (eta defendatzaile) da. Baina hark dioenaren aurka berehala jalgitzen zaio potikarioa:

— Eskuara hoin uzkur balin bada eta kilika, apezek dute hortaratua. Ez noa aski barna: hortaratua dute Gali-leako zurgin seme pedoilaren [ahularen, kemengabearen] irakaspenek.

— Xo! xo, mihi tzarra! zakon ihardetsi medikuak. [Baina potikarioak laster berrekiten dio:]

— [...] ez nuk debekatuko erraitetik: eskuara hoin beratz eta thoil [astun] balin badago, apezek daukatela emalditurik [ahuldurik]. Ah! zer gizaldia zitaken beihala Eskualdunena, erlisionearen irakasteko estakuruan nausi hoik [apezak] sarthuak etzitueno! Lañokiago zerabilkean bere gogoia. Etzikean, ahoa ideki behar zuen aldi bakotx, elizako orhoitzapen zurruburruez mihia tratatua!<sup>15</sup>

Apezak salatzean, euskara Elizak instrumentalizatu izanaren ondorio mugatzaileak deitoratzen dira. Baina parte honetan azaltzen den kritika hizkuntz kontu hori baino sakonagoa da. Hasteko Jesukristo, zurgin seme (San

Joseren seme) soil gisa deskribatzen da, horrekin Aita Jainkoaren seme izaera ukatuz (eta, bide batez, Mariaren birjintasuna ere ezeztatuz). Baina gainera nazaretarraren ahalak gutxiesten dira, ostera ere, Nietzscheren ideiei jarraiki. Nietzschek, Kristori eta haren doktrinei nortasun ahula eta ahultzailea izatea egozten zien:

Garaitia hori [kristautasunarena] aldi berean odolaren pozoitze bezala har daiteke [...]; dena judutu edo kristautu egiten da, edo plebeiotu begibistan [...] Gaur ez dugu ikusten handiagoa izan nahi duen ezer, gero eta beherago jaisten ari garela sumatzen dugu, gero eta beherago eta beherago, ahulagoa, otzanagoa, zuhurragoa, bareagoa, erdipurdizkoagoa, axolagabeagoa, [...] kristauagoa den zerbaitetara [...]»<sup>16</sup>

Etxepareren potikarioak, «pozoitze» eta ahultze ideia horiek, apezek euskararengan zuten eraginean seinalatzen ditu. Aldiz, lehenagoko euskaldunek, «gure aitzineko» haiek, kristau erlijioa zabaldu aurrekoek, beren gogoia eta hizkuntza askatasun osoz zerabiltela diosku, Nietzscheren pentsamenduan moral paganoko herriei zegokien bezala<sup>17</sup>.

Honekin bukatzen da potikarioaren nietzschetar hizketaldia. Etxeparek, beraz, potikarioaren bidez, Nietzscheren ildoko diskurtso bat osatzen du «Amodioa»-n. Ez bereziki luze landuz, baina bai modu interesgarrian; Nietzscheren ideia aristokratiko-elistak baino gehiago (horien zantzuak falta ez badira ere), aleman filosofoaren proposamen dionisiakoak eta bitalistak garatuz batik bat (dela sexualitate kontuan, dela euskal iraganari begira, dela hizkuntzaren alde, dela kristautasun eta apezten menpekotasunaren aurka). Propioki Nietzscheren antzeko mezurik azaldu ez arren, aipatzekoa da, halaber, elkarrizketa ixten duen gazte langabetuaren pentsaera, harekin, potikarioaren iritziekin bezalaxe, Etxeparek balio tradizional absolutuen krisia erakusten baitu. Kasu honetan, edonolako segurtasunen kontra ugaritasuna defendatzen da, ondoko esaldian ikus daitekeenez: «Hainbertze gizon mota, hainbertze amodio mota, horra egia»<sup>18</sup>.

Amaitzeko, Nietzschekin nolabait lotu daitekeen azken ezaugarri bat agertzen da istorioaren azken aldera.

Jada solasaldia bukatu delarik, mahaikide bakoitza bere aldetik joateko dagoenean, honako zirikada botatzen du gazte langabetuak: «Ikusten dut potikarioak uztekotan gaituela, lilittoer jarraitzeko»<sup>19</sup>. *Lilitto* hitza, «grisetete, cocotte, ramera» gisa azaltzen zaigu Etxepareren oin-ohar batean. Potikarioari putazaletasuna egoztean, Etxeparek, Nietzscheren pentsaera jaso baino gehiago, aleman filosofoaren bizitzaz garaian kontatzen ziren istorio eta legendak aintzat hartu bide zituen (Nietzsche emagalduegana maiz joaten zela, zorotasun eta heriotza ere giro haietan harturiko sifiliak eragin zizkiola, eta antzekoak)<sup>20</sup>. Hala, Etxeparek irudikatzen duen potikarioa, ez da hainbeste Nietzsche intelektualaren isla zehatza, baizik harengan inspiraturiko pertsonaia bizizalea. Eta ezustean, iragarpen bat bailitzan, «Amodioa»-n deskribatu zaigun potikario honek, bere jokabide eta pentsamenduarekin, laster agertuko zaigun odol-haragizko pertsona bat dakarkigu gogorra.

Segitu aurretik baina, egin dezagun ohar pare bat obra honek atera zenean ekarri zuenaz. Esan beharrik ez dago, «Amodioa»-k, bere planteamendu berritzailleekin, pentsaera irekiarekin eta modako pentsalarien eraginekin, ez zuela parekorik orduko euskal literaturan. Gogora dezagun, Etxeparek *Buruxkak* atera zuen urte berean, Txomin Agirre, garaiko kezkei bizkar emanik, *Garoa* argitaratzen ari zela, ehun urte lehenagoko *Peru Abarka* baserrizalearen ildoko eleberria<sup>21</sup>.

Etxepareren lana, orduko Europan lantzen ari zen literaturarekin alderatzen badugu, ez da batere atzean geratzen. Eta konparazioa, aipatua bezala, gainerako euskal obrekin eginez gero, Etxepareren lana ezin modernoagoa suertatzen da. Hain modernoa, non zail ere bazen garaian halako ideiekin bat egin zezaketen irakurle euskaldunak aurkitzea. Izatez «Amodioa» ipuinak eta eskola laikoaz ziharduen Buruxketako saiakera batek («Nor eskola-emai-le. Zer irakats»), eskandalua sortarazi zuten. Hainbesteko iskanbila sortu ere, liburu osoa galbidean jartzeraino: adiskide, guraso eta apez euskaltzaleen presiopean, Etxeparek bere obra, urte hartan Ipar Euskal Herrian argitaratu

zen euskarazko liburu bakanetakoa, bahitu beharra izan zuen. Bere dirutik ordaindutako argitalpen osoa etxean gorderik, soilik lagunen artean banatu ahal izan zuen<sup>22</sup>. Etxepareren jarduna ez zen haatik eten, eta hurrengo urte guztietan euskaraz idazten segitu zuen, baita hainbat elkarte euskaltzaletan ibili ere. Baina aurrerantzean Etxeparek bere burua zentsuratu beharra izan zuen, eta bere liburu kutuna, *Buruxkak*, ez zuen hil arte berriro argitara emateko aukerarik izan. Haren heriotza ostean, apez euskaltzale batek Etxepareren prosari eder iritzirik, *Buruxkak* berrargitaratzea deliberatu zuen. Eta hola 1941ean bigarren edizioa azaldu zen, baina, hori bai, bi kapitulu mada-rikatuak kendurik<sup>23</sup>.

Nolanahi ere, zentsuratua izan arren, Etxepareren lanak gezurtatu egiten du mende hasierako euskal literaturan dena bukolismo tradizionalista zelako ustea. Aitzitik, erakusten du garaiko filosofiak eta puntako ideiek bazutela agerrerarik euskal idazleen artean. Agerrera bakanak apika, baina agerrerak azken finean. Etxepareri ezagutu beharreko meritua baita, besteak beste, Nietzsche aurreneko euskal mundura ekartzea.

Behingoan, eta akaso halabeharrez izan bazen ere, euskal literaturak Euskal Herriko erdal literaturei aurrea hartu zien: Etxeparek, Pio Barojak *Jaun de Alzate* eleberria idatzi baino hamabi urte lehenago irudikatu zuen euskal iragan nietzschetarra. Jakina denez, Pio Barojaren eleberriak, ildo nietzschetar bereko euskal Antzinaro dionisia-koa agertu zuen<sup>24</sup>. *Jaun de Alzate*, ipuin laburra barik nobela mardula zenez, Barojak Etxeparek baino sakonago garatu zuen garai mitiko hura. Imajinario horren sorreran aitzindaria, ordea, Etxepare izan zen.

Edozein kasutan, ez dirudi Pio Barojak Etxepareren lanaren berririk zuenik. Seguruenera, biek ere, bide paraleloetatik eta elkarren entzuterik izan gabe, eskema nietzschetarrak antzinako euskaldunei aplikatu zizkieten, arlo horretan antzeko emaitza lortuz. Misteriotsuagoa da Etxeparek, gure literaturako hurrengo idazle nietzschetarrarekin izan zezakeen lotura. Hots, Etxepare eta Jon Miranderen arteko lotura.

## Etxepare eta Mirande

Jon Mirandek (1925-1972) bere obra osoan agertzen du Nietzsche eta beste aleman filosofo batzuen eragina<sup>25</sup>. Hola, euskal imajinario nietzschetar ugari sortu zituen paristar idazleak. Mirandek, bestalde, bazuen Pio Barojaren berri, *Jaun de Alzate* eleberria gogotik laudatu zuelarik. Aldiz ez diogu inori irakurri Mirandek Etxepareren lana bazaguenik. Printzipioz, aukera handiak zeuden horretarako: Mirande euskalduna zen, Pio Barojak ez bezala euskal literatur tradizioa aski ondo ezagutzen zuen, eta gainera Iparraldean ibili zen, Etxepareren esparru berean. Bilatuegatik baina, ez dugu Miranderen idazkietan Etxepareren aipurik aurkitu.

Saiatu gara, halaber, Miranderengan intertestualitate zantzuren bat, Etxeparerekiko keinuren bat, aurkitzen. Izan ere, Miranderi gustatzeko moduko elementu ugari eskaintzen zituen «Amodioa»-k (horien artean, potikarioaren pertsonaia, edo hura bezain interesgarri haren ahotan ageri den lexikoa, halanola «pedoil» hitza, Jesukristoren kontra euskaraz idatzi den aurreneko iraina seguruenik, edo «lilitto» emagaldu zentzuan erabilia). Ez dugu, ordea, Mirandek halako ezer baliatu zuenik baieztatu<sup>26</sup>. Beharbada Miranderen lana hobeto aztertu dutenek topatuko dute froga segururik. Baina, gure behin-behineko emaitzaren arabera, ez dirudi Mirandek Etxepare, edo hobeto esan Etxepareren «Amodioa», irakurri zuenik.

Horren azalpen posible bat, Mirande berrogeita hamarreko hamarkadan euskal munduan agertu zenean, 1910eko Buruxken edizioa eskuragarri ez egotea izan daiteke. Horren ordez, 1941eko berrargitalpen zentsuratua aurki zezakeen, kasu horretan «Amodioa» atala ezin irakurri izanik. Baina beharbada ez zuen bigarren edizio hori ere ezagutu, ezen eskuratu izan balu uste izatekoa da haren hitzaurreak jatorrizko lana aurkitzeko gogoia piztuko zio- la: 1941eko aitzinsolasean Etxepare ren bizitzaren eta barne krisien berri ematen zen; gainera, Etxepare «Nietzsche bezalako batzuen liburu khiratseri lotu ze[la]» irakur zite-

keen, baita argitalpen berritik Buruxken jatorrizko edizio-ko «ezin onhetsizko bi kapitulu hits» kendu zirela ere, bata «aphezen eskoleri ezin aiherrago» egoteagatik, eta bestea «a usartzia guziak bilduak zauzka[lako], itsusienak bame, amodio garbia eta bertze edozoin, berdin haizu emaiterainokoan». Ohar horiek Miranderengan jakin-mina sortarazteko adinakoak zirela uste dugu. Hortaz, edo Mirandek ez zuen 1941eko edizioa irakurri, edo irakurri arren, agian ez zuen 1910eko edizioa topatzerik izan.

Istorio honetan, Etxepare eta Mirande, biak ezagutu zituen gizona izan daiteke gakoa: Piarres Lafitte kalonjea (1901-1985). Lafittek gaztetan ezagutu zuen Etxepare, eta haren adiskide egin zen. Harreman handia izan zuten, eta beren arteko solasaldietan, Lafittek, Etxepare Nietzscheren irakurketek hunkitu zutela jakin zuen. Etxepare hil ondoren, Lafitte arduratu zen haren lana berreskuratzeaz. Izan ere, kalonje hau izan zen 1941ean *Buruxkak* liburua-  
ren berrargitalpena prestatu zuena. Hori bai, Lafittek Etxepareren figura «zintzotu» egin nahi izan zuen. Eta hola, jada aipatu denez, 1941eko edizioan, kendu egin zizkion «Amodioa» eta «Nor eskola-emaile. Zer irakats» artikulak. Halaber, berrargitalpen horri idatzi zion hitzaurrean, Lafittek, Etxepareren ezinegonak kontatu ondoren, haren alderik kristauenak nabarmendu nahi izan zituen, Nietzsche eta gainerakoen eraginak gaztaroko zoroaldi iragan-  
kor gisa agertu guran<sup>27</sup>.

Era horretara, Etxepare hilik eta haren lana behar bezala iragazirik, euskal literaturako idazle heterodoxoen historia amaitu zela pentsatu bide zuen Lafittek. Nolakoa izan ote zen gure kalonjearen espantua handik urte batzuetara Mirande eta haren ideiak ezagutu zituenean. Etxeparerengan Elizarenganako zirikadak eta nietzschetar moral zantzuak aurki bazitezkeen, Miranderengan gisa bereko ideiak askoz era gordinagoan azaltzen ziren. Ezagun da Lafittek hasieran ondo hartu zuela Mirande, baina haren pentsaeraren berri izan ahala urrunduz joan zela, azkeneko ikusi ere ezin egiteraino<sup>28</sup>. Agian elkarrengandik urrun ibili zirelako, ez zen suertatu beren artean Etxeparez hitz egiterik. Edo agian, Lafittek ezkutatu egin nahi



izan zion Miranderi Etxepareren aurrekaria: ez zedila gerta Mirandek, bera bakarrik aski bazter-nahasle izanik, euskal literaturan ere bere aldekoak topatzea<sup>29</sup>.

Zelangura delarik, Miranderen eta Etxepare ren kasuak ez dira guztiz berdinak. Egia da beren artean paralelismoak egon badaudela. Hasteko biak jaio ziren Euskal Herri tik kanpo, nahiz gertaera honek seguruenik garrantzia handirik ez izan. Parekotasun nabarmenagoa da biek nahi izan zutela euskaraz egiazko literatura landu. Gainera, jatorri z biak ere fededun kristau izanik, krisi erlijiosoa igaro zuten, horren haritik Nietzscheren filosofiara hurbilduz; hori k sortu zitzaizkien beren ezohiko hautu moralak, garaian aski txarto ikusiak izan zirenak. Biek ikasi zituzten, halaber, hainbat hizkuntza. Eta, azkenik, biek jasan zuten euskal munduaren baitan nolabaiteko bazterketa. Euren arteko diferentziak ere kontuan eduki behar dira ordea.

Lehen desberdintasuna, erudituen nahi bada, batetik eta besteak eraiki zuten euskal imajinario dionisiakoaren arteko nabardura filosofiko bati dagokio. Mirandek irudikatu zuen ikuspegian, Nietzschek bezala iragan paganoa goratu a ren, egiazko mundua ezkutukoa zen, Schopenhauerren eran. Etxepare ren potikarioak, aldiz, hertsikiago segitzen zion Nietzsche eta haren mundu ageriko eta lurta rari (Pio Barojaren *Jaun de Alzate*-ko pertsonaiek egiten zuten bezala)<sup>30</sup>.

Hurrengo diferentzia maila pertsonalekoa da. Etxepare rentzat Nietzscheren ideia pagano-bitalistak kitzikagarri gertatu ziren, baina ez zituen bere bizitzako zutabe bihurtu. Aldiz, Miranderen pentsaeran eta are ikuskera politikoan Nietzsche eta beste filosofo aleman batzuen ideia bizizaleak guztiz nagusitu ziren. Adierazgarria da «Amodioa» kontakizunean, potikario nietzschetarraren parez pare, Etxeparek, bestelako pertsonaiek jartzea; eta istorioko ondorioa bera aski eklektikoa izatea. Potikarioaren esanak, dudarik gabe, Mirandek idatziak izan zitezkeen; baina gainerako pertsonaiek ez ziratekeen Miranderen lumatik hain erraz irtengo. Mirande potikarioa zen soilik. Etxeparek, pentsamendutan konplexuago, potikarioa, medikua, notarioa eta gazte langabetua zituen bere baitan<sup>31</sup>.

Bizi izan zuten testuinguru eta haren aurrean hartu zuten jarreretan ere badira aldeak Etxepare eta Miranderen artean. Etxepareren *Buruxkak* Frantziako III. Errepublikaren garaian azaldu zen, Eliza eta Estatuaren artean gatazka gogorak bizi ziren unean. Garai hartan Iparraldeko mundu euskaltzalea, *Eskualduna* aldizkariaren inguruan bildua, ia osotara zen elizkoia eta laizismoaren aurkako. Errepublika, bestalde, euskal munduaren aurka oldartzen zen, euskarazko katiximak galarazten saiatzeraino. Testuinguru horretan, Etxeparek egin zuen aukera guztiz apartekoa izan zen, laizismoa euskaraz aldarrikatuz, apezak eskolatik aldentzeko eskatuz eta Elizaren moralaren aurrean ostantzeko alternatibak erakutsiz. Hor izan ziren gaitzetsiak Etxepare ren «Nor eskola-emaile. Zer irakats» eta «Amodioa». Etxepare aurrerakoiegia zen garaiko euskal munduarentzat. Oso bestelakoa da Mirandek gaitzetsi zuen testuingurua. Mirandek Bigarren Mundu Gerrako izuen ondoren idatzi zuen, nazismoa defendatuz eta juduen Holokaustoaz trufatuz. Gure herriari dagokionez, Mirandek, euskal mundu tradizionalista bezainbeste, orduan sortzen ari zen euskal korronte ezkertiarra errefusatu zuen. Horregatik guztiagatik ere, eta ez soilik bere moral edo literatur edukiengatik, jasan zuen bazterketa<sup>32</sup>. Honekin, jakina, ez dugu Miranderen idazle gaitasunez ezer esaten. Soilik Miranderen jokabidea eta Etxeparerena ditugu bereizten. Eta beren arteko aldea ez da makala.

Alta, aitortu beharra dago, Etxeparek 1910ean erdietsi ez zuena, Mirandek eta bere belaunaldiko beste gazte batzuek (Krutwig, Aresti, Txillardegi...) lortu zutela: euskal kultur molde zaharrak apurtzea eta eredu berriak gailenaraztea. Etxeparek mende artean bidai-lagunik gabe sentitu zuen krisia, euskaldun gehiagok bizi izan zuten XX. mendearen erdialdetik aurrera; eta Miranderen belaunaldi horrek indar handiagoz ekin ahal izan zion eredu eta balio berriak aldarrikatzeari. Hala, 1950-70 hamarkaden artean, ideologi eta kultur gatazka bortitza bizi izan zen Euskal Herrian: lehenagoko mugimenduen aurrean, existentzialismoa, marxismoa, euskara batua, ETA zein Miranderen heterodoxiak jalgi ziren, azkenerako euskal kultur mundu

tradizionala gaindituz. Urte haietan igarotakoak igaro ondoren, Etxepare ren testuak ez ziren jada inor eskandalizatzeke modukoak. Eta, azkenean, 1980an, Etxepare hil eta berrogeita bost urtera, atera ahal izan zen mozketarik eta arazorik gabe *Buruxkak*<sup>33</sup>. Baina 1910ean goiztiarregi ibili bazen, 1980an beranduegi zen Etxeparearentzat. Eredu literario berriek ordurako hasia zuten ibilbidea, Etxepare ez izanki narratiba berri horretan mugarri ezaguna. *Buruxkak* obrak, idatzi zenean izandako berritasun eta izaera polemikoa, jada galdua eta ahantzia zuen. Gainera, Etxepare ren lapurtar-baxenabartar euskara aberatsa urruegia gertatu bide zitzairen irakurle berriei, bereziki Hego Euskal Herrikoiei, liburuaren irakurketatik uxatuz. Era horretara interes berezirik sortarazi gabe igaro zen 1980ko argitalpena, urte hartan argitaratu ziren euskarazko ehundaka liburuen artean galdu xamar geratuz.

Ordutik Etxepare ren obra berreskuratzeke zenbait saio egin dira, eta azken urte hauetan hasi da merezi duen arreta eta aitortza bereganatzen<sup>34</sup>. Nietzschek Euskal Herrian izandako eraginaz ekarpen txo bat egiteaz gain, artikululu honen bidez, geuk ere, euskal literatura modernoa ren aitzindari izandako Etxepare ren memoria berreskuratzen lagundu nahi izan dugu. Bere garaiko euskal pentsaerari aurea hartu ziolako zigortu zuten behinola. Ez dezagun orain ere, Etxepare ren gogoia hurbilagoa zaigunean, ahantztura eta bazterketa irauarazi.°

1. Geroago, bereziki Barojak, Nietzscheren euskal irakurketa bat egin zuen. Baina orain esaten ari garen mende artean, ez zeuden Euskal Herrira begira. Mende berriaren atarian, Maeztuk, aipatu dugun liburua idazteaz gain, Baroja eta Azorin valentziarrarekin batera, Espainia aurrerabidean jarri beharra aldarrikatzen zuen manifestua plazaratu zuen, Nietzscheren ideia jasoberriak goiburu izanik. Cf. Azorin, «Nietzsche en España» ([www.geocities.com/SoHo/Atrium/1788/bios/azorin/nietnesp.htm](http://www.geocities.com/SoHo/Atrium/1788/bios/azorin/nietnesp.htm)); oro har Nietzscheren errezeptioaz Espainian: Gonzalo Sobejano, *Nietzsche en España*, Madril, 1967.
2. Etxepare izena, eta gainerako euskal idazleenak, egungo grafian ematen ditugu, nahiz XX. mende hasieran *Etchepare* idazten zen. Orduko euskal testuen idazkerarekin berdin jokatu dugu, *Buruxkak* barik *Buruxkak* hobetsiz. (Hala ere, oin-oharretako aipu bibliografikoetan, liburu eta artikuluko bakoitzak agertzen duen bezala dakargu titulua eta egilearen izena, jatorrizko erreferentziak ez itxuraldatzeko).
3. Cf. Piarres Lafitte, «Mende huntako euskaldun idazleen pentsabideak», *Gure Herria*, 4-5. znb., 1974. Nietzscheren eragina euskal kulturari —eta bereziki Miranderengan— aztertu izan duen Joxe Azurmendik, ezagun izan du Lafitteren oharra, baita ikerle gazteagoei holako auziak ikertzeko gonbit egin ere (cf. *Euskal Herria krisian*, Elkarlanean, Donostia, 1999, 244 eta 273. orr.). Gaia beraz proposaturik zegoen, lantzea falta zen. Artikulu honen bidez erroka horri erantzuten saiatuko gara.
4. Piarres Lafitte, «Aitzin-solas», in *Buruxkak*, Elkar, Donostia, 1991, 10. orr. Etxepareren bizitzaren gaineko beste datuak ere autore honi hartu dizkiogu.
5. Nietzsche 1898az geroztik hasi zen entzuterik handiena lortzen Frantzia (eta baita Europa osoan ere), aurreneko une nietzschar handia lehen mundu gerraraino luzatu zelarik. Cf. Jaques Le Rider, *Nietzsche en France. De la fin du XIXe siècle au temps présent*, Presses Universitaires de France, Paris, 1999, 93-94 eta 104-105. orr. Obra baliagarria oro har Nietzscheren errezeptioaz Frantzia.
6. Etxepareri buruz Jon Casenavek buruturiko doktorego tesiak, jakin ahal izan dugunetik (ezin izan baitugu zuzenean kontsultatu), ez du Nietzscheren isla aztertzen *Buruxketan* (cf. *De l'article de presse à l'essai littéraire Buruxkak (1910) de Jean Etchepare*, Université Michel de Montaigne-Bordeaux III, 1997, argitaratu gabea). Hortaz gai honen inguruan ekarpen berri bat egin ahalko dugulakoan gaude.
7. Jean Etchepare, *Buruxkak*, I. Arrigaine (arg.), Klasikoak, Bilbo, 1992, 74-75. orr. (Aipuak egiteko Klasikoak bildumako argitalpen hau darabilgu, grafia gaurkoturik baitakar, gainerakoan jatorrizko testua errespetatuz).

8. *Tragediaren jaiotza* obra ez dago euskaraturik, hortaz itzulpena geurea da. Jatorrizko testuak hola dio: «Aus allen Enden der alten Welt [...] von Rom bis Babylon können wir die Existenz dionysischer Feste nachweisen [...] das Centrum dieser Feste in einer überschwänglichen geschlechtlichen Zuchtlosigkeit, [...] gerade die wildesten Bestien der Natur wurden hier entfesselt [...]», in *Die Geburt der Tragödie. Friedrich Nietzsche Sämtliche Werke. Kritische Studienausgabe. Band 1*, G. Colli-M. Montinari (arg.), Deutscher Taschenbuch Verlag, Munich, 1980, 31-32. orr.
9. Jatorrizko testuan: «[...] das Wesen des *Dionysischen*, das uns am nächsten noch durch die Analogie des *Rausches* gebracht wird. Entweder durch den Einfluss des narkotischen Getränkes, von dem alle ursprünglichen Menschen und Völker in Hymnen sprechen, oder bei dem gewaltigen, die ganze Natur lustvoll durchdringenden Nahen des Frühlings erwachen jene dionysischen Regungen [...]», in *Die Geburt der Tragödie...*, 28-29. orr. Kopiatu ditugun pasarteok Antzinaroko herri guztiek elkarbanatzen ei zuten mundu dionisiakoari dagozkio, mundu dionisiako primitiboari (Nietzscheke imajinatzen zuen bezala). Garai hartan ba omen zegoen, ordea, mundu dionisiako horren bariante sofistikatu eta errefinatuago bat, greziar klasikoena (hartaz dihardu gehienik Nietzscheke). Baina guri mundu dionisiako primitiboa interesatzen zaigu, komuna, ez grekoena; zeren potikarioak mundu primario hori darabil gogotan.
10. Jaunen moraletik esklaboen moralerako eboluzio hori, argien azaldurik, honako obran aurki daiteke: F. Nietzsche, *Moralaren genealogia*, Klasikoak, Bilbo, 1997; bereziki «Lehen tratatua: 'ona eta gaiztoa', 'ona eta txarra'», 31-63. orr.
11. J. Etchepare, *Buruxkak*, Klasikoak..., 75. orr.
12. F. Nietzsche, *Honela mintzatu zen Zaratustra*, Klasikoak, Bilbo, 1992, 32. orr.
13. J. Etchepare, *Buruxkak*, Klasikoak..., 79. orr.
14. J. Etchepare, *Buruxkak*, Klasikoak..., 73-74. orr.
15. J. Etchepare, *Buruxkak*, Klasikoak..., 80. orr.
16. F. Nietzsche, *Moralaren genealogia...*, 43 eta 51-52. orr.
17. Nietzscheren ideioek baliatuz Etxeparek ordura arte gailen izandako euskaldun-fededunaren imajinarioa hausten du. Tradizionalki euskal espiritua eta kristau espiritua berdintzen baziren, potikarioak kristautasuna euskaldun jatorraren kontraktotzat agertuko du: apezak ez dira euskalduntasunaren berme izango, etsai baino; behinolako euskaldun paganoak ere ez dira ordura arteko apologismoak eta literatura erromantikoak irudikatu zituen bezala monoteista zintzo (ia-kristauak) izango, baizik gogo askeko jende bizizaleak. Potikarioak, euskaldun jatorra antzina-koa zela onartuz, lehengo euskaldun haien bestelako irudi bat eskaintzen du, horrekin XIX. mendeko topikoei erantzuna ematu


nez (ez da ahaztu behar legenda «euskaro» gehienak erdaraz egin arren, antzinako euskaldun-fededunaren irudiak oihartzun zabala izan zuela euskarazko obretan ere, halanola 1889ko Michel Elizanbururen *Lehenagoko Eskualdunak zer ziren* liburuan edo 1898ko Txomin Agirrerren *Auñamendiko lorea* eleberrian).

18. J. Etchepare, *Buruxkak*, Klasikoak..., 85. orr. Itxura batean ideia bera gogorarazten duten euskal esaera zaharrak aurki daitezke, adibidez, «zenbat buru hainbat aburu» edo «herrik bere lege, etxek bere aztura». Etxepareren berrikuntza, aniztasuna, iritzi edo usadio mailan ez ezik, arlo moralean errebindikatzean dago, aipatu dugun perpausaz gain pentsaera erlatibista oso bat azaltzen baita gazte langabetuarengan, nahiz guk ez dugun hemen aztertuko.
19. J. Etchepare, *Buruxkak*, Klasikoak..., 88. orr.
20. Nietzsche hil orduko era guztietako mitoak zabaldu ziren bere bitzitaz, biografia serioek baino askoz oihartzun handiagoa zutelarik. Cf. J. Le Rider, *op. cit.*, 107-108. orr.; Ernst Bertram, *Nietzsche. Essai de mythologie*, Éditions du Félin, Paris, 1990.
21. Cf. Ana Maria Toledo-Lezeta, «Txomin Agirre (1864-1920): mende-mugako zurrunbilotik urrun», *Bidebarrieta. Bilboko giza eta gizarte zientzien urtekaria*, IV, 1999, 123-137. orr.
22. Pierre Broussainek Georges Lacomberi 1913.11.14an igorritako gutun batean, *Buruxkak* eskuratzeko interesa izan zezaketen Ipar Euskal Herriko euskaltzaleen zerrendatxo bat ageri da, hogeit hamar pertsonak doiki osatua. Bistakoa denez, arras murrizta zen garaian «adin heldutasuna» onartzen zitzaion euskal irakurlekoa (cf. Piarres Charritton (arg.), «Fonds Lacombe du Musée Basque: Les lettres de Pierre Broussain à Georges Lacombe», *Bulletin du Musée Basque*, 110 (3. ald. 88), 1985, 178. orr. Erreferentzia honen berria Xabier Altzibarri zor diogu).
23. Bigarren argitalpen purgatu horrek ez dakar datarik, bi izanik aurkitu ditugun argitalpen urte posibleak: 1936 eta 1941. Guk bigarren hori darabilgu, edizio berriaren aitzinsolasak aipatzen duen «galdu berria dugun gerla»-ren datari (alemanek Frantzia okupatzeaz diharduela ulertu behar da) hobeto egokitzen zaiolakoan.
24. Pio Barojarengan eta bereziki *Jaun de Alzate* obran ageri diren eragin nietzschetar eta neopaganoez, ikus Joxe Azurmendi, «Nietzscheren itzal argia», in *Euskal Herria krisian...*, 222-228. orr. eta Jon Juaristi, *El linaje de Aitor*, Taurus, Madril, 2. arg., 1998, 274-289. orr.
25. Auzi hau Joxe Azurmendik aztertu izan du gehien: *Mirande eta kristautasuna*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia, 1978; *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler, Miranderen pentsamenduan*, Susa, Zarautz, 1989; «Nietzscheren itzal argia», in *Euskal Herria krisian...*, 209-280. orr. (aurrenekoz 1989an argitaratua). Nietzscheren eraginean guztiz zentratu ez arren, horretaz ere azalpenak aurki daitezke in Luis Mari Mujika, *Miranderen poesigintza*, I. bol., Haranburu, Donostia, 1984 (bereziki 62-78. orr.).

26. Soilik Miranderen *Ohiko Jainkoari* poeman (in *Obra osoa*, I. bol., Hiria, Alegia, 1999, 108. orr.), Etxeparek Jesukristori deitzen zion «zurgin seme» egituraren antz apurtxo bat duen «Judu-seme» espresioa aurkitu dugu, honek ere nazaretarraz mesprezuz diharduela. Baina bi idazleek Jesusi dagozkiola «seme» hitza erabiltzea, eta euskaraz hain arrunta den konposaketa moduan txertatzea, ez zaigu intertestualitatea iruditzen, gaiak eta hizkuntzak errazturiko kasualitatea baino.
27. Cf. Piarres Lafitte, «Aitzin-solas», in *Buruchkak*, Gure-Herria-Le Livre, Baiona, 1941, 5-21. orr. (orain Elkarren 1991ko edizioan ere aurki daiteke).
28. Mirandek argiro azaldu zuen Lafittek berarenganako agertu zuen mesprezua: «[...] nik, aski ergelki, apaiztzo hori [Lafitte] ene adiskidetzat neukan; ba nekien jite bitxia zuela bainan ez nuen uste hain faltsu eta gorrotoz betea zenik» (cf. Mirandek 1962ko uztailean Andima Ibiñagabeitiari idatziriko eskutitza in *Jon Miranderen gutunak*, P. Urkizu (arg.), Susa, Zarautz, 1995, 196. orr.). Lafittek Mirande euskaltzain oso izendatzea bera oztopatu omen zuen (cf. L.M. Mujika, *op. cit.*, 40. orr.).
29. Esan gabe doa Lafittek Etxepare Mirandegandik aktiboki alden du nahi izatearen ideia hipotesi hutsa dela. Baina sintomatikoa izan daiteke, jada Mirande hila zela, Lafittek «Mende huntako euskaldun idazleen pentsabideak» izeneko artikuluan idatzi zuena (*Gure Herria*, 4-5. znb., 1974). Bertan, filosofia landu edo harekin lotura izan zuten euskal idazleen artean Pio Baroja eta Etxepare aipatzen zituen, biak atal berean eta ondoz ondotik. Aldiz, Mirande bloke berean jartzea «ahaztu» egin zitzaion. Aurreago bai aipatu zuen, baina nahiko marjinalki eta Etxepare zein Pio Barojarekin ezin lotzeko moduan. Beharbada Mirande eta Lafitte biak ezagutu zituztenek (Txomin Peillen, Piarres Xarritton...) zerbait gehiago esan ahalko digute Etxepare-Lafitte-Mirande arteko harremanaz.
30. Joxe Azurmendik hobeto azaltzen du desberdintasun hau, Barojaren eta Miranderen munduak kontrastatzean: «[...] bion arteko antzak, bi-bion ontologia desberdinen gainean daude eraikita, esaten ari garen Barojarenak alegia eta ulertu nahi dugun Mirandere-nak. Azken honentzat, Schopenhauer-entzat bezala, fenomenoetako mundua (agerkorra) irudipena baizik ez da, egia-egiazkoa barnagoko agertezina izaki. Barojarentzat [eta Etxepareren potikarioarentzat], Nietzsche-rentzat bezala [...] ez dago beste benetako mundurik agerpenetako haxe baino [...]» (cf. J. Azurmendi, «Nietzscheren itzal...», 228. orr.). Hala ere, Azurmendik beste nonbait dioenez, Mirandek ez bide zuen beti iritzi hau izan eta baliteke garairen batzuetan Nietzscheren ikuspegitik hurbilago egotea Schopenhauerrengandik baino (cf. J. Azurmendi, *Mirande eta kris-tautasuna...*, 63-65. orr.; eta *Schopenhauer, Nietzsche,...*, 66-68. orr.).

31. Lafitteren lekukotzek Etxepareengan dauden eragin ugariak eta ikuspegi nabarrak baieztatzen dizkigute. Lapurtar kalonjeak dioskunez, Etxeparek Nietzsche, Haeckel, Reichenbach eta Schopenhauerren filosofia jaso zuen, baina horregatik ez zion guztiz uko egin tradizio kristauagoko ekarpenei (adibidez, Etxeparek Kempsen *Jesukristoren imitazioa* liburu eredugarritzat omen zuen, ez ikuspegi erlijiosotik, baizik eguneroko bizitzan jarduteko). Cf. P. Lafitte «Aitzin-solas», in *Buruchkak...*, 5-21. orr. (orain Elkarren 1991ko edizioan); «Mende huntako euskaldun idazleen pentsabideak», *Gure Herria...*; eta «Jean Etxepare jaun miriku zena», in *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak. I Euskal gaiak*, P. Charritton (arg.), Elkar, Donostia, 1984, I-IV. orr.
32. Miranderen inguruan azaldu diren iritzi ugarien artean, eta haren «errebeldia» politikoari dagokionez, Emilio Lopez Adanen balorazio ezkorrearekin bat gatoz (cf. «Mirande arazo» gai monografikoa in *Jakin*, 106. znb., 1998ko maiatza-ekaina, 9-84. orr.). Miranderen ideologia hain latza ez dela uste dutenei Britainiatik heldu berri den azken testigantza irakurtzeko gomendioa egiten diegu: Francis Favereau, «Goulven Pennaod, Jon Mirande et la Bretagne», *Lapurdum*, V, 293-305. orr. (berezi 300. orr.).
33. J. Etxepare, *Buruxkak*, Elkar, Donostia, 1980.
34. Laurogeiko hamarkadan Piarres Xarritton ia bakarka hasi zen Jean Etxepareren lanak berreskuratzen (cf. *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak*, Elkar, Donostia, 1984-1996, 5 bol.). Orduetik Buruxkek bi edizio gehiago izan dituzte, bata Elkarrena 1991n, bestea Klasikoak bilduman 1992an. Gerora, jada aipatu dugun Jon Casenaveren tesia etorri da, zorigaitzez oraino argitara eman gabea (dena dela, tesi honen sintesi-ondorioa irakur daiteke in «Le renouvellement de la prose basque à travers 'Buruchkak' (1910) de Jean Etxepare», *Lapurdum*, III, 1998, 221-228. orr.; eta autore berak Buruxketako atal bat aztertzen du in «L'autobiographie comme registre littéraire: 'Ameriketako orhoitzape-nak' de Jean Etxepare», *Lapurdum*, V, 2000, 283-292. orr.). Patri Urkizuren zuzendaritzapean atera den azken euskal literaturaren historiari ere, Xabier Altzibarren eskutik, atal bat ematen dio gure idazleari (cf. «Jean Etxepare (1877-1935)», in *Historia de la literatura vasca*, AA, UNED, Madril, 2000, 598-603. orr.). Aipatze-koa da, azkenik, irakasle honek doktorego kurtso bat eskaini izan diola Jean Etxepareri (EHUn 1999-2000 ikasturtean). Hain zuzen ikastaro hartan izan genuen guk Etxepareren berri. Artikulu honek berak, ikasgai hartarako egin genuen lantxo batean du abiapuntua. Ezin dugu bada, Xabier Altzibarri eskerrak eman gabe amaitu.





# JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C  
20018 DONOSTIA  
Tel. 943.21.80.92  
Fax. 943.21.82.07  
[jakin@jalgi.com](mailto:jakin@jalgi.com)